Arloetako alfabetatzearen azterketa batxilergoko diziplinarteko proiektu batean. Kasu azterketa.
Analysis of Subject-Specific Literacies in a Multidisciplinary Project in Upper-Secondary Education. Case Study.

Amaia Lersundi Pérez

Joanesi,

Aurrera, beti aurrera!

Eskerrak

Gogorra izan da amaiera, baina azkenean iritsi da hainbeste esperotako eguna. Erronkaz beteriko urteak izan dira. Harro gogoratuko dut beti egindako esfortzua eta urte hauetan bizitakoa. Izugarria izan da ikasitakoa.

Atzera begiratu, eta asko dira urte hauetan nire ondoan egon zaretenak. Badira ere, nahi baino urrutiago egon direnak. Lerro hauek aprobetxatu nahi ditut modu batean edo bestean prozesu honetan lagundu didazuen guztioi eskerrak emateko.

Lehenik eta behin, mila esker zuzendariei, Eneritzi eta Idurreri, erabakiak hartzen laguntzeagatik, galduta sentitu naizenean bideratzeagatik eta momentu zailetan ondoan egoteagatik. Esker berezia bihotzez Eneritzi DENA emateagatik. Zure zabaltasunagatik, prestutasunagatik, jarreragatik. Betirako egongo naiz eskertuta.

Mila esker Huheziri, PIF izateko aukera emateagatik. Momentu askotan pribilegiatu bat sentitu naiz eta eskainitako aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzen saiatu naiz. Mila esker Iñakiri, prozesu honetan tutore izateagatik, eta Juliari, ingelesarekin laguntzeagatik. Mila esker ere Huheziko langile guztiei. Eta, nola ez, PIFei. Leti, Sirats, Marta, Irati, Roberto, bagoaz aurrera!

Mila esker ere ALPHA eta MIKER ikertaldeetako kide guztiei. Mikerren izan nuen ikerketarekin lehen kontaktua, eta Alphak aukera eman dit ikertzen ikasteko, tesiko gaien inguruan eztabaidatzeko, kontrastatzeko. Eskerrik asko Ainara, Eneko eta Nagoreri beti laguntzeko prest egoteagatik eta zuen jakinduria nirekin partekatzeagatik. Luxu bat da zuekin lan egitea! Esker berezia Robertori, azken bi urteetan izan ditugun elkarrizketa amaigabeengatik, kontraste lanak egiteagatik, artikuluak partekatzeagatik, kotxean eta As Fabriken elkarrekin pasa ditugun ordu guztiengatik, eta SOS momentuetan ondoan egoteagatik.

Eskerrik asko Arizmendiko irakasleei. Amaiari eta Mireiari, ikerketa bertan egiten uzteagatik. Eta irakasle eta ikasleei, izandako jarrera onagatik eta datuak jasotzeko emandako erraztasunagatik.

I would like to thank Tarja Nikula for giving me the privilege of being in the most ideal environment in which to write a thesis, as well as for your dedication and feedback

provided. I found in Jyväskylä the tranquillity and inspiration I needed. A little piece of me stayed there.

Mila esker Ta Zeba Ez osoari zuen espazio eta baliabide guztiak nire esku jartzeagatik. Mila esker nire ondoan zein urruti egon zarete lagun min guztiei. Zuekin pasa ez ditudan momentuetan ulertzeagatik eta besarkadarik goxoenak emateagatik. Zuen indarra eta energia ezinbestekoak izan dira. Ezin eskertu azken asteetan jasotako laguntza. Aare, Alba, Aintzane, onenak zarete!

Mila esker bihotz-bihotzez etxekoei, egiten ari nintzena oso ondo ulertu gabe ere, beti hor egoteagatik. Honaino iritsi banaiz zuei esker izan da. Eta azkenik, orri hauetan sartzen ez den eskerrik handiena Joanesi. Tesi hau biona da. Egindako esfortzu guztiagatik, emandako babes, mimo eta indar guztiagatik, azken txanpan ni aguantatzeagatik, motibatzeagatik, nigan sinesteagatik, ondoan egoteagatik.

Laburpena

Tesi-lan honen helburu nagusia da aztertzea batxilergoko diziplinarteko proiektu batean arloetako alfabetatzeak nola lantzen diren. Helburuari erantzuteko kasu azterketa kualitatibo bat egin da eta sei jakintza-arloz (historia, matematika, euskara, gorputz hezkuntza, ekonomia, eta ingelesa) osatzen den diziplinarteko proiektua aztertu da. Batetik, irakasle eta ikasleen ahotsak jaso dira proiektuaren aurretiazko ezaugarriak ezagutzeko; bestetik, irakasleek proiekturako diseinatutako material didaktikoa aztertu da; eta azkenik, ikasle-irakasle elkarrekintzetan arloetako alfabetatzea garatzeko gako diren Funtzio Kognitibo Diskurtsiboak nola aldamiatzen diren aztertu da. Analisia Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) markoan oinarritu da. Emaitza nagusien arabera, alde nabarmenak daude Funtzio Kognitibo Diskurtsiboek jakintza-arlo bakoitzean duten presentzian eta rolean, bai material didaktikoan, bai irakasleen eta ikasleen arteko elkarrekintzan ere. Azkenik, irakasleen diskurtsoetan ikusten da irakasleek hizkuntza-ikuspegi desberdinak dituztela, eta hori islatu egiten dela hala diseinatutako materialean, nola ikasgelako arloetako alfabetatzearen lanketan.

Abstract

The main objective of this thesis is to examine how subject-specific literacies are addressed in a multidisciplinary project in upper-secondary education. A qualitative case study was conducted to respond to the objective. The project analysed is composed of six subjects: history, mathematics, Basque, physical education, economics and English. First, the voices of teachers and students were collected in order to learn about the presage characteristics of the project; then, the teaching material designed by the teachers for the project was analysed; and finally, an analysis was made of how cognitive discursive functions (CDF), which are one of the keys for developing subject subject-specific, are scaffolded through teacher-student interactions in the classroom. The analysis was based on the Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) framework. The main results show differences in the presence and role of CDFs in each subject, both in the teaching material and in classroom interaction. Furthermore, different linguistic approaches were identified in teachers' discourses, and this is reflected in the teaching material, as well as in the way subject-specifices are scaffolded in classroom interaction.

AURKIBIDEA

IRUDIEN AURKIBIDEA

TAULEN AURKIBIDEA

Motibazio pertsonala

Asko izan dira tesi hau egiteko eta egin ahala izan ditudan motibazioak. Txiki-txikitatik hizkuntzak eta irakaskuntza izan dira nire pasioa, eta lau urtez gehien betetzen nauen gaiaren inguruan ikertzeko aukera izateak oso zoriontsu egin nau.

Aukeratutako gaiaren inguruan ikasteaz gain, tesia hau egitearen arrazoi nagusia ikertzaile bezala formatzea izan da. Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko masterra egiten ari nintzela, irakasleak ikertzaileak ere izan behar direla entzun nuen lehen aldiz. Urte horretan bertan ikertalde batean zer egiten den ezagutzeko aukera izan nuen. Irakasle hobea izateko eta eskoletan dauden erronkei aurre egin ahal izateko ikertu egin behar nuela sentitu nuen. Orduan hasi nintzen eskoletan egiten diren ikerketak ezagutzen, artikuluak irakurtzen, eskolan dauden beharrak identifikatzen.

Gaur egun, zaila egiten zait irakasleen lana eta ikerketa banatzea. Ikasleen emaitzak gero eta okerragoak direla irakurtzen dudan bakoitzean, ikasleak komunikatzeko gai ez direla entzuten dudanean, gazteen pasibotasunaz hitz egiten denean, gaur egun hezkuntza sistemak dituen erronkak aipatzen direnean… Zerbait pizten zait barruan. Ikerketa lan hau egiteko aukeratutako Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning markoa ezagutu nuenean, eskoletan gehien errepikatzen diren erronkei erantzuten lagundu dezakeela sentitu nuen.

Azkenik, motibatzen nau tesiak ekarpen bat egiten duela jakiteak. Tesiak iraun duen bitartean nire interesak aldatzen joan dira. Baina nire ikertzeko gogoa hazi egin da. Hezkuntzaren eta irakaskuntzaren kalitatea eskolako komunitatean parte hartzen dugun denon ardura eta erantzukizuna dela sinesten dut, eta horregatik, eskoletan ikertzen jarraituko dut.

1. Kapitulua: SARRERA
INTRODUCTION

1. SARRERA

Gizartea aldatzen ari da etengabe eta horrek aldaketa horietara etengabe egokitzeko eta horiei erantzuteko ahalmena duten herritarren beharra ekarri du. Herritar horiek izan beharko dira autonomoak, motibatuak, sortzaileak, berritzaileak edota taldean lan egiten dakitenak (Loshkareva et al., 2018; Griffin eta Care, 2014). Gaitasun horiek XXI. mendeko konpetentziak izenarekin definitu dira, eta bizitzan zehar sortzen diren arazo eta erronkei aurre egiteko behar diren konpetentziei dagozkie. Ikaskuntza sakonagoa sustatzea funtsezkoa da XXI. mendeko konpetentzi horiek garatzeko, eta era berean, garapen konpetentzialak ikaskuntza sakonagoa laguntzen du (Pellegrino eta Hilton, 2012).

Azken urteetan, eskolan, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza eredua nagusitu da, ikasleek XXI.mendeko konpetentziak garatzea helburu duena (Care et al., 2012; Binkley et al., 2012; Viinikka et al., 2019). Jakina da ikasleek modu esanguratsuagoan garatzen dituztela konpetentziak ikaskuntza prozesuaren protagonista direnean. Hori dela eta, gizartearen beharrei erantzun ahal izateko, eskolak ikaslea ikaskuntza prozesuaren erdigunean kokatu du eta eskatu dio prozesu horretan modu aktiboan parte hartu dezan (Peláez eta Gómez, 2013). Eta ikasleek konpetentziak garatu behar horrek eskolari egiteko moduak aldatzea eskatzen dio eta ikaskuntza aktiboa bultzatzen duen hautu metodologikoak sustatzea. Metodologia aktiboen artean, lan honetan Proiektu Bidezko Ikaskuntzan (PBL) jarriko dugu arreta (Bell, 2010).

Eskola tradizioz jakintza-arlotan banatuta badago ere, gizartearen eta errealitatearen konplexutasunek diziplinarteko irtenbideak eskatzen ditu (Morin, 2010). Diziplinartekotasunak konpetentzien garatzea sustatzen du eta mundua hobeto ulertzen laguntzen digu. EAEko curriculumak (Eusko Jaurlaritza, 2014) ere etapa guztietan diziplinartekotasunaren ikuspegia bultzatzen du, baina ez da jarraibiderik ematen hori praktikan jartzeko. Eskola batzuetan gero eta ohikoagoak dira diziplinarteko proiektuak, eta irakasleen artean sortzen diren erronkak asko eta askotarikoak dira.

Ikasleek eskolan garatu behar dituzten konpetentzien artean konpetentzia komunikatiboa dugu, eta konpetentzia horren garapenarekin lotzen da, besteak beste, eskola arrakasta (Lorenzo eta Trujillo, 2017; Pérez eta Pavón, 2018). Marko teorikoaren atalean ikusiko dugun moduan, hizkuntzak rol garrantzitsua dauka ikaste-prozesuan. Izan ere, hizkuntzaren bidez irakasten dira jakintza-arloak, hizkuntzaren bidez eraikitzen da ezagutza eta hizkuntzaren bidez adierazten dute ikasleek ikasitakoa. Hizkuntza ikastea, beraz, eskolako ikasgai guztietan gertatzen da, jarduera akademiko eta mental

guztietan, eskolatze-prozesu osoan (Lemke, 1988). Gainera, jakintza-arlo bakoitzak arloari dagokion hizkuntza propioa dauka, eta hizkuntza hori berariaz landu eta irakatsi behar da (Beacco et al., 2016; Shanahan eta Shanahan, 2008). Hori dela eta, garrantzitsua da arloetako alfabetatzeak ikaste-irakaste prozesuetan dagokien lekua izatea eta horren lanketa diziplina bakoitzeko irakasleari legokioke. Hala ere, oraindik orain gutxi ikertu da irakasleek arloetako alfabetatzeak lantzeko dituzten egiteko moduez.

Ikerketa egin dugun testuinguruan, gainera, ikasle guztiek komunikazio konpetentzia eleanitza garatu behar dute, gutxienez hiru hizkuntzatan, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, ahoz zein idatziz (Eusko Jaurlaritza, 2014). Hizkuntza gutxitua babesteko helburuarekin, euskal hezkuntza sistemak hizkuntza gutxitua, euskara, ardatz duen eleaniztasunaren alde egiten du. Euskara ikasle askoren lehen hizkuntza ez bada ere, gaur egungo EAEko ikasle gehienen eskolatze-hizkuntza euskara da (Eusko Jaurlaritza, 2021).

Hala ere, lau urtetik behin egiten diren ebaluazio diagnostikoaren (ISEI-IVEI, 2018) emaitzek diote ikasleen euskara maila gero eta kaskarragoa dela. Azken urteetan egindako zenbait ikerketek erakusten dute hizkuntza-gaitasun desegokia izan daitekeela eskola-errendimendu baxuaren arrazoi nagusietako bat, hizkuntza maila baxuak jakintza-arlo guztien ikaskuntzan eragiten baitu.

Hori guztia kontuan hartuta, lan honen helburua da aztertzea batxilergoko diziplinarteko proiektu batean arloetako alfabetatzeak nola lantzen diren. Horretarako, kasu azterketa bat egingo da. Kasu azterketa egiteko eskola berritzaile bat aukeratu dugu, berrikuntzan erreferentea dena. Eskola horretan, ikasleen profila erdigunean jartzen da eta helburu pedagogiko eta didaktikoak ikasleen irteera profilarekin lerrokatzen dira. Helburu horiek lortzeko, batxilergoko lehenengo mailan proiektu eraldatzaileak egiten dituzte, 6 irakaslez eta 6 jakintza-arloz osatzen direnak, horietako bi jakintza-arlo hizkuntzak izanik.

Tesi honen helburuari erantzuteko, proiektuan parte hartu duten ikasle zein irakasleen ahotsak jaso dira, irakasleek diseinatutako materiala aztertu da, eta gelan irakasle-ikasleen arteko elkarrekintzan egiten den aldamiajea aztertu da. Proiektuaren azterketa egiteko Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) (Coyle eta Meyer, 2021) markoa aukeratu da, zeinek arloko alfabetatzea jartzen duen ikaskuntza sakonagoaren erdigunean. Nikula et al.-ek (2016) plangintza kurrikularra eta pedagogikoa, parte-hartzaileen begirada eta gelako praktika aipatzen dituzte edukia eta arloa integratzeko

kontuan hartu beharreko alderdi gisa. Ikerketa honek ekarpena egin nahi du, hain zuzen ere, hiru alderdi horietan.

Lan honek zortzi atal ditu. Bigarren eta hirugarren atalek marko teorikoa osatzen dute. Bigarren atalean gizarteak azken urteetan jasan dituen aldaketak jasoko dira, eta aldaketa horiek hezkuntzan izan duten eragina. Aldaketen artean konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduan sakonduko da, eta konpetentzia horiek lantzeko eta garatzeko proposaturiko metodología aktiboak, bereziki aztergai dugun Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza, ezaugarrituko da. Hirugarrenean, aldiz, hizkuntzak ikaste-irakaste prozesuan duen rolaz eta rolaren garrantziaz arituko gara, hizkuntza ulertzeko ikuspegi desberdinak aipatuz eta hizkuntza eta edukiak integratzeko dauden eredu nagusiak aurkeztuz, besteak beste. Atal honetan proiektuaren analisia egiteko aukeratu dugun markoa aurkeztuko da: Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL). Marko horretan garrantzia hartzen dute irakasle zein ikasleen rolek, eta sakon definitzen dira arloko alfabetatzea lortzeko gako diren Funtzio Kognitibo Diskurtsiboak (FKD) (Dalton-Puffer, 2013).

Hurrengo hiru atalek marko enpirikoa osatzen dute. Laugarren atalean lanaren helburu nagusia eta iker-galderak, ikerketaren testuingurua eta ikerketa egiteko jarraitu den metodologia aurkeztuko dira. Tesia kasu azterketa bat denez, lanaren testuinguratze sakona egingo da irakurleari lana ulertzen laguntzeko. Atal honetan deskribatuko dira hain zuzen, EAEko egoera soziolinguistikoa, kasu azterketa gertatzen den eskolaren izaera eta aztertutako proiektuaren nondik norakoak. Ondoren, ikerketa egiteko erabili den metodologia azalduko eta justifikatuko da, besteak beste, datuak jasotzeko erabili diren teknikak, eta baita datuak aztertzeko jarraitu diren urratsak ere.

Bestetik, bosgarren atalean iker-galderei erantzuteko egin diren analisien emaitzak aurkeztuko dira. Lehenik, irakasleei eta ikasleei egindako elkarrizketetetik eta eztabaida taldeetatik lortutako emaitzak aurkeztuko dira. Bigarrenik, irakasleek diseinatutako materialaren arloetako alfabetatzea nola lantzen den aztertuko da; eta hirugarrenik, gelako irakasle eta ikasleen arteko elkarrekintzan Funtzio Kognitibo Diskurtsiboen aldamiajea nola egiten den deskribatuko da.

Azkenik, seigarren atalean lanaren eztabaida eta ondorioak aurkeztuko dira. Eztabaidan lortutako emaitzak beste ikerlari batzuek egindako ikerketekin kontrastatuko dira. Eta ondorioetan, lanaren ondorio orokorrak, mugak eta aurrera begirakoak jasoko dira. Zazpigarren atalean lanean erabilitako erreferentziak topatuko ditugu, eta zortzigarrenean eranskinak.

Tesia bi hizkuntzatan idatzita dago: euskaraz eta ingelesez. Lerro hauetan atal bakoitzean egin den hizkuntza hautuaren arrazoiak aurkeztuko dira. Batetik, ikerketa kokatzen den markoa berria da, eta sinesten dugu PTDL markoak ekarpena egin dezakeela Euskal Herriko testuinguruan. Orain arte, ez da arloetako alfabetatzearen azterketarik egin testuinguru honetan PTDL markotik euskaraz. Horregatik, marko teorikoaren atala euskaraz idaztea erabaki da, markoa gure testuingurura hurbiltzeko eta, era berean, euskararen corpusa osatu eta hari ekarpena egin asmoz. Bestetik, gainerako atalak ingelesez idazteko hautua egin da, nahiz eta kasu azterketa bat izan, bertatik ateratako emaitzak eta ondorioak lagungarriak izan daitezkeelakoan PTDL markoa bera garatzen jarraitzeko nazioartean, eta antzeko nahiz bestelako testuinguruekin alderaketa egitea errazteko.

Society is In today's rapidly changing society, it is necessary for citizens to be able to adapt to new circumstances, and to be motivated, creative, innovative, and team-oriented, among other things (Loshkareva et al., 2018; Griffin and Care, 2014). In the 21st century, competencies are needed to deal with the problems and challenges that arise throughout the course of our lives. Promoting deeper learning is essential for the development of these 21st century competencies, and in the same vein, competence development promotes also deeper learning (Pellegrino and Hilton, 2012).

In recent years, schools have adopted a competency-based education model with the aim of developing 21st century competencies (Care et al., 2012; Binkley et al., 2012; Viinikka et al., 2019). Taking the lead in the learning process is known to result in students developing competencies more effectively. In order to respond to societal needs, the school places the learner at the heart of the learning process and encourages them to be active participants (Peláez and Gómez, 2013). A shift in school practices and the promotion of methodological choices that promote active learning are essential to the development of student competencies. Among the active methodologies, in this research study focus will be placed on Project Based Learning (PBL) (Bell, 2010).

Although schools are traditionally divided into subject areas, the complexity of social and real-world problems necessitates interdisciplinary approaches (Morin, 2010). Interdisciplinarity contributes to the development of skills and aids in the understanding of the world. A number of interdisciplinary approaches are encouraged in the BAC (Basque Autonomous Community) curriculum (Eusko Jaurlaritza, 2014), but no guidelines are provided regarding their implementation. Interdisciplinary projects are becoming increasingly common in some schools, and teachers are faced with a variety of challenges.

Among the competencies that students are required to develop in school is communicative competence, which is associated with academic success (Lorenzo and Trujillo, 2017; Pérez and Pavón, 2018). Throughout the theoretical framework, we will see that language plays a significant role in the process of learning. It is through language that subjects are taught, knowledge is constructed, and students express what they have learned. Throughout the educational process, language learning occurs in all school subjects, in every academic and mental activity (Lemke, 1988). Furthermore, each subject has a specific language that must be developed and taught specifically (Beacco et al., 2016; Shanahan et al., 2008). It is therefore crucial that subject-specific literacy be given its proper place within the teaching-learning process. Thus, it is the responsibility of teachers across all subject areas to ensure their students develop

communicative competence. However, little research has been done on how subject-specific literacy is taught in the classroom.

Moreover, in the context of the research, all students are required to develop plurilingual competency in at least three languages: Basque, Spanish, and English (Eusko Jaurlaritza, 2014). The Basque education system is committed to multilingualism centered on the minority language as a means of protecting the minority language. In spite of the fact that Basque is not the first language of many students, it is now the language of instruction for the majority of BAC students (Eusko Jaurlaritza, 2021).

Based on the results of the diagnostic assessment (ISEI-IVEI, 2018), which is conducted every four years, it appears that the Basque level of students is declining. Studies have shown that low language proficiency may be one of the primary causes of poor school performance, since low language skills affect learning in all academic areas.

Taking all of this into consideration, the purpose of this paper is to examine how subject-specific literacies are addressed in a multidisciplinary project in upper-secondary education. To achieve this, a case study will be conducted within the context of a school known for its innovative practices. In this school, the pedagogical objectives relate to the development of core skills based on the exit profile of the students. Toward this end, the school implements innovative projects in the first year of upper-secondary education, which comprise six teachers and six subjects, including two language courses.

In response to the thesis' objective, the voices of both students and teachers who participated in the project were collected, the material designed by the teachers was analysed, as well as the analysis of the scaffolding of cognitive discourse functions (CDFs) in the teacher-student interaction. For the analysis, the Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) framework (Coyle and Meyer, 2021) was chosen, which places subject-specific literacy at the centre of the deeper learning process. Nikula et al. (2016) identify curricular and pedagogical planning, participant perspectives, and classroom practise as factors to consider when integrating content and language. This research aims to contribute to all three of these areas.

In terms of structure, this thesis is divided into eight chapters. The theoretical framework is presented in chapters two and three. In Chapter 2, recent societal changes and their implications for education are discussed, including competency-based education, active methodologies, and project-based learning (PBL). The third chapter will discuss the role and importance of language in the teaching-learning process. A description of the main

content and language integration models will be provided, along with a discussion of different language approaches. We will also present the framework we have chosen to analyze the project: Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL). Both teachers and learners are considered important in this framework, and Cognitive Discourse Functions (CDF) (Dalton-Puffer, 2013) are defined as essential for achieving literacy.

The empirical study can be found in chapters 4, 5 and 6. In chapter 4, the purpose of the study, the research questions and objectives, the context in which the study is conducted, and the methodology used will be discussed. The context in which the case study takes place will be described in detail to help the reader better understand the work. This includes the sociolinguistic situation of the BAC, the types of linguistic models, the nature of the school where the case study is conducted, and the project under analysis. Following that, the data collection methods and analysis procedures used in the study will be described.

Chapter five presents the results of the analyses conducted to answer the research questions. The results of interviews conducted with teachers and students will be presented first; then, we will examine how subject-specific literacies are addressed in teaching materials; and thirdly, how scaffolding of the Discursive Cognitive Function Construct is carried out in teacher-student interaction will be described.

Chapter six concludes with a discussion and conclusions. First, the results of the discussion will be compared with those of other research studies. Afterwards, the general conclusions, limitations, and future perspectives of the study will be presented. A list of references used throughout the work will be provided in chapter seven, and an appendix in chapter eight.

The thesis has been written in two languages: Basque and English. PTDL is a new framework, and we believe that it can contribute to the context of the Basque Country. The PTDL framework has not been applied to studying subject-specific literacies in Basque to date. As a result, it was decided to write the theoretical framework in Basque in order to bring the framework closer to our context while also completing and contributing to the Basque corpus. As for the rest of the sections, even though this is a case study, we have chosen to write them in English because the conclusions and results drawn from the study may assist with the further development of the PTDL framework at an international level and facilitate comparisons with similar contexts. A summary of what is said in each section is presented in the other language at the end of each section.

2. Kapitulua:
XXI. MENDEKO HEZKUNTZA

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

2. XXI. MENDEKO HEZKUNTZA

2.1.   GIZARTE-ALDAKETEK HEZKUNTZAN IZAN DUTEN ERAGINA

"Ez dago ulertzerik zer ari den gertatzen hezkuntzan, begiratu gabe gizartean zer ari den gertatzen" (Azkarraga, 2014)

Mendeetan zehar gizartea hainbat une historiko eta sozialetatik igaro da. XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera egon diren etengabeko aldaketa politiko eta sozialen ondorioz, bizitzaren oinarrizko egitura eraldatu egin da: bizitzeko modua, ohiturak, familia-harremanak, kulturaren transmisioa, eta naturarekiko harremana, besteak beste (Harari, 2018). Oro har, bizitzaren filosofia, balioak eta etikotzat eta moraltzat jotzen dena aldatu egin da erabat (Gray, 2016; Bauman, 2013); eta zenbait adituk diote, oraindik ere, gizarteak erabateko aldaketa ekonomiko eta soziala jasango duela (Loshkareva et al., 2018).

Bauman (2013) soziologoa Modernitate Likidoa kontzeptua erabiltzen hasi zen XXI. mendeko gizartea definitzeko. Gaur egun daukagun guztia aldakorra da iraganeko egitura finkoekin alderatuta (Menéndez, 2017). Azkarragak (2014) aipatzen du, besteak beste, identitatearen eraikuntza aldatu egin dela, familian gertatzen ari diren aldaketa sakonek harremantzeko modua aldatu dutela, eta pantailek protagonismoa hartu dutela gizartean (Azkarraga, 2014). Ildo beretik, Marina Garcés filosofoak (2020) dio ezer ez dakigun etorkizun baterantz goazela, atzean uzten ari garen gizartearen antzik izango ez duena. Ez dakigu bihar ekonomia nola egongo den, krisia egongo den ala ez, lana izango dugun, familia bat osatuko dugun… Aurrekaririk gabeko eraldaketa-mundu baten aurrean gaude (Harari, 2018), eta ziurgabetasuna da etorkizuneko ziurtasun bakarra (Garcés, 2020).

Mundua gero eta konplexuagoa da hainbat joerak bultzatuta, hala nola, aldaketa teknologikoak, biztanleriaren zahartzeak eta globalizazioak (Loshkareva et al., 2018). Ez dugu inoiz aldi berean hainbeste aldaketa dramatiko izan, gizarte-harremanei, garraioari, hezkuntzari, ekonomiari, merkataritzari, pribatutasunari eta ezagutzari aldi berean eragin diotenak. Etzioni-ren (1968:3) esanetan, gizakiak gara gizarte aldaketaren erantzule nagusiak "is chiefly propelled by social selves, by acting collectivities". Hau da, gizartea aldatu egiten da premia berriak agertzen direnean.

Aldaketa horiek guztiek ekarri dute gaur egungo gizarteak hainbat ezaugarri izatea. XXI. mendea informazioaren aro gisa ere ezagutzen da, iraultza digitalarena, eta baita

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

teknologia berriena ere, eta esan daiteke prozesuen automatizazioagatik nabarmentzen dela. Batzuek diote hirugarren iraultzan gaudela oraindik; beste batzuek dagoeneko sartu garela laugarrenean. Dena den, gizartea izendatzeko eta deskribatzeko termino desberdinak erabiltzen badira ere, ez da zalantzan jartzen gizartea aldatzen dabilela modu azkar eta harraparian, eta informazioak bonbardatu egiten gaituela eremu guztietatik eta hainbat bitartekoren bidez (Harari, 2018; Larson eta Miller, 2012).

90eko hamarkadak aro berri bat ekarri zuen eta harrezkero inoiz baino gehiago inbertitu da informazioa sortzen, manipulatzen, kudeatzen eta zabaltzen (Trilling eta Fadel, 2009). Google-eko zuzendari ohi Eric Schmidt-en arabera, bi egunetik behin lehenengo gizakia sortu zenetik 2003ra arte sortu zen adina informazio sortzen da. Gaur egun, munduko biztanleen bi heren internetera konektatuta bizi da, eta dagoeneko, planetan pertsona baino mugikor gehiago dago. 60 eta 70eko hamarkadez geroztik, eta globalizazioaren ondorioz, informazio eta komunikazioaren teknologien iraultza oso azkar iritsi da munduko leku guztietara (Bravo, 2012). Trantsizio berriaren ezaugarri nagusia da azkarregi gertatzen ari dela, aurretik egon diren iraultzekin alderatuz (Loshkareva et al., 2018).

Aipatutako aldaketa guztiek egokitzapen soziokulturalak eragin dituzte gaur egungo herritarren bizimoduan (Lozano eta Herrera, 2013). Mundua gero eta konplexuagoa bihurtzen den heinean, gizarteko arazo eta erronkei aurre egin ahal izateko (Harari, 2018), gizabanakook errealitate aldakor eta zalantzakorrera egokitzeko ahalmena garatu behar izan dugu (Garcés, 2020; Menéndez, 2017). Horregatik, XX. eta XXI. mendeko gizabanakoen profilak erabat desberdinak dira (Dede, 2009); XX. mendearen bigarren erdialdean, industria iraultzaren ondorioz, ekoizpena izugarri handitu zen, kapitalismoak aldaketa nabarmenak jasan zituen eta ekonomia globalizatu egin zen (Stevens, et al., 2000). Beranduago, aurrerapen eta berrikuntza teknologikoak eta aro digitala etorri ziren, eta horiek ere eragin zuzena izan dute lan egiteko eta pentsatzeko moduetan (Care et al., 2012). XXI. mendeko lehenengo hamarkadan egindako ikerketen arabera, teknologiak harremantzeko moduak aldatu ditu, gazteen artean batez ere (Buckingham, 2008). Hori guztia dela eta, aurreko mendeko langilearen profilak ez du dagoeneko balio (Azkarraga, 2014). Izan ere, aldaketa sozialaren abiadurak belaunaldi berri bakoitzari aurretikoaz desberdina den mundu batera etortzea eskatzen dio (Enguita, 2013).

Behar eta ardura berriek lanbide berriak sortzen dituzte, eta horrek ekarri du mende berriko beharrei erantzuteko herritarrek garatu behar dituzten gaitasunak ere desberdinak izatea (Loshkareva et al., 2018), eta baita langileei lan egiteko gaitasun

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

handiagoa eskatzea ere (World Economic Forum, 2016). Izan ere, duela hamarkada batzuk, pertsona bat lanpostu batean hasi eta erretiratu arte bertan egoten zen. Egun, enpresek berritzen eta egokitzen egon behar dute etengabe, eta ondorioz, lan-joerak nabarmen aldatu dira (Griffin eta Care, 2014). 1960tik gaur egun arte, lan abstraktuak ugaritu egin dira, eta errutinazkoak eta eskuzkoak murrizten joan dira (Griffin eta Care, 2014). Lan munduaren bilakaeraren joera ikusita, urte gutxi barru, gaur egungo lanpostuetan garrantzitsutzat jotzen diren trebetasunen herena baino gehiago (%35) aldatu egingo dira (Gray, 2016). Genetika, adimen artifiziala, robotika, nanoteknologia, 3D inprimategiak eta bioteknologia, besteak beste, erritmo azkarrean ari dira garatzen (World Economic Forum, 2016), eta digitalizazioak protagonismoa hartu du. Hori dela eta, lan batzuk mehatxupean daude eta laster desagertu egingo dira. Beste batzuk, aldiz, azkar hazten ari dira, eta gaur egun existitzen ez diren lanpostuak ere arrunt bihurtuko dira (World Economic Forum, 2016). Munduko ekonomia foroaren arabera, oraingo lanen %52 makinek egingo dituzte, gaur egungo %29arekin alderatuta. Gauza ziurra da langileak etorkizuneko lanpostuetarako behar diren gaitasunak garatzen joan beharko direla gizarteak hala bultzatuta (Gray, 2016).

XXI. mendeko garapen sozial eta ekonomikoak ekarri dituen aldaketei eta beharrei erantzuteko, zenbait autorek hainbat konpetentzia zerrendatu zituzten, "XXI. mendeko konpetentziak" deiturikoak; horien artean daude pentsamendu kritikoa eta modu konplexuan komunikatzeko gaitasuna (Griffin eta Care, 2014), arazo konplexuak ebazteko gaitasuna, egoera berrietara egokitzeko eta berrikuntzarako gaitasuna eta baita teknologia berriak erabiltzeko, lanak erabat automatizatzeko eta berregokitzeko gaitasuna ere. Hasiera batean, XXI. mendean ikasleek lanerako behar dituzten jakintza, gaitasun eta esperientzia jaso eta definitu ziren. Baina aurrerago, konpetentzia horiek, lanerako ez ezik, bizitzarako ere baliagarriak direla ikusi da (Wilson, 2018). Konpetentzia horiei erreferentzia egiteko izen desberdinak erabiltzen dira: *higher-order thinking skills, deeper learning outcomes, complex thinking and communication skills*, edo *soft skills* (Saavedra eta Opfer, 2012). Batzuetan sinonimotzat hartzen dira eta beste batzuetan ñabardura desberdinekin erabiltzen dira herrialdearen eta hizkuntzaren arabera. Dena den, erabiltzen den terminoa edozein delarik ere, aipatutako guztiek mundu konplexu honetan bizitzarako esanguratsuak diren gaitasunak jasotzen dituzte (Claxton et al., 2016).

XXI. mendeko konpetentziak askotan eta autore askok modu independentean zerrendatu eta definitu dituzte (Dede, 2009). Ez dago marko orokor eta unibertsal bakarra horiek antolatzeko (Lamb et al., 2017), guztiek ez baitituzte termino berberak

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

erabiltzen konpetentzia horiek deskribatzeko, eta badirudi gainjartze handia dagoela autore desberdinek egindako zerrenden artean (Wilson, 2018).

Irudia/Figure 1. XXI. mendeko konpetentzien sailkapenen konparaketa

21CS	P 21 framework subskills	NRC framework subskills	ATC21
Critical thinking	Critical thinking	Critical thinking	Critical thinking, problem-solving, and decision-making
Communication and collaboration	Communication and collaboration	Complex communication and teamwork	Communication and collaboration
Creativity and innovation	Creativity and innovation	Nonroutine problem-solving	Creativity and innovation
Self-regulation and metacognition	Initiative, self-direction	Self-management and self-regulation	Metacognition and learning to learn
Social and cultural competence	Social and cross-cultural skills	Social skills, cultural sensitivity, and dealing with diversity	Local and global citizenship and personal and social responsibility
Flexibility/ adaptability	Flexibility and adaptability	Adaptability	NA
Information and technological literacy	Information literacy, media literacy, and information and communications technology literacy	NA	Information literacy and information and communications technology literacy

Oharra/Note 1. Hemendik hartua: https://www.pearsoned.com/21st-century-skills-what-are-they

Konpetentzia horien irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin lotutako ikerketak errazteko, National Research Council-ari (NRC) eskatu zitzaion autore desberdinek zerrendatutako konpetentziak aztertzeko eta antolatzeko (Pellegrino eta Hilton, 2012). Autore hauek azterketa sakon bat egin ostean, konpetentziak hiru multzotan sailkatu zituen: (1) gaitasun kognitiboak, (2) intrapertsonalak, eta (3) interpertsonalak:

Irudia/Figure 2. Ikaskuntza sakonago eta XXI. mendeko konpetentzien arteko markoa (Pellegrino eta Hilton, 2012)

Oharra/note 2. Lamb, et al.,-etik (2017) hartua

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

Eremu kognitiboan sartzen dira besteak beste, pentsamendu kritikoa, alfabetatze informazionala *(information literacy),* arrazoitzeko eta argumentatzeko gaitasuna eta berritzailea izatea, eta erreferentzia egiten dio ikasleek erabiltzen dituzten estrategia kognitiboen kopuruari eta motari. Izan ere, erabiltzen dituzten estrategiek eragin zuzena dute ikaskuntza prozesuaren kalitatean. Konpetentzia kognitiboak lotzen dira hezkuntza maila altuagoak lortzearekin, lorpen akademikoekin, soldata altuagoekin eta osasun hobearekin (Pellegrino, 2017).

Eremu intrapertsonalaren barruan sartzen dira buru-irekitasuna (*intelectual openness*), lanarekiko etikoki jokatzea, kontzientzia izatea, eta autoebaluatzeko gaitasuna. Horiez gain, Pellegrinok (2017) beste hainbat gaitasun ere kokatzen ditu eremu honetan, esaterako, malgutasuna izatea, iniziatiba izatea, aniztasuna onartzea, metakognizioa, antolatua izatea, arduratsua eta langilea izatea, eta zehaztutako helburuekin konprometitua izatea.

Azkenik, **eremu interpertsonale**koen artean daude komunikazioa, kolaborazioa, arduratsua izatea eta gatazken kudeaketa, arazoen ebazpena eta negoziatzeko gaitasuna (Pellegrino, 2017). Gaitasun sozialek edo interpersonalek lagundu egiten dute ikaskuntza sakonagoan eta ondorioz lorpen akademikoan. Izan ere, ezagutza taldean eraikitzen da, elkarrekintzan, eta horretarako ezinbestekoa da komunikazioa, taldean lan egiten jakitea, besteen iritziak entzutea eta errespetatzea eta taldeari egokitzen zaion erantzun bat ematen jakitea (Pellegrino eta Hilton, 2012).

2.2. KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA EREDUA

Zerrendatu diren XXI. mendeko konpetentzia horietako batzuk berezkoak dira, izaerarekin lotutakoak, eta beste hainbat bizitzan zehar garatzen dira. Hala ere, oraindik, hezkuntza arautua da horiek garatzeko testuinguru nagusia (Riad, 2017). Are gehiago, gazte askorentzat, eskola da gaitasun eta trebetasun horiek garatzeko leku bakarra (OECD, 2010). Hori dela eta, XXI. mendeko ikasleen eta gizartearen behar sozial eta ekonomikoei erantzuteko, hezkuntzak ere aldaketak jasan behar ditu (Care et al., 2012); oraindik ere, munduko ia herrialde guztietan, hezkuntza-sistema pertsonak iraganeko baldintzetarako prestatzeko diseinatuta baitago (Loshkareva et al., 2018). XXI. mendeko konpetentzien mugimenduaren aldekoek eta defendatzaileek eskolak eta hezkuntza erreformatzeko beharra defendatzen dute (Ananiadoui eta Claro, 2009). Aragay-k dio (2018:2) "La educación va a ser, sin ninguna duda, el sector de nuestra sociedad que más va cambiar en los próximos años, coincidiremos en que no podremos seguir

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

repitiendo o incrementando lo que hemos hecho hasta ahora en nuestra escuela o universidad para mejorar la educación".

Gaur egungo gizartean, ezagutzak eskuratzeko moduak areagotu egin dira; interneten edo IKT delakoen bidez, edozein gairi buruzko informazioa minutu gutxi batzuetan, eta munduko ia edozein tokitatik eskura daiteke (Rivas, 2019). Ondorioz, eskolak ezagutzaren kontrola izateari utzi dio, dagoeneko ez baita jakintza transmititzeko toki bakarra (Garcés, 2020), nahiz eta hori ere baden eskolaren helburuetako bat (Riad, 2017). McPhail-ek (2017:16) adierazten duenez, "the emphasis in educational discourse has moved away from knowledge content to focus almost exclusively on process; skills and learning to learn". Izan ere, orain arte gailendu den transmisio-ereduaren bidez, ikasleek edukiak ikas ditzakete, baina normalean ez zaie ezagutza horiek testuinguru berrietan aplikatzeko eskatzen. Beraz, esan daiteke edukien transmisioa ez dela XXI. mendeko konpetentziak garatzeko eta ikaskuntza sakonagoa lortzeko modurik eraginkorrena (Saavedra eta Opfer, 2012; Silva, 2009). Orain, eskolaren egitekoa da ikasleek IKTen bitartez ezagutzak eskuratzeko, informazioa modu kritikoan ebaluatzeko, kuadeatzeko, antolatzeko eta erabiltzeko gaitasuna garatzea (Pellegrino, 2017; Griffin eta Care, 2014).

Hori horrela, arreta irakasgaien eduki espezifikoetan bakarrik jarri ordez, beste egoera batzuetara transferitu daitezkeen konpetentzietan ere jarri behar da (Care et al., 2012; Binkley et al., 2012; Viinikka et al., 2019). Kritikoki pentsatzen irakasten duen hezkuntza-sistema behar da, ikasleengan ikasteko borondatea eta nahia sortzen duena, konpromiso soziala eta herritartasun demokratikoa sortzen duena (Rivas, 2019). Ildo beretik, Fullan eta Langworthy-k (2014) aipatzen dute eskolak gazte guztiak unibertsitaterako, ikasketetarako eta herritartasunerako prestatu behar dituela, XXI. mendeko eskolaren helburua gizarte likido eta aldakorraren erronkei erantzuteko gai izango diren gazteak prestatzea baita. Konpetentzia horiek guztiak oso garrantzitsuak dira, eta ezin dira modu independentean irakatsi, hau da, ezin dira jakintza-arloetatik kanpo ikasi; modu berean, ikasleek ezingo dituzte gaitasun horiek aplikatu jakintza-arloetako edukirik ez badute (OECD, 2010). Horregatik, curriculumean jakintza-arloetako edukiak eta ikasleek garatu behar dituzten gaitasunak integratu behar dira ikaste-prozesua arrakastatsua izan dadin (Griffin eta Care, 2014; Pellegrino eta Hilton, 2012; Saavedra eta Opfer, 2012).

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

2.3. IKASKUNTZA SAKONAGOA ETA XXI. MENDEKO KONPETENTZIAK

"Deep learning develops the learning, creating and 'doing' dispositions that young people need to thrive now and in their futures"

(Fullan and Langworthy, 2014:i)

Ikaskuntza sakonagoaren eta XXI. mendeko konpetentzien arteko lotura transferentziaren kontzeptuan datza (Pellegrino, 2017). Konpetentziak garatzea ezinbestekoa baita ezagutzak transferitzeko (Pellegrino eta Hilton, 2012), eskolako jakintza-arlo batetik bestera, zein eskolatik bizitza errealera (Silva, 2009). Konpetentzien transferentzia egiteko prozesu horri ikaskuntza sakonagoa deritzo. Pellegrinok (2017) honela definitzen du ikaskuntza sakonagoa:

> We define "deeper learning" not as a "product", but rather as the process through which transferable knowledge (i.e. 21st century competencies) develops. Through deeper learning, individuals not only develop expertise in a particular discipline, they also understand when, how and why to apply what they know. They recognise when new problems or situations are related to what they have previously learned, and they can apply their knowledge and skills to solve them (:229).

Beraz, ikaskuntza sakonagoaren prozesua funtsezkoa da XXI. mendeko konpetentzia transferigarriak garatzeko; aldi berean, XXI. mendeko konpetentziak aplikatzeak ikaskuntza sakonagoaren prozesuan laguntzen du "in a recursive, mutually reinforcing cycle" (Pellegrino eta Hilton, 2012:8).

Transferentzia horiek, baina, ez dira modu automatikoan gertatzen, eta ikasleak nekez egingo ditu loturak ikasitako edukien artean, aurretik jakintza-arloei dagozkien kontzeptuak ulertzen ez baditu (McPhail, 2017). Konpetentziak garatzeko eta konpetentzia horiek transferitzen ikasteko, ikasleei aukerak eskaini behar zaizkie ezagutzak, gaitasunak eta estrategiak egoera berrietan aplikatzeko (Fullan eta Langworthy, 2014; Pellegrino eta Hilton, 2012; Saavedra eta Opfer, 2012; Claxton et al., 2016).

Hori dela eta, 70eko hamarkadaren hasieran konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza sortu zen (Lozano eta Herrera, 2013). Gure hezkuntza sisteman ere, *konpetentzia* terminoa duela 30 urte baino gehiago hasi zen erabiltzen (Astigarraga eta Carrera, 2018), eta gaur egungo herrialde desberdinetako curriculumak konpetentzietan ardazten

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

dira (Eusko Jaurlaritza, 2014; Vitikka et al., 2012). Konpetentzien garapena eta konpetentzietan oinarritutako ikaskuntza ikuspegi soziokulturalean (Vygotsky, 1978) kokatzen da. Ikuspegi soziokulturalean " learning takes place as individuals participate in the practices of a community, using the tools, language, and other cultural artifacts of the community" (Pellegrino eta Hilton, 2012:73). Hau da, ikuspegi honek gizakiaren garapena testuinguru soziokulturalean duen elkarreraginarekin estuki lotuta dagoela defendatzen du, eta ezagutza ez dela errealitatearen kopia bat, gizakiaren eraikuntza bat baizik, lehendik dituen eskemetatik abiatuta eraikitzen duena (Salas, 2001).

Hala ere, Voogt et al.-ek (2013) diote teorikoki, XXI. mendeko konpetentziak zer diren eta nola eskura daitezkeen adostuta dagoen arren, nazioarteko azterketen emaitzek adierazten dutela praktikan konpetentzia horiek irakasteko estrategiak ez direla modu egokian erabiltzen. Arrazoien artean aipatzen dituzte konpetentziak ikasketa-planean eta ebaluazioan ez integratzea, irakasleen prestakuntza eskasa, eta irakaskuntza eta ikaskuntzako estrategiei arreta sistematikorik ez eskaintzea, besteak beste.

2.3.1. Metodologia aktiboak

Pellegrino eta Hiltonen (2012) arabera, ikasleek ikaskuntza sakonagoa lortzen dute testuinguru positiboak eskaintzen zaizkienean, ezagutzak eskuratzen laguntzen dutenak, gaitasun interpertsonal eta intrapersonalekin batera. Aurretik aipatu bezala, hainbat autorek diote ikaskuntza sakonagoa lortzeko, ikasleei aukerak eskaini behar zaizkiela ikasitakoa praktikan jartzeko eta taldean lan egiteko, eta gainera, irakaslearen feedbacka eta ikasleen hausnarketak funtsezkoak direla.

Ikusi da ikasleek esperimentatzeko eta ikaste-prozesuan modu aktiboan parte hartzeko aukera ematen zaienean, informazio berria ikasteaz gain, aurretiazko ezagutzekin ere loturak egiten dituztela, eta, ondorioz, prozesua aberasgarriagoa eta esanguratsuagoa bihurtzen da (Fallas, 2021). Ildo beretik, azken hamarkadetan zehar egon diren aldaketek ikaslea ikaskuntzaren erdigunean kokatzen duten irakaskuntza-ereduen beharra ekarri dute, non talde txikietan lan egiteak eta ikasleen arteko eztabaidek leku garrantzitsua hartzen duten (Bietenbeck, 2014). Horregatik, ikasleek konpetentziak garatu ditzaten, ikaskuntza aktiboa bultzatzen duen hautu metodologikoa egin behar da, eta horiek dira hain zuzen, metodologia aktiboak (Peláez eta Gómez, 2013). Autore hauen arabera, metodologia aktiboak deritze ikaslearen parte-hartze aktiboa sustatzeko erabiltzen diren metodo, teknika eta estrategiei, eta horretarako, ikaslea jartzen da ikaste-irakaste prozesuaren erdian; ikasleak informazioa modu pasiboan jasotzetik, bere ikaste-prozesuko protagonista bihurtuz.

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

Metodologia aktiboen artean Ikaskuntza Kooperatiboa, Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza edo Erronketan Oinarritutako Ikaskuntza topatu ditzakegu. Metodologia horiek ezagutza transmititzeko eredu bertikala eta edukien memorizazioa eta errepikapena alde batera uzten dute (Guasp et al., 2020), lan kooperatiboa, lan autonomoa eta ebaluazio jarraitua uztartzen dituen eredua sustatuz (Gorostiza et al., 2015).

Metodologia aktiboak erabiltzean ikasle eta irakasleen arteko harremanak eta hauek orain arte ikasgelan izan dituzten rolak aldatu egiten dira (Gorostiza et al., 2015). Batetik, irakaslearen rolak gaitasun pedagogiko sofistikatuagoa eskatzen du, irakaslea ikaste- eta irakaste-prozesuetan gidari, bideratzaile, aktibatzaile eta laguntzaile bihurtzen baita, besteak beste (Fullan eta Langworthy, 2014; Groff, 2013). Horretarako irakasleak estrategia desberdinak ezagutu behar ditu eta ikasleen progresioa etengabe ebaluatzeko gaitasuna izan behar du (Fullan eta Langworthy, 2014).

Bestalde, metodologia aktiboetan ikaslearen inplikazio-maila handitu egiten da: erabakiak hartzerakoan rol aktiboa du, eta modu autonomoan eta kontzientean lan egiten ikasi behar du (Guasp et al., 2020). Gainera, aukera eskaini behar zaio saioak diseinatzen laguntzeko (Ebenezer, et al., 2012; Fullan eta Langworthy, 2014; Groff, 2013; Hatakka et al., 2013).

Fullan eta Langworthyk (2014), ikasleek ikaskuntza sakonagoa lortzeko helburuarekin, ikasle eta irakasleen rolak bereizten dituzte:

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

Irudia/Figure 3. Ikasle eta irakasleen rolak ikaskuntza sakonagorako pedagogia berrietan (Fullan and Langworthy, 2014: 13)

Teachers (Pedagogical Capacity)	Students (Deep Learning)
Build trusted relationships with students and peer teachers; seek good mentors	Build trusted relationships with teachers and peers; seek good mentors
Help students find and build on their interests and aspirations through deep learning tasks	Explore own interests and aspirations in learning goals and tasks
Require challenging learning goals, tasks and success criteria for self and students that require creation and use of new knowledge	Develop capacity to define learning goals, tasks and success criteria, partnering in the learning process
Develop repertoire of teaching strategies; use different strategies to activate learning	Reciprocal teaching and learning from and with peers and teachers
Provide high-quality feedback and encouragement, especially when students face challenges in learning	Develop capacity for reflection and perseverance in the face of challenges; provide high quality feedback and encouragement to others
Collaborate with other teachers and leaders researching the impact of different learning strategies on students (i.e., use an inquiry cycle approach)	Provide feedback to teachers and peers on what is working in one's own learning; build mastery of the learning process and one's own progress
Model a proactive disposition towards learning, creating new knowledge and taking action with that new knowledge	Develop intellectual and attitudinal dispositions towards creating new knowledge and doing things with it in the world
Continuously discover and create digital learning tools and resources to: 1) explore new content, concepts, information and ideas; 2) challenge students to create new knowledge; 3) connect with students, peers, and experts beyond the classroom; 4) accelerate students' ability to drive their own learning process; and 5) assess and share information on students' learning abilities and dispositions	Continuously discover and create digital learning tools and resources to explore new content, concepts, information and ideas. Use these tools to create new knowledge, to connect with peers and experts throughout the world and to use new knowledge in the world

2.3.2. Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (PBL)

XX. mendearen hasieran, Kilpatrick-ek proiektuetan oinarritutako metodologiaren oinarriak zehaztu zituen, Deweyren "learning by doing" teorian oinarrituta. Metodologia horren helburua da ikasleentzako esanguratsuak diren testuinguruak sortzea, zeinetan azken produktua eskatzen duen proiektu baten bidez, ikasleek, taldeka, funtsezko galdera bati erantzuten, arazo bat konpontzen edo erronka bati aurre egiten dioten (Bell, 2010). PBLa ez da ezagutzen irakaskuntzara mugatzen, eta beste metodologia aktiboak bezala, konpetentzien garapenean jartzen du arreta, hala nola problemak ebaztea, pentsamendu kritikoa eta ikasitakoaren eta errealitatearen artean loturak egitea, taldean lan egitea, komunikazioa, iturri desberdinetan informazioa bilatzea eta informazio hori kudeatzea (Virtue eta Hinnant-Crawford, 2019; Aldabbus, 2018). Gainera, proiektuen bidez erresilientzia gaitasuna ere lantzen da (Bell, 2010). PBLan proiektuak ikasteko eta zenbait gaitasun garatzeko bitartekoak dira (Condliffe, 2017), eta ikasleen motibazioa

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

sustatzeko eta ikasten dituzten ezagutzen aplikazio praktikoa ikasteko erabiltzen dira (Ravitz, 2010).

PBLan ikaslea bere ikaste-prozesuko protagonista bihurtzen da (Condliffe, 2017), eta talde kooperatiboetan eta modu autonomoan egiten du lan denbora gehiena (Mergendoller eta Thomas, 2005). Kolaborazioa eta kooperazioa proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren funtsezko alderdiak dira (Virtue eta Hinnant-Crawford, 2019). Modu horretan ikaskideen eta ikasle-irakasleen arteko harremana sustatzen da, eta eskolako kulturan aldaketak eragiten ditu: irakasle-ikasle, irakasle-irakasle eta ikasle-ikasle harremanetan, denbora eta espazioen antolaketan, materialen erabileran, didaktikan… (Gorostiza et al., 2015).

Irudia/Figure 4. Hezkuntza tradizionalaren eta proiektu bidezko irakaskuntzaren arteko desberdintasunak (Gorostiza et al., 2015)

	Enseñanza tradicional	Enseñanza por proyectos
Entre el profesorado	Aislamiento	Cultura cooperativa
Entre el alumnado	Aislamiento	Cultura cooperativa
Grupo-aula	Aislamiento	Permeabilidad
Papel del profesorado	Preeminente	Sutil y activo (guía)
Papel del alumnado	Pasivo y obediente	Más participativo
Estructura	Jerárquica	Más democrática
Percepción del alumnado	Control y sumisión	Mayor libertad
Familia	Fuera del aula	Experta u oyente
Comunidad	Impermeable	Vínculo

PBLren beste ezaugarri bat errealitatearekin egiten duen lotura da. PBLk bizitza errealeko erronkak eta arazoei erantzutea proposatzen du, mundu errealeko egoerak ebazteak esanguratasuna ematen baitie proiektuei (Martínez, 2022); izan ere, Fallas-ek (2021) dio ikaskuntza esanguratsua bihurtzen dela ikasleek benetako gaiak eta arazoak ikertzeko aukera dutenean. Hala ere, proiektuak errealitateko erronkekin lotzeak ez dakar automatikoki arazoak ebazteko behar diren pentsamendu abstraktuaren eta kritikoaren garapena (McPhail, 2017).

Ravitz-ek (2010) dio, proiektuak arrakastatsuak izateko, kalitatezko diseinua izan behar dutela. The Buck Institute for Education-ek (2015) irakaslentzako lagungarriak izan daitezkeen "Gold Standard PBL" izeneko bi gida erabilgarri prestatu ditu (5. irudia). Batetik, *Seven Essential Project Design Elements* izenekoak kalitatezko proiektuak

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

garatzeko gakoak ematen ditu, eta irakasleek gida moduan erabili dezakete. Eta bestetik, *Seven Project Based Teaching Practices* izenekoak, irakasleentzat, eskolentzat eta erakundeentzat beren praktika hobetzeko, neurtzeko eta ebaluatzeko lagungarriak diren gakoak ematen ditu.

Irudia/Figure 5. Proiektuak diseinatzeko gida (Buck Institute for Education, 2015).

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzak ikasleak ikaskuntza-prozesuaren erdian jartzen baditu ere, irakasleek rol garrantzitsua betetzen dute (Buck Institute for Education, 2018). PBLak eskatzen du ikasleen partetik ezagutza, esfortzua, persistentzia eta auto-erregulatzeko gaitasuna. Irakaslearen rola izango da ikasleak prozesuan laguntzea, ikasteko aukerak sortuz, ikaslea gidatuz, pentsaraziz eta ezagutza berriak sortzen lagunduz. Hala ere, PBL metodologia erronka da irakasleentzat, eta formakuntza behar da edukiak irakasteko modu berriak eta proiektuak diseinatzeko, gelaratzeko zein kudeatzeko (Blumenfeld et al., 1991). Izan ere, metodologia honek eskatzen du irakasleak adituak izatea, ikasgaian, eta ezagutzea eta ulertzea ikasleen ikasteko moduak ezagutzea eta ulertzea.

Orokorrean, ikerketek baieztatzen dute PBLk hezkuntza tradizionalak baino emaitza akademiko eta ez-akademiko hobeak ematen dituela (Bell, 2010), eta eragin positiboa duela ikasleen motibazioan. Hala ere, ikasleen motibazioan modu positiboan eragiteko, Biggs-ek eta Tang-ek (2011) diote ezinbestekoa dela zehazten diren helburuak argiak eta zehatzak izatea ikasleei haien ikaste prozesuan aurrera egiten laguntzeko.

Ebaluazioa PBLren erronka nagusietako bat da, prozesua eta azken produktua ebaluatzeko hainbat tresna eraginkor erabili behar baitira (Aldabbus, 2018), hala nola hausnarketa pertsonalak, autoebaluazioa eta koebaluazioa (Bell, 2010). Ikasleen

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

garapena ebaluatzeko bi ebaluazio mota nagusi bereizten dira: ebaluazio hezitzailea, ikaslearen ikaste-prozesua ebaluatzeko diseinatzen dena; eta sumatiboa, azken emaitza bakarrik ebaluatzen duena (Biggs eta Tang, 2011).

Biggs eta Tangek (2011) ebaluazio hezitzailea irakaskuntza on baten oinarria dela diote, ikaste-irakaste prozesua ebaluatzen laguntzen baitu. Ikasleen momentuko beharrei erantzuten eta hurrengo urratsak zehazten laguntzen du, eta modu horretan, irakasleak ikaste eta irakaste prozesuak egokitzeko aukera du. Hau da, prozesuan zehar ematen den feedbacka lagungarria da ikaslearen ikaste-prozesua eta irakaslearen praktika hobetzeko (Care et al., 2012). Ebaluazio hezitzailea erabat eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da ikasleak ebaluazioan inplikatzea, bai beren ikaskuntzaren ebaluatzaile gisa, bai beste ikasle batzuentzak ebaluatzeko ere, autoebaluazioa eta koebaluazioa bereziki baliagarriak baitira ikasleek beren lanaren kalitateari buruz hausnar dezaten (Biggs eta Tang, 2011).

Autoebaluazioa egitea lagungarria da ikasleek beren ikaskuntza erregulatzen ikasteko, ikaste-prozesuaren jabetza eskuratzeko (Ertmer eta Simons, 2005), eta baita aurrera begirako praktikak hobetzeko. Koebaluazioak, bestetik, taldelana hobetzeko helburua du. Bai autoebaluazioa eta bai koebaluazioa garrantzitsuak dira proiektuan zehar ikasten dituzten ezagutzak eta ikaste-emaitzak zein konpetentziak ebaluatzeko, adibidez, talde-lanean aritzeko gaitasuna (Biggs eta Tang, 2011). Hala ere, koebaluazioa zaila eta estresagarria izan daiteke ikasle batzuentzat (Pope, 2001), oro har, ikasle onek beren burua gutxiesteko joera izaten baitute, ikaskideek egingo luketen balorazioarekin alderatuta, eta ikasle txarrek, berriz, beren burua gehiegi balioesteko (Lejk eta Wyvill, 2001).

Bestetik, ebaluazio batutzailea ikas-irakaste prozesua amaitu ondoren egiten da. Ebaluazio mota honen helburua da ikasleek zenbat ikasi duten neurtzea eta kalifikatzea (Biggs eta Tang, 2011). Ebaluazio batutzailea bakarrik egitea ez da eraginkorra (Fullan eta Langworthy, 2014). Gaitasun kognitiboak, intrapertsonalak eta interpertsonalak garatzen laguntzeko aipatutako bi ebaluazio motak modu koherentean eta osagarrian uztartu behar dira (Pellegrino eta Hilton, 2012). Ebaluazio hezitzailaren bidez, ikasleei beren ikaste-prozesuan aurrera egiten laguntzen zaie; eta modu horretan ebaluazio batutzaileko emaitzak hobetzen dira (Connors, 2021).

Azkenik, garrantzitsua da eztabaida eskatzen duten jarduerak ere diseinatzea, ikasitako edukiaren inguruko feedbacka ebaluatzeaz gain, beren pentsamendua eta iritziak modu

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

egokian partekatzeko duten gaitasuna ere ebaluatu ahal izateko (Fullan eta Langworthy, 2014).

2.3.3. Diziplinartekotasuna

Hezkuntza arautua jakintza-arloetan antolatzen da, eta ikaskuntza jakintza-arlo horien baitan gertatzen da. Jakintza-arlo bakoitzari dagokion edukia ikasteaz gain, ikasleek zenbait gaitasun ere garatu behar dituzte. Gaitasun horietako batzuk arloko espezifikoak izango dira, eta beste batzuk, orokorrak. Astigarragak eta Carrerak (2019), gaur egungo hezkuntza sistemak eskatzen dituen konpetentziak garatzeko, beste gako batzuen artean, ezagutzen integrazioa aipatzen dute. Morinek (2010) defendatzen du ikasleak holistikoki garatu ahal izateko, eskolan ezagutza modu integralean irakatsi behar dela, eta ez jakintza-arloen arteko banaketa zurrunean; ezagutzak ez baitira objektu itxiak, baizik eta inguruearekin modu banaezinean lotutako entitateak, beren testuinguruan txertatzen badira soilik ezagut daitezkeenak. McPhail (2017) ere diziplinartekotasunaren alde agertzen da, baina honek proposatzen du bigarren hezkuntzan diziplinarteko proiektuak erabiltzea, ez curriculuma emateko bitarteko nagusi gisa, baizik eta jakintza-arloetan ikasitako ezagutzak diziplinarteko proiektuetan praktikan jartzeko aukera osagarri gisa. Hau da, adierazten du lehenik arloko ezagutzak ikasi behar direla, eta, gero, ezagutza hori sakontzeko diziplinarteko testuinguru batean aplikatu behar dela.

Jakintza-arloetako edukien integrazioa izendatzeko termino ugari erabiltzen dira, horien artean erabilienak ikaste interdiziplinarra (*interdisciplinary study*) eta curriculumaren integrazioa (*curriculum integration*) dira. Termino desberdinak erabiltzen badira ere, termino horiek guztiak ikaskuntza soziokonstruktibismoaren paradigman (Vygotsky, 1978) kokatzen dira, eta irakasgaiak uztartzeko moduari egiten diote erreferentzia (Corney eta Reid, 2007). Hainbat autorek diziplinartekotasunak dituen onurak jaso dituzte (Virtue eta Hinnant-Crawford, 2019), eta ondorioztatzen dute orain arte gailendu den jarduera memoristikoaren ordez, goi-mailako kognizioa aktibatzen duela, eta ezagutza konplexuekiko eta egituratu gabeko ezagutzekiko motibazioa pizten duela.

Curriculumaren integrazioaren ideia XXI. mendeko ikaskuntzari buruzko literaturaren asko landu den gaietako bat da (McPhail, 2017), eta ikusi da ikaskuntza pertsonalizatua izan dadin, diziplinen banaketa zurruna defendatzen duen ikuspegiarekin apurtu egin behar dela. Pertsonalizazio hori lortzeko funtsezko moduetako bat da eskolan proposatzen diren arazoak ebazteko jakintza-arlo desberdinetako ezagutzak integratzea. Adibidez, ikasleentzat esanguratsua eta erakargarria izan daiteke ikaskuntza jakintza-arloka egituratu ordez, "gai" edo "metakontzeptu" baten inguruan

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

ikastea (Hammond, 2017). Ikuspegi horrek aukera ematen die ikasleei, besteak beste, ezagutza eraikitzeko, taldean lan egiteko eta errealitatearekin loturak egiteko (McPhail, 2017).

Curriculumaren integrazioan hiru kategoria nagusi bereizten dira. Hiru ikuspegien horien arteko desberdintasuna jakintza-arloen artean dagoen integrazio-maila da (San Isidro, 2018):

- Diziplina anitzeko (*multidisciplinary*): Gai bat hainbat diziplinetako ikuspegietatik aztertzea, diziplinak integratu gabe.
- Diziplinarteko (*interdisciplinary*): diziplinen integrazioari eta horien arteko interakzioari egiten dio erreferentzia.
- Diziplinaz haratagoko (*transdisciplinary learning*): diziplinen mugak gainditzen dituen prozesua, ezagutza berriak hainbat ikuspegitatik sortzeko

Bestalde, diziplinarteko konpetentzia ezagutza eta metodo desberdinak uztartzeko gaitasunari dagokio, hau da, diziplinartekoak diren arazoei aurre egiteko jakintza-arlo desberdinetan ikasitakoa integratzeko gaitasunari (Brassler eta Dettmers, 2017). Horregatik, diziplinen arteko irakaskuntza gako da ezagutzak transferitzen ikasteko (Pellegrino eta Hilton, 2012; Saavedra eta Opfer, 2012), ezagutzak, gaitasunak eta estrategiak egoera berrietan aplikatzeko aukera ematen baitie ikasleei (Fullan eta Langworthy, 2014; Saavedra eta Opfer, 2012).

Arloetako alfabetatzearen azterketa
batxilergoko diziplinarteko proiektu
batean.

1.Kapitulua
XXI. Mendeko Hezkuntza

2.4. SUMMARY

This section discusses how societal changes have influenced educational changes. In recent years, society has undergone many changes in a rapid way, which have led to socio-cultural adaptations in the way people live today (Lozano and Herrera, 2013). As the world becomes increasingly complex, in order to cope with societal problems and challenges (Harari, 2018), individuals must develop the ability to adapt to a changing and uncertain reality (Garcés, 2020; Menéndez, 2017). Several authors listed a number of competences, coined as 21st century skills.

In order to respond to the needs of citizens and society in the 21st century, education must also undergo some changes (Care et al., 2012). In addition to developing such skills, students should also learn to apply and transfer those skills in different situations, which is called deeper learning (Pellegrino and Hilton, 2012). Furthermore, changes in the last few decades have required the development of teaching models that place the learner at the centre of learning (Bietenbeck, 2014). When students are allowed to experiment and actively participate in the learning process, they not only learn new information, but also relate it to previous knowledge, making the process more enriching and meaningful (Fallas, 2021). As a result, in order for students to develop such competencies, a methodological choice that promotes active learning, such as active methodologies, should be made, one of which is project-based learning (Bell, 2010).

In order to develop the competencies required by the current educational system, Astigarraga and Carrera (2018) highlight, among other things, the integration of learning. According to Morin (2010), in order for students to develop holistically, knowledge must be taught in schools in an integrated and interdisciplinar manner rather than in a rigid division of knowledge. Interdisciplinary competence is defined as the ability to combine various knowledge and methods, i.e. to integrate learning from various subject areas to address interdisciplinary problems (Brassler and Dettmers, 2017). Interdisciplinary teaching is thus essential for learning to transfer knowledge as it allows students to apply their knowledge, skills, and strategies in new situations (Pellegrino and Hilton, 2012; Saavedra eta Opfer, 2012).

3. Kapitulua:
ARLOETAKO ALAFABETATZEA

3. ARLOETAKO ALFABETATZEA

3.1. HIZKUNTZAREN ROLA IKASTE-IRAKASTE PROZESUAN

Hizkuntzak ikaste prozesuetan zein rol betetzen duen erdiguneko gai bihurtu da, eta gaur egun, nazioarteko hezkuntza testuinguru desberdinetan ez dago argi zein den jakintza-arloetan edukiak ikasteko hizkuntzak duen eginkizuna (Skinnari eta Nikula, 2017; Nikula et al., 2016). Ikuspegi desberdinetatik ikertu izan da auzia: Systemic Functional Linguistics (SFL), literacy studies, bi- and multilingual education studies (Skinnari eta Nikula, 2017). Nazioarteko azken probek (TIMS, PISA, PIRLS edo PIAAC) eta gaiari buruz diharduten hainbat autorek (Lorenzo eta Trujillo, 2017; Pavón eta Pérez, 2018) ikasleen komunikazio konpetentziaren maila baxuan jarri dute arreta ikasleen emaitza txarrak azaltzerakoan.

Hainbat dira hizkuntzak ikasleen ikaste prozesuan betetzen dituen rolak eta horiek hobeto ulertzeko, ezinbestekoa deritzogu lehenik eta behin hizkuntza nola ulertzen dugun azaltzea. Lan honetan, hizkuntzak ikaste-irakaste prozesuetan duen rola ulertzeko moduak Vygotskyren ikuspegi soziokulturala (1978) du oinarri. Vygotskyren lanaren ekarpenik esanguratsuenetako bat da pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko harreman banaezina dela. Autore honen arabera, hitzak eta beste zeinu batzuk dira gure eragiketa mentalak bideratzen dituzten bitartekoak. Teoria soziokulturalaren beste ideia nagusia da ikaskuntza oro testuinguru soziokultural batean gertatzen dela (Vygotsky, 1978). Hau da, ikaskuntza gertatzen da gizabanakoek komunitate baten praktiketan parte hartzen dutenean, komunitatearen tresnak, hizkuntza eta bestelako kultura-tresnak erabiliz (Pellegrino eta Hilton, 2012). Bi ideia horiek kontuan hartuta, bi dira hizkuntzak betetzen dituen funtzioak: soziala eta intelektuala.

Funtzio intelektualari dagokionez, ikuspegi soziokulturalak pentsamenduak eraikitzeko tresna gisa definitzen du hizkuntza (Vygotsky, 1978). Hau da, Vygotskyren arabera hizkuntza erabiltzea ekintza kognitiboa da, pentsamendua artikulatzeko eta honi forma emateko balio duena (Swain, 2006). Ideia horretan oinarrituta, Swain (2006) "languaging" terminoa erabiltzen hasi zen. "Languaging" hizkuntzaren bidez esanahiak eraikitzeko eta ezagutza sortzeko prozesuari deritzo, beraz, esan daiteke, hizkuntzak esanahiak eraikitzeko funtzioa ere baduela (Mohan et al., 2010; Swain, 2009). Lemke-k (1988) azaltzen du "esanahia" eta "pentsamendua" antzeko terminoak direla eta berbaratzearekin lotuta daudela zuzen-zuzenean. Gainera, hizkuntzaren izaera dialogikoaren ondorioz, esanahia kolektiboa ere izan daiteke (Matthiessen, 2009)

Bestetik, ikaskuntza dimentsio sozialean gertatzen da (Moate, 2010) hau da, ikasleek kognizioa hitzen bidez adierazten dute gizarte esferetan, eta besteekin elkarrekintzan ideiak eraikitzen eta birformulatzen dituzte garapen kognitiboan aurrera egiteko (Swain eta Lapkin, 2013). Izan ere, hizkuntzaren bidez komunikatzen gara gizakiok, eta giza jarduera guztiek hizkuntzaren erabilera eskatzen dute (Bakhtin, 1986; Lemke, 1988). Beraz, hizkuntzaren formak giza jarduera arloak bezainbeste dira: hizkuntza erabiltzen dugu inguruan ditugun gauzak deskribatzeko, galderak egiteko, azalpenak emateko, esanahiak negoziatzeko, ulermenak partekatzeko… eta beraz, egoera horietako bakoitzak mintzaira modu bat eskatzen du eta egoera sozial horrek berak baldintzatzen du erabiltzen den hizkuntza (Martin, 1992). Hau da, (Bakhtin,1986) teroriari jarraiki, hizkuntza erabiltzen den esfera bakoitzak enuntziatu mota egonkor samarrak garatzen ditu, *speech genres* deiturikoak. Esfera bakoitzak bere genero propioak ditu, esfera horren baldintza espezifikoei dagozkienak. Bakhtin-ek generoak bi multzotan banatzen ditu: alde batetik, oinarrizko generoak edo primarioak, horiek egunerokotasuneko elkarrizketan leudeke; eta bestetik, genero konplexu edo sekundarioak, kultur komunikazio baldintza konplexuagoetan sortzen direnak. Esanahiak eraikitzeko prozesua erabiltzen diren generoen araberakoa da, helburuak lortzeko prozesu sozialtzat hartzen baitira (Rose eta Martin, 2012).

3.1.1. Hizkuntzaren rol bikoitza: elkarrekintzan jarduteko eta arloetan ezagutza eraikitzeko

Lehen kapituluan esan dugun moduan, eskolaren funtzio nagusietakoa da ikasleek pentsamenduak eta ezagutzak eraikitzea (Dalton-Puffer, 2007). Funtzio hori betetzeko eskolan egiten diren ia ekintza guztiek hizkuntzaren erabilera eskatzen dute (Gibbons, 1991). Aipatu berri dugun hizkuntza ulertzeko modua kontuan izanda, ikaste-irakaste prozesuan ere hizkuntzak rol bikoitza duela diote hainbat autorek (Meyer eta Coyle, 2017; Coyle eta Meyer, 2021; Coyle, 2015):

Batetik, gogoratu behar da ezagutza sozialki eraikitzen dela hizkuntzaren bidez, eta ondorioz, ikaskuntza ere modu berean, sozialki, eraikitzen da (Wells, 1999; Mercer, 2002). Horregatik, elkarrekintza ikaste-irakaste prozesuen oinarria dela esan dezakegu (Walqui, 2006). Elkarrekintzaren bitartez ikasle eta irakasleen arteko bitartekaritza gertatzen da, hizkuntzak ahalbidetzen baitu irakasleek ikasleen pentsamendu eta ulermenean eragitea, elkarrekintzaren eta esku-hartze pedagogikoaren bidez ikasleen barne egitura kontzeptualak birkonfiguratuz (Coyle eta Meyer, 2021). Are gehiago, hizkuntzak ez du elkarregina bakarrik errazten, elkarpentsatzea (*interthink*) ere ahalbidetzen du (Mercer, 2002).

Eta bestetik, eskolan maneiatzen den ezagutza (*educational knowledge*) hizkuntzan gorpuztua agertu ohi da eta ondorioz, zaila da ezagutza horren jabekuntza irudikatzea hizkuntzaren bitartekaritza gabe (Dalton-Puffer, 2007). Horregatik, hizkuntza ikasleek ikasitakoaren lehen mailako adierazletzat hartzen da (Mohan et al., 2010), ikasleek edukiaren ulermena hizkuntzaren bidez azaltzen baitute eta hori da, hain zuzen ere, eskola testuinguruetan ebaluatu ohi dena (Schleppegrell, 2004). Beraz, esan daiteke ikaskuntzaren arrakasta ikasleek ezagutzak eta ulermena artikulatzeko duten gaitasunean islatzen dela (Van Kampen et al., 2021). Hala, "languaging becomes part of what constitutes learning" (Swain, 2006:98).

3.1.2. Hizkuntza elkarrekintzan jarduteko

"Enseñar implica conversar"

(Mercer, 2002)

Vygotskyren teoria soziokulturalak (1978) hizkuntza bitartekari eta pentsatzeko tresna gisa definitzen du, eta elkarrekintzak ikasleen garapenean eta ikaskuntzan duen garrantzia azpimarratzen du. Freirek *elkarrekintza dialogikoa* terminoa sortu zuen 90eko hamarkadan eta ondoren, (Alexander, 2018) terminoa garatu zuen. Elkarrekintza dialogikoak ikasleak beren pentsamendua partekatzera bultzatzen ditu, eta errazten du ikasleen ulermena hobetzea, horren garapena ebaluatzea eta ikasleei zailtasun eta erronkak gainditzen laguntzea. Aldi berean, irakasleei aukera ematen die ikasleek dituzten beharren diagnostikoa egiteko (Alexander, 2020).

Ikasleek batzuetan zailtasunak izaten dituzte ikaste prozesuan proposatzen zaizkien eskakizunei erantzuteko eta eginkizun horretan lagundu egiten zaie aldamiajearen (*scaffolding*) bidez, hau da, ikasleari lagundu egiten zaio zeregin bat arrakasta bete dezan (Mahan, 2020). Aldamiajea askotan ahozko elkarrekintzan gertatzen da eta ikasleari bere ekarpena osatzen edo garatzen laguntzen zaionean agertzen da (Walqui, 2006). Aldamiaje modu hori ulertzeko ikuspegi desberdinak daude, lan honetan ikuspegi soziokulturalean oinarrituko gara. Kontzeptuak psikologian du jatorria, baina 1970ean terminoa hezkuntzan erabiltzen hasi zen Bruner. Wood, Bruner eta Ross-ek (1976) aldamiajea definitzen dute ikasle eta irakaslearen arteko elkarrekintza gisa, non ikasleari bere gaitasunetik kanpo gertatzen den arazo bat ebazten laguntzen zaion.

Aldamiajeak lotura zuzena du Vygotskyren Garapen Hurbileko Eremuarekin (GHE). Vygotskyk (1978) honela definitzen du GHE: garapen-maila errealaren eta garapen-maila potentzialaren arteko distantzia da, non heldu baten zuzendaritzapean edo gaitasun handiagoko lankideekin lankidetzan problemak ebazteko gai den. Eremu hori da ikaskuntza-irakaskuntza gertatzen den jarduera une nagusia eta hortxe gertatuko da

aldamiajea (van Lier, 2004). GHEn lan egiteak esan nahi du ikasleak besteen laguntza jasotzen duela bakarrik lortu ezin duena lortu ahal izateko, hala gaitasun handiagoa duen beste (kide) baten laguntza jasotzean, ikaskuntza arrakastatsua gerta daiteke eta ikasleak jarduera konplexuagoetan parte har dezake (Walqui, 2006).

Van Lierren (2004) arabera, aldamiajea bi mailatan egin daiteke: maila makroan eta maila mikroan. Lehenak barnebiltzen ditu hizkuntza sistematikoki integratzen duten ikasketa plangintzak; bigarrenak, elkarrekintza aldamiajeari (*interactional scaffolding*) egiten dio erreferentzia, irakasleak gelan unez une ikasleari ematen dion laguntzari. Ildo beretik, Walquik (2006) hiru aldamiatze maila bereizten ditu: jarduerak egiten eta gaitasunak garatzen laguntzeko laguntza egiturak eskaintzea; gelan jarduera jakin batzuk aurrera eramatea ikasleei laguntzeko; eta elkarrekintzaren bidez eskaintzen den laguntza jarraitua. Autoreak azpimarratzen du hiru maila horietan sistematizazioa eta bat-batekotasuna beharrezkoak direla.

Azken maila horretan aldamiajea elkarrekintzaren bitartez gertatzen da. Elkarrekintza gelako ikaste-irakaste prozesuetan ikasle eta irakasle edo ikasleen artean ematen den hizkuntzaren erabilerari deritzo eta egunero gertatzen da irakaslearen eta ikasleen arteko ikasgelako jardueretan (Mercer, 2004; Wells, 1999). Ikasgelak inguramendu (*scenarios*) konplexuak dira, gauza asko gertatzen dira bertan aldi berean eta parte-hartzaile desberdinen artean (Dalton-Puffer, 2007). Zenbait autorek gela barruan gertatzen den hizketaldia erregistro desberdinetan gertatzen dela diote, Christie-k (2000) bi erregistro mota bereizten ditu: erregulatzailea (*regulative register*) eta hezitzailea (*instructional register*). Hizketaldi erregulatzaileak izaera monologikoa du eta ez du ikasleen etenik onartzen. Aldiz, hizketaldi hezitzaileak izaera dialogikoa du eta ikasle eta irakaslearen artean gertatzen da (Dalton-Puffer, 2007). Bi erregistro horiez gain, lan berean hizketaldi soziala *(social talk)* ere bereizten da, ohikoagoa dena Lehen Hezkuntzako geletan.

Gainera, Llinares et al. (2012) eta (Dalton-Puffer, 2007) autoreek diote erregistro bakoitzean behar den hizkuntza desberdina dela. Hala ere, zenbait momentutan, erregistro hezitzailea eta erregulatzailea gainjarri egiten dira eta ezin dira bereizi. Hala, ikaskuntza arrakastatsua den kasuetan bi erregistroek bat egin ohi dute, ikasleak parte hartzen du edukiaren inguruko ikaskuntzan (erregistro hezitzailean azaleratua) eta argi definituriko jarduerak egiten ditu aldi berean (erregistro erregulatzailean azaleratuak). Hizketaldi erregulatzailea, normalean, hasierako faseetan edo saioen arteko trantsizioetan gertatzen da, eta ondorioz, batzuetan, erregistro hezitzailea erregistro erregulatzailearen baitan txertatuta egoten da (Christie, 2002).

Irudia/Figure 6. Gelako erregistroak (Dalton-Puffer, 2007:30)

Christie-k (2002) definitzen duen erregistro hezitzailean, (Dalton-Puffer, 2007) sei ekintza tipo bereizten ditu:

- Gela osoko elkarrekintza: Irakasleak gidatutako irakasle eta ikasleen arteko elkarrekintza, irakaslea eta gela osoa solaskide gisa.

- Berdinkideen arteko elkarrekintza (ikasleek gidatua): Ikasleek bikoteka edo talde txikitan elkarrekin lan egitean datza, irakaslearen laguntza gutxirekin.

- Bakarkako lana: ikasleek bakarrik lan egiten dute, baina irakaslearen laguntza eskatu dezakete. Jarduera mota honek ez du berez hitz egitea eskatzen, baina irakasleari laguntza eskatzen zaionean, elkarrizketa sortzen da.

- Ikasleen monologoa: ikasleei denbora-tarte luzeagoetan hitza ematen zaien kasuak dira, adibidez, aurkezpenak egiten dituztenean edo lantalde bateko bozeramaile gisa jarduten dutenean.

- Irakasleen monologoa: curriculumeko edukia aurkezteko irakasleak ematen duten iraupen luzeko hitzaldia.

- Talde lana (irakasleak gidatua): irakaslea ikasle-kopuru txiki batekin biltzen da, zeregin batean elkarrekin lan egiteko.

Gelako elkarrekintza irakasle eta ikasleen arteko elkarrizketa edo hizketaldia baino gehiago da. Ikasgelako elkarrekintza erregistro hezitzailean gertatzen da, eta helburua da ikasleek ikasgelan modu aktiboan parte hartzea, ikasleek beren ideiak, ezagutzak eta arrazoitzeak adierazi eta garatu ditzaten, ahoz eta modu kolektiboan (Hennessy et al., 2021; Mercer, 2002). Esteve-k (2009) eta Alexander-ek (2018) gelan gertatzen diren elkarrekintzak hiru multzotan bereizten dituzte: irakaslearen eta ikasleen artekoa, berdinkideen artekoa, eta bakarkakoa. Goian zerrendatutako 6 ekintza tipoak hiru multzo horietan sailka litezke. Gela osoko elkarrekintza da gehien ikertu den elkarrekintza mota (Dalton-Puffer, 2007). Elkarrekintza mota hori da, hain zuzen ere, irakaskuntza dialogikoaren bereizgarrietako bat (Alexander, 2020).

Ikerketa asko egin dira ezagutzeko zein ezaugarri izan behar dituen gelako elkarrekintzak, ikasleen emaitzak positiboak izan daitezen (Howe et al., 2019). Irakasleak testuinguruak sortu behar ditu elkarrekintzaren bidez ezagutza eraiki ahal izateko eta testuinguru horiek sortzeko, irakasleek zenbait estrategia erabil ditzakete. Alexanderrek (2018) azpimarra jartzen die irakasleek galdera irekiak egin eta ikasleen usteen azaleratzea eta horien gaineko arakatzea sustatzeari, horretarako elkarrizketari denbora aski eskainiz. Howe et al.,-ek (2019) galdera irekiez gain, ekarpen luzeak, iritzi desberdinak, arakatzea edota ikuspegi metakognitiboa ere aipatzen dituzte. Gainera, garrantzitsua da ikasle guztiei ahotsa ematea; izan ere, ohikoa da ikasle gutxi batzuek gelako hizketa jardunaz jabetzea (Clarke, 2015). Estrategia horien bitartez elkarrekintza sustatzen da eta aldi berean aldamiajea, elkarrekintzaren bidez ikasleen parte-hartzea eta ulermena aldamiatzeko modurik ohikoena baita (Muhonen et al., 2016). Elkarrekintza aldamiajeatze (*interactional scaffolding)* estrategia horiek autore askok zerrendatu dituzte eta ez dago zerrenda bakar eta bateraturik. Ondoko taulan biltzen dira horietako batzuk:

Taula/Table 1. Elkarrekintza-estrategiak

Dafouz, Llinares eta Morton, 2010	Tang, 2019	Mahan, 2020	Lyster and Ranta, 1997	Walqui, 2006	Howe et al., 2019
IRF Questions Get students to elaborate Recast or correct Evaluation "Amplify" for the whole class	Mediation Probing for expansion Tranlating Evoking discussion Scaffolding (encouraging self-scaffolding / Holding scaffolding) Revoicing Probing Clarifying Withholding: holding back the answer	Comprehension strategies Drawing on previous knowledge Academic language development Supportive material Task-solving strategies Metacognition	Explicit correction Recasts Elicitation Metalinguistic clues Clarification requests Repetition	Modelling Bridging Contextualising Schema building Re-presenting text Developing metacognition	Open questions Elaboration of previous contribution Reasoned discussion of competing viewpoints Linkage and coordination across contributions Metacognitive engagement High levels of student contribution

Estrategia horietako batzuk errepikatu egiten dira autore desberdinen zerrendetan, eta estrategia berdinari errereferentzia egiteko termino desberdinak ere erabiltzen dituzte autoreek, adibidez, "*ask students to elaborate",* eta "*probing for expansion"*. Bi estrategia horietan ikasleei eskatzen zaie haien erantzunak garatzen jarraitzeko.

Ikasgelako elkarrekintzan gehien errepikatzen den eredua Initiation-Response-Evaluation (IRE) egitura da (Mortimer eta Scott, 2003). IRE edo IRF gelako

elkarrekintzan sortzen den irakasle-ikasle-irakasle txanden sekuentzia da. Hasierako fasean (I), irakaslearen helburua elkarrizketa hastea da ikasleak hitz egin dezan, ikasgelako elkarrekintzan parte hartzeko aukera emanez (Saswati, 2019) horretarako, irakasleak galderak egin ohi ditu batzuetan, eta beste batzuetan aginduak ere ematen ditu; ikasleek erantzun egiten dute (R); eta ondoren, irakasleak feedbacka ematen du ikaslearen erantzunaren gainean. Bi galdera mota bereiz ditzakegu: irakasleak erantzuna ezagutzen dituenak (*display questions*) eta irakasleak erantzuna ezagutzen ez dituenak (*referential questions*) (Wright, 2016). Farooq (2007) autorearen arabera bigarrenak dira garrantzitsuagoak, erantzun luzeago eta konplexuagoerak eragiten dituztelako. Saswati-k (2019) bi feedback mota desberdintzen ditu: solaskidetza feedbacka (*interactional feedback*) eta feedback pedagogikoa (*pedagogical feedback*). Lehenengoak ez du ebaluazio-asmorik, irakasleak ikasleen erantzunak komentatzen ditu, adostasuna edo desadostasuna adieraziz. Bigarrenak ikasleen erantzunak modu positiboan eta negatiboan ebaluatzeaz gain, ikasleei laguntza ematen zaie erantzunak hobetzeko edota garatzeko, eta horretarako hainbat estrategia erabili daitezke: eredu ona ematea, galdera bidez eskatzea, pistak ematea, zuzentzea, birformulatzea, beste hitz batzuekin esatea edo garatzea (McNeil, 2012; Saswati, 2019).

IRE/F egituraren erabilera kritikatua izan da, maiz galdera itxiak egin ohi dituztelako irakasleek, eta galdera mota horiek ikasleen erantzun zehatzak eta laburrak eskatzen dituzte, ondorioz, azken fasean feedbackerako aukera gutxi eskaintzen da (Alexander, 2018). Batzuek IRE eta IRF terminoak sinonimotzat erabiltzen dituzte, beste batzuek, aldiz, bereiztu egiten dituzte, IRE solaskidetza feedbackarekin lotuz, eta IRF feedback pedagogikoarekin. Zentzu horretan hainbat autorek IRE/Fren mugak azpimarratzen dituzte, E/F hirugarren txandan ikasleei arrazoiketarako tartea mugatzen zaielako (Alexander, 2020).

Tang-ek (2019) IRF eredu klasikotik ikasleak elkarrizketa esanguratsuetan inplikatzen dituzten aldamiaje estrategia eraginkorrak identifikatzera pasatzea proposatzen du. Zentzu horretan, irakasleek erraztaile izan behar lukete eta ikasgelako elkarrekintza ez litzateke euren menpe egon behar.

3.1.3. Hizkuntza arloetan ezagutzak eraikitzeko

Eskola jakintza-arloetan antolatzen da, eta aurreko atalean aipatutakoa birgogoratuz, jakintza-arlo horiek hizkuntzaren bidez irakasten dira eskolan (Schleppegrell, 2004; (Council of Europe, 2006). Are gehiago, zenbait autoreren ustez, hizkuntza da eskolako arlo guztietan pentsatzeko tresna garrantzitsuena, jakintza-arloetan komunikatzeko, edukiak ulertzeko eta horiek manipulatzeko balio baitu (Pavon eta Perez, 2017; Nikula

eta Moate, 2018). Horregatik, arlo horietako bakoitzean ezagutza eraikitzeko eta adierazteko ikasleak dagokion hizkuntza garatu behar du (Halbach, 2022). Zentzu horretan, Europako Kontseiluaren hezkuntza-politikek ere nabarmentzen dute hizkuntza dela ezagutzaren transmisioa eta eraikuntza errazteko baliabiderik esanguratsuena (Beacco et al., 2015).

Hezkuntza-testuinguruetan erabili ohi den hizkuntza eta eguneroko gizarte-testuinguruetan erabili ohi dena desberdinak dira (Beacco et al., 2015; Coffin, 2006; Cummins, 2021), eta hortaz, ikasle batek hizkuntza desberdina beharko du eskolako hizkuntza-eskakizun akademikoei eta eguneroko bizitzakoei erantzuteko. Modu horretan, *hizkuntza akademikoa* terminoa eskola-hizkuntza eguneroko hizkuntzatik bereizteko erabili izan da literaturan. Izan ere, Hizkuntzalaritza Sistemiko Funtzionalaren (SFL) arabera, hizkuntza akademikoa da "the language through which school subjects are taught and assessed" (Schleppegrell eta Hallaron, 2011:3). Hizkuntza akademikoa, oro har, gehiago lotu izan da idatzizko formekin ahozko formekin baino (Gibbons, 2003) eta, oro har, abstrakzio-maila handiagoarekin, gramatika-konplexutasunarekin eta dentsitatearekin, baita eduki-arlo bakoitzeko termino eta kontzeptu espezializatuekin ere (Achugar eta Carpenter, 2014; Schleppegrell, 2004).

Autore askok definitu izan dute hizkuntza akademikoa, baina Bailey eta Butler-en (2003) arabera, guztiek dute oinarrian Cummins-ek (1980) egindako Pertsonen arteko Komunikaziorako Oinarrizko Trebetasunen (BICS) eta Hizkuntza Akademikorako Gaitasun Kognitiboaren (CALP) bereizketa. BICS, edozein hizkuntzatako hiztun guztiek eguneroko testuinguru sozialean beren helburuak lortzeko hizkuntza erabiltzeko gaitasunari deritzo; eta CALP eskolan alfabetatzearekin lotutako hizkuntzaren alderdien garapenean dauden desberdintasun espezifikoei (Cummins, 1980, 2021). CALPen gaitasun nahiko ez izatea lotu izan da ikasleen oztopo akademikoekin (Cummins, 2008).

Eskolatzearen hizkuntza-eskakizun espezifikoak jorratzen dituzten ikertzaile batzuek zalantzan jartzen dute CALP/BICS bereizketa zurruna, elkarrekintzak eta hizkuntza akademikoa gehiegi dimentsionatzen direla iritzita (Cummins, 2021) eta aldi berean BISC eta CALP bereizketa sinplifikazio handiegia delakoan (Scarcella, 2003; Valdes, 2004). Konstrukto horiek euren elkarrekintza eta testuinguru diskrutsibotik atera izana dago kritika horietako askoren oinarrian, hala, azpimarratzen dute elkarrekintza testuinguruan bi nozio horiek ez dutela laguntzen (Cummins, 2008). Kritikak kritika hainbat autorek proposatu dituzte marko teoriko edota esku-hartze markoak bi nozio hauetan oinarrituz eta etxeko hizkuntzan zein eskolako hizkuntzan alfabetizazio gaitasun sendoa lortzearen garrantzia azpimarratzen dute (Cummins, 2021).

Edonola ere, bitartasunak inplikatzen duen BICS/CALP banaketa baino fenomeno konplexuagoa da eskola-hizkuntzari loturiko auzia. Gibbonsek (2007) BISC/CALP bereizketa continuum gisa irudikatzen du, hala, irakasleak eguneroko hizkuntzaren ezaugarrietatik abiatuta ikasleari arlo desberdinei loturiko patroiak eta errepertorio linguistikoak bereganatzen eta menperatzen laguntzen dio.

Hizkuntza akademikoa zehazte aldera, Lorenzo eta Trujillok (2017) aipatzen dute CALPak bi atal dituela: batetik, arloari dagokion hizkuntza espezifikoa eta bestetik hizkuntza akademiko orokorra. Bigarrena zeharkakoa da eta ikasgai guztietan jarduteko behar den hizkuntza akademikoari egiten dio erreferentzia. Ting-ek (2012) dio orokorrean hizkuntza akademikoa alde batera uzten dela arloetan, baina Beacco et al.,-ek (2015) azpimarratzen dute hizkuntza akademiko orokorra menperatzeaz gain, hizkuntza akademikoaren erabilera hori modu espezifikoan menperatu behar dela arlo eta diziplina bakoitzean. Arloko hizkuntza espezifiko hori, beraz, ikaskuntza akademikoaren parte bihurtzen da (Nikula eta Moate, 2018).

Hurrengo taulan jasotzen da batetik lau jakintza-arlo desberdinetako hizkuntza espezifikoa, eta jakintza-arlo guztietan komuna den hizkuntza akademiko orokorra.

Irudia/Figure 7. Arloko hizkuntzaren eta hizkuntza akademiko orokorraren arteko aldeak (Beacco et al., 2015:23)

Examples of subject-specific v. general academic language use in different content areas		
	Subject-specific language	General academic words and phrases
Language as subject	Imagery, alliteration, theme, metaphor, plot Stylistic devices This expression is ambiguous	That is, implied, contains, leads us to believe, teaches a message Therefore, as a result, consequently, consist of, on the assumption that …
History	Revolution, emancipation, right, oligarchy To stand up for one's own right, usurp power Rights and obligations	If … then, end up with, derive, take care of, thus, suppose, prove, confirm Hypothesis, variable, infer, results, dependent (on) To increase, to decrease, to stay even or to even out
Mathematics	Reciprocal, balance, proof, hypotenuse, obtuse, matrix The curve is (sharply) rising/falling	
Science	Mitosis, gravity, force, sublimation Global warming	

Ikasleek erabili behar dituzten ezagutzak aurreratuagoak eta espezializatuagoak diren heinean, hizkuntza gero eta abstraktuagoa eta metaforikoagoa bihurtzen da (Fang, 2012). Eskolako etapa desberdinetan zehar, jakintza-arloetako hizkuntza-eskakizunak

aldatuz doaz, eta ikasleek hizkuntzaren erregistro akademikoak erabiltzeko duten gaitasuna garatzen jarraitu behar dute (Cummins, 2021), nerabezaroan zehar eta, potentzialki, bizitza osoan zehar, gero eta gizarte-testuinguru gehiagotan aritu behar diren heinean. Hizkuntza akademikoaren ezaugarri horiek ikaskuntza-erronkak dakarzkie ikasle guztiei, irakaskuntza-hizkuntza edozein delarik ere.

Arloko hizkuntza (*Subject-specific language*) zuzenean lotzen da arloko alfabetatzea (*disciplinary literacy*) kontzeptuarekin. Eskolatzearen testuinguruan alfabetatzeak forma desberdinak hartzen ditu (Halbach, 2022). Shanahan eta Shanahan-ek (2008) hiru alfabetatze mota bereizten dituzte: oinarrizko alfabetatzea (*Basic literacy*), erdi-mailako alfabetatzea (*intermediate literacy*) eta arloko alfabetatzea (*disciplinary literacy*). Hurrengo irudiko piramideak alfabetatzearen garapenaren espezializazio gero eta zehatzagoa irudikatzen du (Shanahan eta Shanahan, 2008:44).

Irudia/Figure 8. Alfabetizazioaren garapena (Shanahan eta Shanahan, 2008:44)

Piramidearen oinarrian **oinarrizko alfabetatzea** kokatzen da, horren baitan daude dekodetzea eta irakurketetan asko erabiltzen diren hitzen ezagutza. Oinarrizko alfabetatzea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapetan zehar garatzen da.

Bigarren maila batean, **erdi-mailako alfabetatzea** dago: zeregin asko aurrera eramateko behar diren alfabetatze-trebetasun komunak lirateke, hala nola, ulermen estrategia orokorrak, hitz arrunten esanahiak eta oinarrizko hitz-jarioa. Maila horretako alfabetatzea Lehen Hezkuntzan garatzen da.

Eta azkenik, piramidearen goiko aldean, **arloko alfabetatzea** daukagu. Kontzeptu horrek jakintza arloetan (matematikan, historian, zientzian, literaturan…) berariazkoak diren komunikazio modu espezifikoei dagozkien alfabetatze-trebetasunak izendatzen ditu.

Arloko alfabetatzeak diziplina horietan ezagutza sortzen, komunikatzen eta erabiltzen dutenek dituzten ezagutza eta trebetasunei egiten die erreferentzia (Shanahan eta

Shanahan, 2012). Arloko alfabetatzea izendatzeko hainbat termino erabili izan dira, ikuspegi, jatorri eta garaiaren arabera, besteak beste: *subject areas literacy*, *subject-matter literacy*, *disciplinary literacy*, *specific literacy*, *subject literacy*… (Moje, 2008). (Shanahan eta Shanahan, 2008) aipatzen dute zenbait autorek *Content area literacy* ere sinonimotzat hartu izan dutela; hala ere, *Content area literacy* ikasleek edozein diziplinatan testuak irakurri ahal izateko behar dituzten estrategia komunen multzoari deritzo (Fang, 2012; Shanahan eta Shanahan, 2012; Moje, 2008). Hau da, *Content area literacy-k* ez du diziplina espezifikoetako bereizgarrietan arreta jartzen, baizik eta ikasleei informazioa eskuratzeko behar dituzten tresnetan, diziplinaren izaera edozein delarik ere (Shanahan eta Shanahan, 2012).

Piramidean gora egiteak esan nahi du gero eta trebetasun eta errutina sofistikatuagoak eta, aldi berean, ez hain orokorrak ikastea, izan ere, ikasmailetan aurrera egin ahala, alfabetatzea eta testuak gero eta espezializatuagoak izaten dira (Shanahan eta Shanahan, 2008; Schlepegrell, 2004). Hori dela eta, autoreon arabera, arloko alfabetatzea bigarren hezkuntzan zehar garatzen da, diziplinetako eskakizunak erabakigarriago bihurtzen baitira Bigarren Hezkuntzan (Tang, 2016). Bigarren hezkuntzan, ikasleak gero eta konplexuagoak diren hizkuntza-formekin eta errepresentazioekin topo egiten hasten dira, diziplinaren berariazkoak direnak (Lemke, 1990). Horietan arreta jartzea ezinbestekoa da, diziplinetan txertatutako goi-mailako trebetasunak eta gaitasunak ez baitira ikasteko errazak eta, gainera, oso gutxitan irakasten dira (Shanahan eta Shanahan, 2008).

Mundu mailako azken curriculum erreforma eta *estandarren* aldaketa joerek arlo guztietako alfabetatzearen garapenean arreta jarri badute ere, oraindik ez dago argi arloko alfabetatzea praktikan nola irakatsi behar den (Tang, 2016). Argi dagoena da ikasle guztiek modu eraginkorrean ikas dezaten, hainbat arlotan alfabetatu behar direla eskolan, eta alfabetizazio horiek esplizituki irakasten ez badira, ikaskuntzan oztopoak izan ditzaketela (Coyle, 2020). Izan ere, neurri handi batean, ikasleak arloetan lortzen duen arrakasta hizkuntza-ezagutzen eta gaitasunen jabekuntzaren araberakoa izango da (Kidd, 1996).

Jakintza-arloak gizartean diziplina gisa onartuak daude eta horregatik transmititzen dira eskolan. Jakintza-arlo bakoitzak mundua ikusteko ikuspegi desberdinak eskaintzen ditu (Polias, 2006) eta prozesu historikoen emaitza dira. Bakhtinek (1984) gogorarazten digu giza-jardun bakoitzak badituela berezko generoak eta ezaugarri eta egoera zehatzei egokituta ekoizten duela hiztunak bere berbaldia. Autorearen hitzetan funtzio jakin batekin (zientifikoa, teknikoa, egunerokoa…) eta baldintza zehatz batzuei erantzunez

sortzen dira genero jakin batzuk, nahiko egonkorrak eta mugatuak diren esateko moduak. Zentzu horretan, ikuspegi soziokulturalari jarraiki, diziplinak praktika partekatuak dituzten komunitateak dira, zeintzuetan ezagutza etengabe sortzen, ulertzen eta berrikusten den. Praktika horietan erabiltzen diren hizkuntza formen bidez, garatzen dira diziplinotako teoriak, egiten dira interpretazioak eta sortzen dira testu espezializatuak (Fang et al., 2008). Ildo beretik, O'Brien, Moje eta Stewartek (2001) diote diziplinak diskurtsoz eta praktika kulturalez osatzen direla; hau da, diziplinak testu-mota jakin batzuk helburu jakin batzuekin irakurtzen, idazten, esaten… dituzten kulturak dira, eta, beraz, alfabetatze-praktika jakin batzuk eskatzen dituzte (O'Brien et al., 1995). Zentzu horretan, Mojek (2008) dio ikasleek erreferentziazko diziplina-komunitateetan, hau da, ikasgaietan, ezagutza nola eraikitzen den ere ezagutu eta ulertu behar dutela.

Hizkuntzalaritza Sistemiko Funtzionalak (SFL) jakintza-arlo desberdinetako berbaldiak ezaugarritu ditu eta desberdintasunak identifikatu dira (Fang et al., 2008; Halliday eta Martin, 2003); Hizkuntza-eredu edo gramatika egitura horiek, hiztegi teknikoaren ezberdintasunak ez ezik, diziplinen izaera eta xedea sostengatzen duten beste hizkuntza desberdintasun batzuk ere badituzte (Shanahan eta Shanahan, 2012), baita hizkuntza desberdintasun horietatik harago doazen alderdiak ere, ikasgaietan ezagutza eraikitzeko moduekin zerikusia dutenak (Nikula, 2015).

> "Language differs in the discourses of different subject areas due to differences in the epistemologies of the disciplines as well as differences in methodologies and pedagogies. Each subject area of schooling has its own expectations in terms of the genres that students will read and write, and each genre is constructed through grammatical resources that construe the disciplinary meanings" (Schlepegrell, 2004:113).

Jakintza-arlo guztietako alfabetatzeak ez dira maila eta sakontasun berarekin aztertu. (Shanahan eta Shanahan, 2012) zientzia eta historiaren alfabetatzeak aztertu zituzten. Ildo beretik, Europako Kontseiluak curriculumeko edukien irakaskuntzaren hizkuntza-dimentsioa aztertu zuen eta 5 dokumentu argitaratu ziren hainbat arlori dagokien hizkuntza-eskakizunak jasotzen dituztenak (Beaco et al., 2010): *"Language and School Subjects"*; "*Language for the Learning/teaching History*"; "*For the Learning/teaching Sciences*"; "*For Learning/teaching Literature*"; "*For Learning/teaching Mathematics*". Beste arlo batzuetako alfabetatzeak, aldiz, gutxiago ikertu dira. Azken hilabeteetan Salvador-Garcia et al.-ek (2022) hezketa fisikoaren alfabetatzea aztertzeko ikerketa bat egin dute, eta ondorioztatu da instrukzio testuak gailentzen direla.

Lan horiek guztiek baieztatzen dute hizkuntza testuinguru sozialetik banaezina dela (Cummins, 2021) eta testuinguruak definitzen duela esanahiak eraikitzeko behar den hizkuntza (Green, 1988). Eskolan, jakintza-arloek ezartzen dute testuingurua (Polias, 2006), eta beraz, arlo bakoitzak osatzen duen azpikulturan ekoiztu, ulertu, interpretatu beharko du ikasleak (Moje, 2008). Hau da, jakintza-arlo horien genero bereizgarrien hizkuntza-eskakizunak arloko kulturaren testuinguruaren parte direnez (Llinares, 2015), ikasleak eskolako arloetan osoki parte hartzeko, alderdi linguistiko, kognitibo eta hizkuntzari dagozkion alderdi soziokultural espezifikoak manipulatu behar ditu (Scarcella, 2003).

Horrek guztiak eragin zuzena izan du diziplina horien ikaste-irakaste prozesuetan (Pellegrino eta Hilton, 2012). Jakintza-arloetako ezagutza eta trebetasunak curriculumean jasotzen dira eta ikasleak bere hezkuntza arautuaren ibilbidean bereganatu eta garatu behar ditu (Nikula et al., 2016). Gainera, jakintza-arloetako irakasleek beren irakasgaiari dagozkion edukien hizkuntza-dimentsioa ezagutu behar dute, eta ikasleek hizkuntza eta edukiarekin lotutako helburuak lortu ditzaten estrategiak eta teknikak erabiltzen jakin behar dute (Beacco et al., 2015). Modu berean, arloko alfabetatzea garatzeko, edukiaz gain, diziplinen berezkotasunak ere menperatu behar ditu ikasleak. Gainera, diziplinako edukia, neurri handi batean, hizkuntzaren bidez eskuratzen eta ebaluatzen denez, funtsezkoa da diziplinak ikasterakoan hizkuntzan ere arreta jartzea (Fang, 2012). Izan ere, ikasgai batean alfabetatzeak esan nahi du batetik, jakintza-arloko ezagutza eraikitzeko erabiltzen diren askotariko generoen ekoizle bihurtzea (Van Kampen et al., 2020); eta bestetik, gero eta gaitasun handiagoa izatea ikasgai horri dagozkion ezagutzak estilo egokian adierazteko, komunikazio-moduen berariazko helbururak lortzeko egokiak diren generoak erabiliz (Meyer et al., 2018; Coyle eta Meyer, 2021; Morton, 2020; Beacco et al., 2015). Genero bat erabiltzeko, testuaren egituraz gain, berariazko testu baliabide, gramatika eta hiztegia ere ezagutu behar dira, testu edo genero tipiko bakoitzak bere "hizkuntza-arauak" baititu (Morton, 2020). Zenbait genero, hala nola narratiba, deskribapena, azalpena eta argumentazioa, orokorrak dira ikasgaien artean (aldaketa batzuekin), eta, beraz, esan daiteke horiek ikastea oso baliagarria dela, arloen artean transferitu daitekeen ezagutza baita (Morton, 2020). Hala ere, ikasleek ulertu behar dute jakintza-arlo bakoitzeko testu-generoen ezaugarriak desberdinak direla, arloko kulturaren araberakoak (Llinares, 2015; Polias, 2006).

Hainbat adituk urteetan landu dute eskolan alfabetatzea nola irakatsi daitekeen (Veel, 1997; Coffin, 2006; Halliday eta Matthiessen, 2004; Llinares et al., 2012) eta azpimarratu dute ikaskuntza prozesua arrakastatsua izan dadin alfabetatze horiek esplizituki irakatsi behar direla. Edukiaren ikaskuntzak hizkuntzaren ikaskuntza dakarrela oinarri hartuta,

eta arloko alfabetatzearen garapena sustatzeko, irakasgaien hizkuntza-eskakizun espezifikoek makro mailako aldamiajea eskatzen dute, *"systemic" scaffolding* or *"hard" scaffolding* deiturikoa (Beacco et al., 2015). Modu horretan ikasleei kontzeptuen ezagutza (*conceptual knowledge*) berriak eskuratzen laguntzen zaie, ikasgaiaren berariazko trebetasun, estrategia eta lan egiteko modu berriak garatzearekin batera (Kniffka et al., 2019). Berariazko lanketa horren faltan ikasleek ikaskuntzan oztopoak izango dituzte (Coyle, 2020; Shanahan eta Shanahan, 2008), alfabetatze horiek eguneroko hizkuntzatik aldentzen baitira. Azken urteetan sortu den Pluriliteracies Teaching for Learning (PTL) ereduak ere (Meyer, 2015) arloko alfabetatzeak jartzen ditu ikaskuntza sakonagoaren erdigunean, eta horiek lantzeko eta irakasteko eredu berri bat proposatzen du. Eredu horrek edukiaren eta hizkuntzaren arteko integrazioa jartzen du arloko alfabetizazioak lantzeko gakotzat. Izan ere, jakintza arloetan ezagutzak eraikitzeko, edukia eta hizkuntza beharrezkoak dira (Dalton-Puffer, 2007). Hurrengo atalean sakonduko da ikuspegi horretan.

Laburbilduz, jakintza modu aktiboan eraikitzeko eta irakasgaiaren alfabetatze espezifikoak sustatzeko, ikasleak edukia kontzeptualizatu behar du, ikasgaiaren kulturara egokituta. Irakasgaiaren Kulturak zehazten du nola erabiltzen den Kognizioa edukia Kontzeptualizatzeko eta nola erabiltzen den Komunikazioa ezagutza elkarrekin eraikitzeko (van Kampen et al., 2021), hurrengo atalean ikusiko dugun Coyle-ren (2007) 4C teoriarekin bat datorrena.

3.2. HIZKUNTZAREN ETA ARLOAREN ARTEKO INTEGRAZIOA

"Learning the content is equivalent to learning the language, and these two aspects are actually two sides of the same coin"

Tang (2019)

Dalton-Puffer et al. (2010) autoreen arabera, teoria soziokulturalak CLIL testuinguruetan ikaskuntza ulertzeko ikuspegia eta oinarria ematen du. Hizkuntza eta edukien integrazioaren azterketa orokorrago eta sakonago bat egin ahal izateko, ikuspegi soziokulturala Systemic Functional Linguistic (SFL) ikuspegiarekin osatzea gomendatzen da (Morton eta Llinares, 2017; Llinares et al., 2012). SFLk hizkuntza entitate sistemiko gisa ulertzen du, hizkuntzaren erabiltzaileek baliabide-lexiko gramatikal desberdinen artean aukera dezaketelako (Halliday eta Matthiessen, 2014). Beraz, bi teoria hauek osagarriak dira (Bauer-Marschallinger, 2022).

Hizkuntzaren eta edukiaren integrazioa soziologo, pedagogo eta hizkuntzalarien kezka orokorra izan da hainbat hamarkadatan (Nikula, et al., 2016). Bai SFL ikuspegian, eta

bai ikuspegi soziokulturalean hizkuntza modu berean ulertzen da, eta hizkuntzaren ikaskuntza eta erabilera ikasgelako helburu pedagogikoekin lotzen da (Nikula et al., 2013). Ikuspegi soziokulturalak (Vygotsky, 1978) eredu interesgarriak eskaintzen ditu ikasgelako diskurtsoan ezagutzaren eraikuntza aztertzeko (aldamiajearen ideia esaterako), eta SFLk (Halliday, 1978) xehetasunez deskribatzen du egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntzaren erabilera. Beraz, hizkuntzaren ikuspegia esanahi, funtzio eta testuinguruei lotuta dagoenez, SFL egokia da edukia eta hizkuntzaren integrazioa ulertzeko eta aztertzeko (Llinares eta McCabe, 2020). Azken bi hamarkadetan mundu osoko hezkuntza-testuinguru desberdinetan egindako ikerketek erakutsi dute SFL ikuspegia eraginkorra dela hizkuntzaren eta edukiaren analisi integratua egiteko (Nikula et al., 2013).

SFLk eta ikuspegi soziokulturalak defendatzen dute hizkuntza-egiturak irakasteak, aldi berean, irakasgai akademikoa irakastea dakarrela (Schleppegrell eta O'Hallaron, 2011; (Mortimer eta Scott, 2003), forma eta edukia banaezinak baitira (Kelso, 1995). Atalaren hasieran agertzen den aipuan Tang-ek (2019) ere aipatzen du, hizkuntza eta edukia txanpon beraren bi aldeak direla. Hala ere, bereizketa bat egiten du:

> "At a lower level of language, lexico-grammar is easier to delineate content from the language aspect: grammar, spelling, punctuation and noun phrases. However, at a higher level of language (text-level) that deals with the thematic patterns and genres of science, it is not so easy to make the distinction. Therefore, in scenarios that involve higher levels of language, it may not be feasible to separate content and language as distinct objectives or foci, for both analytical and pedagogical purposes" (Tang, 2019:11).

3.2.1. Hizkuntza eta edukiak integratzeko ikaste-irakaste metodoak

Hizkuntza eta edukiak integratzen dituzten metodo edo programa ugari daude: CLIL, murgiltzea, edukietan oinarritutako ikaskuntza (CBI), hezkuntza elebiduna… Europan CLIL da ezagunena. CLIL hezkuntza-ikuspegi duala da, non hizkuntza gehigarri bat erabiltzen den edukia nahiz hizkuntza ikasteko eta irakasteko (Coyle et al., 2010; Marsh, 2002). Cenoz et al.,-ek (2014) azpimarratzen dute zaila dela zenbait kasutan CLIL eta CLIL ez diren ikaste-testuinguruak bereiztea, CLIL ereduek duten aniztasunagatik, eta horiek edukiak eta hizkuntza integratzen dituzten beste programa batzuekin duten antzekotasunengatik, hala nola murgiltze ereduarekin; hala ere, Lasagabasterrek eta Sierrak (2011) diote bi horien artean alde nabarmenak daudela. Edonola ere, edukia eta hizkuntza gelako praktikan orekatzeko eta integratzeko moduari erreparatzea

garrantzitsua da bi programetan (Villabona eta Cenoz, 2022). Modu berean, Cenozek (2015) dio CLIL eta CBI programek ere ezaugarri berberak dituztela eta ez direla pedagogikoki desberdinak; horregatik, CLIL eta CBI sinonimotzat erabili izan dira sarritan, CLIL terminoa da Europan hedatuena izanik, eta CBI, berriz, Estatu Batuetan eta Kanadan. Beraz, ikus daitekeenez, CLIL modu askotara uler daiteke, eta ondorioz, nahasmena sor dezake irakurleen artean (Lasagabaster eta Sierra, 2011).

CLIL akronimoa termino generiko gisa erabiltzen da hizkuntza ikasgaiak ez diren beste ikasgai jakin batzuk irakasteko bigarren hizkuntza bat (atzerrikoa, zein estatuko beste hizkuntza ofizial bat) erabiltzen duten irakaskuntza mota guztiak deskribatzeko (Eurydice, 2006); eta horregatik, dozena bat hezkuntza-ikuspegi biltzen ditu: murgiltzea, hezkuntza elebiduna, hezkuntza eleanitza, besteak beste (Mehisto et al., 2008). Ikuspegi horien inplementazioan ez dago alde handirik, eta esan daiteke CLILen egin diren ikerketako ondorioak beste metodoetan ere kontuan hartu daitezkeela (Cenoz, 2015). Hala ere, metodoen artean badaude zenbait ñabardura orokor (Dalton-Puffer eta Nikula, 2014; Ruiz de Zarobe eta Cenoz, 2015), esaterako, murgiltze programetan hizkuntza beikularra edo irakaskuntza-hizkuntza ikasleen testuinguruan badago, hau da, etxeetan edo gizartean hitz egiten da. CLIL programetan, aldiz, CLILen irakaskuntza-hizkuntza ikasleen lehenengo hizkuntza ez den bestelako edozein hizkuntza izan daitekeen arren, CLIL programetan ingelesa bihurtu da atzerriko hizkuntza nagusia (Lasagabaster eta Sierra, 2011; Dalton-Puffer et al., 2010), eta ikasle askok hezkuntza formaleko testuinguruetan bakarrik dute hizkuntza horrekin harremana (Lasagabaster eta Sierra, 2011).

Coylen (1999) ustez, jakintza-arloak edukia eta hizkuntzaren bereizketatik harago doaz eta hori dela eta, hainbat mailatako integrazioa bereizteko eta CLILen pedagogien garapena bultzatzeko, 4C izeneko marko kontzeptuala garatu zuen ikuspegi holistiko batetik, eta teoria soziokulturalean oinarrituta, edukiaren (Content - jakintza-arloa), komunikazioaren (Communication - hizkuntza), kognizioaren (Cognition, ikaskuntza eta pentsamendua) eta kulturaren (Culture, norberaren eta bestearen kontzientzia soziala) arteko erlazioan oinarritzen da.

Irudia/Figure 9. 4C Markoa (Coyle, 2007:551)

4Cs teoriak iradokitzen du CLIL eraginkorra izatea lortzen dela ezagutzan, trebetasunetan eta edukiaren ulermenean aurrera eginez, prozesamendu kognitiboan parte hartuz, komunikazio-testuinguruan elkarrekintzan arituz, hizkuntza-ezagutza eta -trebetasun egokiak garatuz, eta kulturarteko kontzientzia sakonago baten esperientziaren bidez (Coyle, 1999).

4C horien artean, komunikazioak (*Communication*) CLIL irakasleak eta ikasleak inplikatzen ditu Language Triptych edo Hizkuntza Triptikoa (Coyle, 2007) deiturikoan. Hizkuntza Triptikoa irudikatze kontzeptual bat da hizkuntzaren eta eduki helburuak elkarri lotuta adierazteko (Martin del Pozo, 2016), eta horregatik, kontuan hartzea funtsezkoa da hizkuntzaren eta edukiaren arteko integrazioa gertatu dadin. Hizkuntza triptikoak harreman ikuspegi batetik hizkuntza nola ikasten den deskribatzeko hiru ikaskuntza modu bereizten ditu: ikaskuntzako hizkuntza (*language of learning*), ikaskuntzarako hizkuntza (*language for learning*) eta ikaskuntza bitarteko hizkuntza (*language through learning*). Hiru hizkuntza mota horiek eduki helburuak eta hizkuntza helburuek lotzen dituzte (Martin del Pozo, 2016).

Irudia/Figure 10. Language Tryptich (Coyle et al., 2010)

Mortonek (2020) horrela laburbiltzen du hizkuntza triptikoa osatzen duten hiru osagaiak edo alderdiak:

- Ikaskuntzako hizkuntza (*language of learning)* arlo bati buruz hitz egiteko eta idazteko beharrezkoak diren hitzei eta gramatikari dagokie, gehienetan terminologia espezifikoa. Hezkuntza elebiduneko programa gehienetan, hau izan da sarritan erabilitako hizkuntzaren kontzepzio bakarra.

- Ikaskuntzarako hizkuntza *(language for learning)* da ikasleek gelako jardueretan parte hartzeko behar duten hizkuntza. Adibidez, gai baten inguruan eztabaidatzeko ikasleek eman beharreko argudioak. CLIL testuinguru askotan, irakasleek ez diote arreta nahikorik jartzen ikaskuntzarako hizkuntzari, nola egin ez dakitelako edo eman behar duten edukia emateko denbora kentzen diela sentitzen dutelako.

- Azkenik, ikaskuntza bitarteko hizkuntza *(language through learning)* pentsatzeko trebetasunak (*thinking skills*) gelako jardueretan aplikatzean ikasten den hizkuntza berria da. Askotan zaila da aurreikustea, gerta baitaiteke ikasleek autonomoki lan egitea eta hori egitean hizkuntza berria ikastea.

CLILen akronomian "integrazio" hitza dagoen arren, "edukien eta hizkuntzen integrazioa" esamoldeak berak hizkuntzaren eta edukien bereizketa adierazten du (Dalton-Puffer, 2007), eta bereizketa horrek "hizkuntza" eta "edukia" zer den azaltzea eskatzen du, edukiaren eta hizkuntzaren arteko erlazioa argitzea edozein irakaskuntza eta ikaskuntza testuingurutarako beharrezkoa izanik (Nikula et al., 2016).

Edukien eta hizkuntzen irakaskuntzaren koordinazioaren garrantzia eztabaidaezina da, baina integrazio hori nola gelaratzen den ez dago hain argi (Pavón et al., 2015). Izan ere, orain arte aipatutako CLIL programek hizkuntzaren eta edukiaren integrazioaren oinarrizko ideia partekatzen dute, baina desberdin gelaratzen dira (Villabona eta Cenoz,

2022). Autore hauen arabera irakasleen *background* desberdinak, esperientzia, eta integrazioa ulertzeko moduak, besteak beste, izan daitezke CLIL programak desberdin aplikatzearen arrazoietako batzuk. Ruiz de Zarobek eta Cenozek (2015) ere aipatzen dute faktore soziokulturalek eta hezkuntzarekin lotutakoek eragina izan dezaketela, hala nola, programan parte hartzeko derrigortasuna, programen intentsitatea, edota hizkuntzarekin eta edukiarekin lotutako helburuak eta testuinguruak; izan ere, herrialde batetik bestera CLIL programetan desberdintasunak nabari daitezke, baita ikasgela batetik bestera ere.

Autore desberdinek *content-focused* edo *Hard CLIL*, eta *language-focused* edo *Soft CLIL* programak bereizten dituzte (Cenoz eta Villabona, 2022; Coyle, 2007). Lehenengoak esan nahi du helburu nagusia edukia dela, eta ez hizkuntza; eta bigarrenak, aldiz, helburua hizkuntza dela eta irakasgaiaren edukia hizkuntza-helburuaren mende dagoela.

Ildo beretik, Met-ek (1999), CBIn ere, mota desberdinak kokatzeko continuum bat proposatu zuen, continuumaren mutur batean edukia helburu duten programak kokatuz, eta hizkuntza helburu dutenak, beste muturrean.

Irudia/Figure 11. Edukia eta hizkuntzaren integrazioaren continuuma (Met, 1999)

Beraz, integrazioa ulertzeko modu asko daude, horrek zaildu egiten du praktika. Integrazioa modu sakonean gertatzen ez denean, ikasleek hizkuntza akademikoan gabeziak dituztela ikusi da (Meyer, 2015). Berriki, azpimarratu da integrazio kontzeptua jakintza-arlo desberdinetan garatu behar den hizkuntza gaitasunetara birbideratu behar dela (Nikula eta Moate, 2018). Horrek eskatzen du eguneroko hizkuntzatik hizkuntza akademikorako progresioa lantzea, hau da, eguneroko hizkuntza zehatz eta partekatutik, hizkuntzaren erabilera abstraktu eta teknikorako continuumean bidea erraztea (Forey eta Polias, 2017).

3.2.2. Integrazioa eskolatze hizkuntza ikasleen lehen hizkuntza denean

> "L1 competence must most probably be among the first
> causes for overall learning déficits"
> (Lorenzo eta Trujillo, 2017:183).

Hizkuntzaren eta edukiaren integrazioa atzerriko hizkuntzan gehiago ikertu bada ere (CLIL), lehen eta bigarren hizkuntzak ere kontuan hartu behar dira eskolatze hizkuntzak (*languages of schooling)* direlakoen baitan (Lorenzo eta Trujillo, 2017; Beacco et al., 2010). Horrek esan nahi du alfabetatzearen garapenak lehen hizkuntzaren irakaskuntzaren erdigunea ere izan behar duela (Halbach, 2022). Hori da, hain zuzen ere, Europako Kontseiluko Hizkuntza Politika Sailak egindako ohartarazpena, eta hizkuntzek eskolatzean duten eginkizunaz ohartarazteko hainbat ekimen egin ditu azken urteotan. Ikerketek erakusten dute hizkuntzari eta edukiari dagozkion helburuak eta gaitasunak curriculumean txirikordatzen direla (Lorenzo eta Trujillo, 2017). "The language dimension in all subjects" (Beacco et al., 2015) izeneko proiektuak eskolatze-hizkuntza aparteko irakasgaitzat hartu beharrean, irakasgai guztien funtsezko osagaitzat ulertzea proposatzen du (Pavón, 2018).

Gainera, eskolako jakintza-arlo guztietan ezagutza eraikitzea eremu formalean sortutako diskurtso zientifiko, artistiko eta teknikoak behar bezala adierazteko gaitasunaren mende dagoelako ideian oinarrituta (Moje, 2008; Green, 1988; Schleppegrell, 2004; Beacco et al., 2015), "Languages of schooling" hizkuntza-politikako lan-ildoa sortzen da, curriculumaren, konpetentzia-mailen eta ebaluazioaren inguruko ekimenak bultzatzeko eta hezkuntza hobetzeko helburuarekin. Languages of schooling-ek hizkuntzari ematen dio lehentasuna hezkuntza prozesu guztietan (Beacco et al. 2015), eta helburutzat du eskolako jarduera guztietan alfabetatzeari garrantzia ematea (Lorenzo eta Trujillo, 2017). Languages of schooling-en garapen koordinatuak eragin zuzena du hizkuntza akademikoaren aurrerapenean; izan ere, irakasgaien alfabetatze espezifikoak sustatzearen onurak atzerriko hizkuntzaren bidez irakasten diren irakasgaiekin lotutako diskurtso akademikoa hobetzetik harago doazela nabarmentzen da, eta, hain zuzen ere, ikasleen lehen hizkuntzaren bidez irakasten diren irakasgaietara zabal daitezkeela (Pavón, 2018).

Coylek eta Meyerrek (2021) *language of schooling*-en erronketan sakontzeko elementu linguistiko espezifikoak (*Subject-Specific Language*), orokorrak (*Generic Academic Language*) eta hizkuntza arrunta (*Colloquial language*) landu beharra adierazten dute. Eta gainera, Hallet-ek (2012) dio hizkuntza akademiko eta arruntaren artean joan-etorriak egin behar direla.

Irudia/Figure 12. Languages of schooling osatzen duten alderdiak (Coyle eta Meyer, 2021:77)

Hezkuntza eleanitzean egindako ikerketek adierazten dute, desberdintasunak desberdintasun, edukiak ikasteko moduak, egon daitezkeen oztopoak eta hizkuntza akademikoaren eskakizunak alderagarriak direla lehenengo zein bigarren hizkuntzan ikasi (Llinares eta Whittaker, 2010). Hala, CLILen egin diren integrazioari buruzko ikerketak katalizatzaileak izan dira, hizkuntzak (lehen, bigarren edo hirugarrena izan) edozein diziplinaren ikas-irakaskuntzan duen rolari buruzko kontzientziazioa areagotzeko (Llinares, 2015).

Ildo beretik, azpimarratzen da irakaskuntza-hizkuntza edozein delarik ere (lehen, bigarren edota enegarren hizkuntza) "language does not occur in a vacuum, and their natural occurence in education is a vis a vis the content areas" (Lorenzo eta Trujillo, 2017:182). Horregatik, irakaskuntza-hizkuntza lehen hizkuntza duten ikasleei ere irakatsi egin behar zaie erregistro eta kultura horietan komunikatzen. Hala ere, batzuetan jakintzat ematen da ikasleek lehen irakaskuntza-hizkuntza ezarritako helburuak lortuko dituztela, eta hizkuntza horren bidez irakasten diren irakasgaien alfabetatze akademikoak automatikoki garatuko dituztela soilik irakaskuntza-hizkuntza ikasleen lehen hizkuntza delako (Pavón eta Perez, 2018).

Irakaskuntza-hizkuntza edozein delarik ere, komunikazioa ikaskuntzarako bide bat da (Lorenzo eta Trujillo, 2017). Ikasleen lehenengo hizkuntza-gaitasunean (L1) zailtasunak izatea ikaskuntzaren defizitaren arrazoietako bat dela diote Lorenzok eta Trujillok (2017). Ikasle batzuen ikaskuntza-emaitza txarren arrazoia ikaskuntza-arazoen edo eraginkortasunik gabeko ikaskuntza-estilo eta estrategia batzuen ondorioa dela pentsa liteke, nahiz eta ziurrenik hizkuntza-gaitasun akademiko desegokiaren ondorio izan (Pavón, 2018).

Hurrengo atalean PTDL markoa aurkeztuko da, atal honetan aurkeztu diren hizkuntzaren eta edukiaren integrazioak sortzen dituen oztopo eta zailtasunei aurre egiteko sortu den markoa, zeinak arloko alfabetatzea jartzen duen ikaskuntza sakonagoaren erdigunean, eskolatze-hizkuntza edozein delarik ere.

3.3.   PTDL MARKOA

3.3.1. PTDL markoaren jatorria

Tradizionalki hizkuntzakoak jotzen ez diren jakintza-arloetan, hala nola matematika, gizarte-zientziak, artea edo zientzia esperientalak, irakasgaiaren edukian jarri izan da arreta (Gibbons, 1991). Oro har, ez hizkuntza irakasleek ez irakasgaietako irakasleek ez diote arretarik jartzen hizkuntzak ikaste prozesuan duen eginkizunari (Coyle, 2015). Horrek ekarri du hizkuntza eta edukiak integratzen dituzten ereduetan integrazioaren kontzeptua modu desberdinetan ulertzea eta inplementatzea (Nikula et al. 2016), eta ondorioz, ikasleek hizkuntza akademikoan gabeziak izatea (Meyer eta Coyle, 2017), lehenengo zein bigarren hizkuntzan.

Aurreko atalean ikusi dugu hizkuntza akademikoan gabeziak izateak ikaste prozesuan zailtasunak izatea dakarrela. Hutsune horri aurre egiteko, eta ikasleek arlo guztietan ikaskuntza sakonagoa[1] lortzeko helburuarekin, The Graz Group izeneko taldeak, Europako Kontseiluko Hizkuntza Modernoen Europako Zentroak finantzatutako CLIL aditu eta ikertzaile taldeak, Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) eredua sortu zuen (Meyer eta Coyle, 2017).

> "A pluriliteracies approach acknowledges that learning a subject is about so much more than simply learning content. It is based on the idea that education is a developmental activity. Therefore, learning a subject is not about reciting facts but about learners deepening their conceptual understanding which may eventually lead to the development of transferable skills and to new ways of thinking" (Meyer, 2015:2)

PTDL markoak, arloetan ikasitakoa hizkuntzara ekartzeak garapen kontzeptuala laguntzen duelako ideian oinarrituta, (Coyle eta Meyer, 2021) eta arloko alfabetatzea (*subject-specific literacy*) ikaskuntzaren erdigunean jarriz, ikaskuntza sakonagoa lortzea du helburu (Meyer, 2015; Coyle, 2015). Izan ere, arloko alfabetatzeak funtsezkoak dira ikaskuntza sakonagoa lortzeko eta trebetasun transferigarriak garatzeko (Meyer et al.,

---

[1] PTDL markoan ingelesez hasieran *deep learning* erabiltzen zen eta ondoren *deeper learning* nagusitu da kontzeptu gisa ikaskuntza sakona(goa)ri erreferentzia egiteko.

2015). Markoak ikaskuntza sakonagoaren prozesuan eragina duten alderdiak jasotzen ditu, atal honetan zehar aurkeztuko direnak, hala nola, ikaskuntza sakonagoa garatzeko aktibatzen diren prozesu kognitibo diskurtsiboak, eta ikaskuntza sakonagoa sustatzen duten faktoreak, esaterako ikasleen eta irakasleen atxikimendua (Coyle eta Meyer, 2021).

Pluriliteracies modeloaren ekarpenetako bat da marko honek edozein ikasgai edozein hizkuntzatan irakasteko balio duela (San Isidro, 2018), eta beraz, egokia izan daiteke lehenengo, bigarren zein hirugarren hizkuntzan ikasten duten ikasleak dauden testuinguruetarako ere (Coyle et al., 2017).

PTDL markoa ondo ulertzeko, lehenik eta behin ikaskuntza sakonagoa lortzeko ikasleek egin behar duten prozesua azalduko da, eta ostean, PTDL modeloa osatzen duten alderdi guztiak aurkeztuko dira.

3.3.2. Ikaskuntza sakonagoa helburu

Lehenengo kapituluan ikusi dugu ikasleek bizitzarako prestatzeko hainbat gaitasun garatu behar dituztela eskolan. Gainera, eskolan garatzen dituzten konpetentzia horiek bizitzako testuinguru desberdinetan kontzienteki aplikatzeko, hau da, transferitzeko, gaitasuna ere garatu behar dute, eta transferentzia kontziente horri Pellegrino eta Hilton-ek (2012:5) ikaskuntza sakonagoa deritzo: "the process through which an individual becomes capable of taking what was learned in one situation and applying it to new situation (i.e. transfer)."

Beraz, ikaskuntza sakonagoa lortzeko ikasleek jakintza arloei dagokien konpetentziak eta edukiak testuinguru desberdinetara transferitzeko gaitasuna garatu behar dute (Coyle eta Meyer, 2021), hau da, sortzen diren arazoei eta galderei erantzuteko garatutako ezagutza noiz, nola eta zergatik aplikatu behar duten jakin behar dute. PTDL markoaren arabera, ezagutzaren transferentzia hori egiteko gaitasuna, jakintza-arloetan ezagutza eraikitzeko gaitasunaren araberakoa izango da. Izan ere, ezagutzen transferentzia gertatzeko ezinbestekoa da transferituko den hori barneratuta izatea (Lantolf eta Poehner, 2014).

Vygotskyn oinarrituta, Meyerrek (2015) ezagutza internalizatzeko prozesua hiru fasetan gertatzen dela azaltzen du.

Irudia/Figure 13. Barneratze prozesua (Meyer, 2015)

Hasteko, ezagutza berriarekin topo egiten dugunean azaleko mailan gaudela esaten da (*surface level*) (Lantolf and Poehner, 2014), ikaskuntza beti azaleko mailatik hasten baita (Meyer, 2015). Ezagutza edo eduki berri hori ulertzeko, eduki berrien eta aurretik ikasitakoaren artean loturak egitea beharrezkoa da. Loturak egiteko fase horr fase materiala (*material phase*) deritzo. Behin ideien arteko loturak eginda daudenean, ikasleek ulertu duten hori hitzez adierazi behar dute (ahozko fase aedo *verbal phase*). Berbalizatzea diogunean beste pertsona bati kontatzea izan daiteke edo nork bere buruari (Coyle eta Meyer, 2021). Izan ere, "Learners gain control over a concept when it is used through language" (Coyle eta Meyer: 48). Berbalizazio horrek kontzeptuaren abstrakziora eramango du ikaslea. Abstrakziora iristeak esan nahi du ikaslea fase mentalean (*mental phase*) dagoela eta ondorioz, eraikitako ezagutza testuinguru desberdinetan erabiltzeko gaitasuna garatu duela, hau da, ikaskuntza sakonagora iritsi dela.

Beraz, ikasleak ez dira ikaskuntza sakonagora automatikoki iritsiko. Arloko alfabetatzeak garatzeko behar diren gaitasun kognitiboak ez ezik, ikaskuntza sakonagora iristeko ikasteko testuinguruak ikuspegi holistikoago batetik sortu behar dira (Coyle eta Meyer, 2021). Hau da, ezagutzak eraikitzeko eta horiek berbalizatzeko behar diren gaitasun kognitiboez gain, kontuan hartu behar dira ere ikasle zein irakasleen gaitasun ez kognitiboak eta garapen pertsonala.

3.3.3. Aurretiazko ezaugarriak Deeper Learning Agendan

Meyer et al. (2018) Biggs-en 3P ereduan (Biggs, 1989) oinarrituta, ikaskuntza sakonago baterako *ikerketa-agenda (research agenda)* bat proposatu zuten (13. irudia). 3P ereduak edozein ikaste- eta irakaste-prozesutan eragina duten faktoreak biltzen ditu (Freeth eta Reeves, 2004). Meyer et al.-ek (2018) diote irakasleen eta ikasleen aurretiazko esperientziek, jarrerek eta pertzepzioek (Presage) eragina dutela, besteak beste, irakasleak irakaste prozesuan zehar hartzen dituen erabakietan, materiala diseinatzerakoan, bai eta zehaztutako zereginetan ikasleek modu aktiboan parte hartzeko jartzen duten gogoan ere (Prozesuak), horrek guztiak ikaskuntzaren kalitatean eraginez (Produktua).

Irudia/Figure 14. Deeper Learning Agenda (Meyer et al., 2018:253)

Eredua 3 fasetan egituratzen da: *presage*, prozesua eta produktua. Fase bakoitza hainbat faktorek osatzen dute, eta, faktore horiek aldi berean, beste faseetako faktoreekin, eta baita fase berdineko faktoreen artean txirikordatuta daude; hau da, presage-eko faktore batzuek eragin zuzena izango dute produktuan, baina baita presage-eko beste faktore batzuengan ere. 3P eredua ikaskuntza hobetzeko ikuspegi gisa erabil daiteke, eta garrantzitsua da eredua osatzen duten alderdi guztiak kontuan hartzea irakaskuntzaren hobekuntza diseinatzean (Biggs, 1989). Izan ere, sistema interaktiboa da, eta beraz, Presage-a, Prozesua eta Produktuan aldaketak egonez gero, sistema osoari eragingo lioke (Biggs, 1993).

Ikasle eta irakasleek ikaskuntzaren potentzial ekologikoa partekatzen eta ulertzen dutenean, ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako espazio partekatuak sortzen dira, eta horrek modu positiboan eragiten du ikaskuntzaren kalitatean (Meyer et al., 2018).

Deeper learning agendan aurretiazko ezaugarriak (*presage*) azaltzen dira. Ezaugarri horiek ikaskuntza prozesua hasi aurretik dauden faktoreak dira (Zhang, 2000), eta horiek eragina dute ikaskuntza prozesuaren diseinuan, garapenean eta ikaste-emaitzetan (Biggs, 1993; Freeth eta Reeves, 2004), hau da, irakasleek eguneroko errutinan hartzen dituzten erabakietan (Meyer et al., 2018). Askotan presage-ak duen eraginari ez zaio arreta nahikoa jartzen (Freeth eta Reeves, 2004), baina irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko, ikasgeletan irakasle eta ikasleen artean gertatzen dena ulertzea izan behar da abiapuntua (Whitehead, 1968).

3P modeloaren lehenengo fasean kokatzen diren faktoreak hiru kategoriatan sailkatzen dira: ikasleen ezaugarriak, irakasleen ezaugarriak eta testuinguruaren ezaugarriak (Freeth eta Reeves, 2004). Irakaslearen ezaugarriek, ikasleen ezaugarriekin eta irakaskuntzaren testuinguruarekin konbinatuta eta elkarreraginean, eragina dute ikasteko sortzen diren espazioetan (*learning spaces*) (Schiefele eta Schaffner 2015). Izan ere, gelako ekosistema ikasleek, irakasleek eta irakaste-testuinguruak osatzen dute (Biggs, 1993).

Irakasleen prestakuntzak, esperientziak eta sinesmenak irakasleek aldez aurretik duten ezagutzaren parte dira, eta plangintzan eta gelan hartzen diren erabakietan eragiten dute. Irakaskuntza prozesua irakasleen usteetatik abiatuko da, eta hori ulertzeko ezinbestekoa izango da irakasleen usteak ezagutzea, irakasleen prozesu mentalek irakasleek ikasleekiko dituzten jarreretan eta egitekoetan eragiten baitute. Ezaugarri eta uste horien eraginez, irakasleek modu zehatz batean jokatuko dute ikasgelan eta guzti horrek eragin zuzena izango du irakaste-prozesuan (Ahmad, 2008). Irakasleek ikasleekiko dituzten pertzepzioek ere eragina izango dute gelan (Freeth eta Reeves, 2004), baita ikasleek ikasteko duten gaitasunari buruz dituzten pertzepzioek ere eragingo dute ikasleek ikasgelan duten portaeran, erabaki metodologikoetan, eta duten inplikazioan (Freeth eta Reeves, 2004). Modu berean, ikasleek irakaskuntzaren testuinguruari buruz dituzten pertzepzioek zuzenean eragiten dute ikasleen aurreko jarreretan (*predispositions*), bai eta hartu behar dituzten erabakietan ere (Biggs, 1993).

Beraz, hezkuntza-esperientziak sakonago ulertzeko, ikasle eta irakasleen ahotsak ezagutzea funtsezkoa da (Lourenço et al., 2017). Irakasleen ahotsak entzuteak irakasleek ikaskuntza sakonagoa lortzea helburu duen testuinguru batean irakasten

dutenean nabarmentzen dituzten aurretiazko baldintzak (*presage*) identifikatzea ahalbidetu lezake.

Orain arteko ataletan azaldu da PTDL markoaren barruan ikasle eta irakasleen rolak zeintzuk diren, zein ezaugarri izan behar dituen bakoitzak, eta ikaskuntza sakonagoa sustatzeko testuinguruak nolakoak izan behar diren azaldu bada ere, hurrengo lerroetan presage-a osatzen duten ikasleen ezaugarriak, irakasleen ezaugarriak eta irakaste-testuinguruaren ezaugarriak zehatzago deskribatuko dira.

3.3.3.1. Ikasleen ezaugarriak

Ikaskuntza sakonagoaren prozesuan, ikasleen zenbait ezaugarrik arreta berezia hartzen dute, hala nola, ikasleek dituzten aurrezagutzek, erresilientziak, motibazioak, zeharkako gaitasunek (*generic skills* edo *soft skills* ere deituak), gaitasun kognitiboek eta gaitasun sozialek. Izan ere, ikasleen ezaugarriek eragin zuzena dute ikaste-prozesuetan, irakaslearen jardunean, eta ondorioz, emaitza akademikoetan (Garro et al., 2020).

Lehenengo atalean ikusi dugun moduan, azken hamarkadetan XXI. mendean bizitzeko ikasleek garatu behar dituzten konpetentzien eta gaitasunen irakaskuntzan jarri da arreta. Gaitasun kognitiboez gain, ikasleen generic skillsak and social skillsak ere ezinbestekoak direla ikaskuntza sakonagoa eta ondorioz arrakasta akademikoa lortzeko; gaitasun horiek Pellegrinok eta Hiltonek (2012) bereizten dituzten cognitive, intrapersonal eta interpersonal domainekin lotzen dira (1. atalean definituak).

Gaitasun horiek guztiek garatzen laguntzeko, eskoletan ikasleei zailtasunen aurrean erresilienteagoak izaten ere laguntzen zaie (OECD, 2016). Erresilientzia egoera zailei, erronkei edo zailtasunei aurre egiteko gaitasuna da (Cahill et al., 2014), eta ikaste-prozesuan eragina duen beste gakoetako bat da. Erresilientzia garatzeko, ikasleek hainbat esperientzia konplexuri egin behar diete aurre. Ungar et al.,-ek (2014) adierazten dute badirela zenbait froga esateko eskolek ahalmen handia dutela ikasleen hazkundean eta garapenean positiboki eragiteko, eta beraz, eskolak eragin esanguratsua izan dezakeela erresilientziaren garapenean. Bandurak (1997) autoefikaziaren kontzeptuarekin lotzen du erresilientzia, errendimendu akademikoa ikasleen erresilientziaren adierazletzat jo baitaiteke.

Beraz, ikasleen aurrezagutzek, helburuek, sinesmenek eta ikasgelara ekartzen dituzten esperientziek modu zuzenean eragiten dute ikasleen ikaste-prozesuan. Ikaskuntza sakonagoaren prozesuan, ezinbestekoa izango da ikasleek jasotzen duten informazio berria antolatzea eta aurretik eraikitako ezagutzarekin integratzea, aurretik sortutako

egitura mentalak osatuz eta berriak sortuz (Novak, 2002; Pellegrino, 2017). Izan ere, modu isolatuan irakasten diren edukiek ez dute laguntzen ikaskuntza sakonera iristen (Biggs, 1989).

Azkenik, motibazioa beharrezkoa da orain arte aipatutako konpetentziak garatzeko. Motibazioa ikasleak ikasgai jakin batekiko (matematika, zientziak edo hizkuntzak, esaterako) edo ikasgai multzo batekiko (adibidez, diziplina arteko proiektuak) duen interesa da, eta prozesu kognitiboak eta afektiboak barne hartzen ditu (Keller et al., 2017). Ikaslea motibatuta badago, modu aktiboan hartuko du parte bere ikaste-prozesuan (Biggs, 1989). Hainbat autorek aipatzen dute ikasleek sakonago ikasten dutela landutako gaiak beren bizitzarekin eta interes pertsonalekin lotura badute, arazoak taldean ebazten badira, eta arreta ikasleak garatzen ari diren ezagutzetan eta konpetentzietan jartzen bada, ez bakarrik azken kalifikazioan. Hainbat autorek ikasleen motibazioan modu positiboan eragiten duten alderdiak aipatzen dituzte. Esaterako, Brooks et al.-ek (2012) diote ikasleak zenbat eta seguruago eta konprometituago egon, orduan eta motibatuago egongo direla baldintza akademikoak betetzeko, eta Biggs eta Tangek (2011) helburu argiak zehaztea ere beharrezkoa dela ikasleen motibazioan eragiteko. Beraz, ikasleek ikaskuntza sakonagoa lortzea nahi bada, motibazioa sustatu behar da.

3.3.3.2. Irakasleen ezaugarriak

Jakintza-arloei dagozkien ezagutzak irakasteaz gain, ikusi da gaitasun intrapertsonalak eta interpertsonalak ikasgelan irakatsi eta ikas daitezkeela (Pellegrino eta Hilton, 2012). Izan ere, gazte askorentzat, eskola da gaitasun eta trebetasun horiek garatzeko leku bakarra. Horregatik, irakasleek ere zenbait gaitasun garatu behar dituzte ikasleei aipatutako gaitasunak garatzen lagundu ahal izateko, esaterako: motibazioa, ikasgaiaren ezagutza (*subject knowledge*), ezagutza profesionala (*professional knowledge*), helburuetarako orientazioa (*goal orientation*) eta diagnostikorako gaitasuna.

Irakasleek beren jakintza-arloari dagokion ezagutza sakona behar dute edukia modu eraginkorrean irakatsi ahal izateko (Biggs eta Tang, 2011). Horrez gain, bereziki garrantzitsua da irakasleek XXI. mendeko gaitasunak arlo independente gisa ez ulertzea, baizik eta ikasgai guztietan txertatu beharreko gaitasun gisa (Larson eta Northern, 2012). Gainera, Meyer et al.-ek (2015) diote arloko hizkuntzan arreta jartzea ezinbestekoa dela irakasgaien alfabetatze espezifikoa garatzeko; eta beraz, irakasleek beren jakintza-arloetako edukia menperatzeaz gain, arloari dagozkion testu-generoak

eta funtzio kognitibo diskurtsiboak ere menperatu behar ditu. Ildo beretik, Cammaratak eta Tedickek (2012) ezinbestekoa ikusten dute irakasleek hizkuntzak jakintza-arloaren ikaskuntzan eta irakaskuntzan betetzen duen rola ezagutzea. Askotan jakintzat ematen da irakasleek ezagutza hori badutela, baina autoreek adierazten dute irakasle gehienek ez dutela hizkuntza eta edukia integratzeko behar den hizkuntza-ezagutzarik.

Dalton-Puffer et al., (2018) autoreen arabera FKDak eta metahizkuntzaren azterketaren inguruan egin diren ikerketek erakutsi dute ikasle eta irakasleek horrekoki duten kontzientzia falta. Lan honetan bi metahizkuntza bereizten dira: aurretiazkoa (*pre-emptive*) eta ondorenekoa (*reactive*). Lehenengoak jarraian hizlariak erabiliko duen ekintza kognitibo diskurtsiboa aipatzeari egiten dio erreferentzia (Basturkmen, 2002). Eta bigarrenak, aldiz, aurretik erabilitako ekintza kognitibo diskurtsiboari (Dalton-Pufer et al., 2018). Lan horretan aipatzen denez, egindako ikerketa gutxietan irakasleek metahizkuntza gutxi erabiltzen dutela ondorioztatu da eta ikasleek ia ez dutela erabiltzen. Hu-k (2011) gaineratzen du metahizkuntza egitea eta hori egiteko beharrezko baliabideak izatea oso garrantzitsua del ikasleentzat.

Hala ere, irakaslearen rola gaiari buruzko ezagutzak izatetik harago doa. Hau da, irakaslearen zeregina ez da soilik ikasleei ezagutzak eta esanahiak eraikitzen laguntzea (Coyle eta Meyer, 2021), baizik eta prozedurazko ezagutzak eta alderdi pragmatikoarekin lotutakoak ere beharrezkoak dira (Leinhardt et al., 1995), *professional knowledge* deiturikoak. Irakasleen ezagutza pedagogikoak eragina du ikasleen ikaste-prozesuan eta errendimenduan (Ahmad, 2008). Beraz, irakaslearen rolak gaitasun pedagogikoa ere eskatzen du; horrek esan nahi du irakasleak irakaskuntza-estrategia desberdinak izan behar dituela, eta ikasleak ikaskuntza-progresioan non dauden diagnostikatzeko gaitasuna izan behar duela (Fullan eta Langworthy, 2014). Diagnostikorako gaitasuna irakasleek ikasleak behatzeko eta aztertzeko duten gaitasunari deritzo, hau da, ikasleen beharrak identifikatzeko gaitasunari, ikasleen ikaste-prozesua ahalik eta eraginkorrena eta esanguratsuena izan dadin (Pajares, 1992). Autore honek azpimarratzen du ikasleen gaitasunak identifikatuz bakarrik har daitezkeela erabaki pedagogikoak eta metodologikoak. Laburbilduz, irakasleek diagnostikatzeko kompetentzia garatuta izan behar dute, ikasleekin komunikazio egokia erabili ahal izateko, ikasleen progresioa aldamiatzeko, eta feedback-erako estrategiak aproposak erabiltzeko (Coyle eta Meyer, 2021). Modu honetan, irakasleek ezagutza profesionala garatzen doazen heinean, gidatzaile, erraztaile eta aktibatzaile rolak hartzen ditu (Fullan eta Langworthy, 2014).

Bestetik, motibazioa ikasleentzat funtsezkoa den bezala, irakasleek ere lanerako gogoa sentitu behar dute (*enthusiasm*). Poza, lilura, harrotasuna, harridura eta gogoa irakasteko motibazioaren arrazoietako batzuk dira, eta ikusi da, irakasleek autonomia eta autoeraginkortasuna dutenean, motibatuago daudela eta egokitzeko erronkei aurre egiteko gai direla (Skaalvik eta Skaalvik, 2014).

Azkenik, irakaskuntza eraginkorraren (*effective teaching*) ezaugarri dira ikaste-helburu argiak, ikasleen progresioa irakasteko eta neurtzeko moduekin lerrokatuta egon behar dutenak (Fullan eta Langworthy, 2014; Biggs eta Tang, 2011). Izan ere, helburu argiak dituen eta ikasleen progresioa ebaluatzen duen testuinguru antolatu bat eskaintzea garrantzitsua da ikasleen motibazioan eragiteko eta ikuspegi sakonak garatzeko (Biggs eta Tang, 2011).

3.3.3.3. Eskolatze testuingurua

XXI. mendeko konpetentzien garapenaren ardura hezkuntza sistema osora hedatzen da. Hezkuntzaren helburuak aldatzen ari dira, eta horrek dakar ikasteko testuinguruak, metodologiak eta ebaluatzeko estrategiak ere aldatzea (Silva, 2009). Ikasleek ikaskuntza sakonagoa lortzeko, ikasleei testuinguru errealak (Larson eta Miller, 2011) eta positiboak eskaini behar zaizkie, ezagutzen ikaskuntzara bultzatzen dutenak, eta gaitasun intrapersonal eta interpersonalen garapenean laguntzen dutenak (Pellegrino eta Hilton, 2012). Horrez gain, irakasleek jarduerak eta testuinguruak eraiki behar dituzte, ikasleek beren ikaste-prozesua aztertu eta ulertu dezaten (Garro et al., 2020).

Atal honetan ikaste-testuinguruari lotutako alderdi nagusiak aztertzen dira: ikaskuntza partekatua (*learning partnerhips),* taldearen osaera (*group composition*), antolamendu-alderdiak (*organizational aspects*), ongizatea (well-being), eta familia-ingurunea eta gizarte-laguntza (*family background eta social support*).

Mentoring rola duten irakasleek ikasleekin batera ikaskuntzaren aktibatzaile gisa jarduten dute (Fullan eta Langworthy, 2014). PTDL ereduak eskatzen du ikasleen eta irakasleen artean ikaskuntza partekatua (*learning partnership*) sortzea, ezagutzak eraikitzeko zein komunikatzeko eta garapen pertsonalaren prozesuetan elkarrekin aritzeko (Coyle eta Meyer, 2021). Ikasleek ikaste-prozesuetan aktiboki hartu behar dute parte zer eta nola ikasi behar duten erabakiz (Meyer et al. 2018). Horretarako irakasleek ikasleak seguru sentituko diren testuinguruak eskaini behar dituzte (Meyer et al., 2018), eta ikaskideekin elkarreragiteko eredu berriak sortu behar dituzte.

Ikaste-prozesua partekatua denean, eta ikasleek beren ikaskuntzaren ardura hartzen dutenean, ikasleen ongizatea hobetu egiten da (Fullan eta Langworthy, 2014). Ikerketek erakusten dute ikasleen ongizateak eragin zuzena duela ikasleen garapenean, hauen motibazioan eta lorpenetan eta osasunarekin lotura estua duela. Weintraub eta Erez (2009) autoreek ikasleen ongizatea lotzen dute ikasleek eskolara joateko duten gogoarekin, ikasle eta irakasleekin dituzten harremen positiboekin, eskolarekiko sentimendu positiboak erakustearekin eta fisikoki ondo sentitzearekin (Coyle eta Meyer, 2021). Eta Meyer et al. (2018) ongizatearen, motibazioaren, errendimenduaren eta autoeraginkortasunaren arteko erlazioaren garrantzia azpimarratzen dute.

Orain arte aipatutako alderdi guztiek antolakuntza-alderdiak (*organizational aspects*) kontuan hartzea eskatzen dute, hala nola espazio fisikoen antolaketa eta irakasleen arteko koordinazioa. Gainera, ikaskuntza sakonagoa helburu duten geletan proiektu eta jarduera asko talde-lanean egiten dira (Fullan eta Langworthy, 2014). Taldekatzeak egiteko aukera desberdinak daude (Pellegrino eta Hilton, 2012): talde heterogeneoak, ikasleen aniztasuna kontuan hartuta egiten direnak; eta homogeneoak, ezaugarri edo gaitasun berdinak partekatzen dituzten ikasleez osatutako taldeak. Bietan, taldekatzeak egiterakoan, taldekide guztien artean rolak banatzen dira: taldeko liderra, idazkaria, eta denbora kudeatzen duena, esaterako. Rol horiek betetzeko, ikasleek ezaugarri interpertsonalak behar dituzte ezagutzak modu kooperatiboan eraikitzeko, eztabaidatzeko eta elkarri feedbacka emateko, besteak beste (Huberman et al., 2014).

Azken alderdiari dagokionez, family backgroundak and social supportak ere eragina izan dezakete irakaskuntzaren testuinguruan (Biggs, 1989). Ikasleen estatus sozioekonomikoa eta curriculumetik kanpoko esperientziak kontuan hartu behar dira ikaste-irakaste testuinguruak diseinatzerakoan (Biggs, 1989). Izan ere, familiek eta ingurune sozialek ikaskuntzaren motibazioan eragiten dute; izan ere, beste pertsona batek ikaslearen emaitza akademiko onak baloratzen baditu, hezkuntzak garrantzia har dezake ikaslearentzat (Biggs eta Tang, 2011). Azkenik, familia-testuinguruetatik eratorritako ezagutzak ikasleen prior knowledge-aren ezaugarri pertsonalen parte dira, eta, beraz, kontuan hartu beharko dira hezkuntza-testuinguruetan.

3.3.4. Pluriliteracies Teaching for Learning (PTL) eredua

Pluriliteracies ikuspegia aurreko kapituluan azaldutako 4Cen (edukia, kultura, kognizioa eta komunikazioa) teorian oinarritzen da (Meyer et al., 2015). 4Cen teoria edukia eta hizkuntza baino harago doazen elementuak integratzeko garatu zen, baina ez du zehazten lau elementu horien integrazioa nola egin behar den. Pluriliteracies Teaching for Learning (PTL)[2] ereduak hutsune horri erantzuten dio, eta horrela integratzen ditu 4Cak osatzen dituzten lau kontzeptuak:

> "C-Content in and by itself is meaningless unless it is conceptualised. To actively construct knowledge and to promote subject-specific literacies, learners need to conceptualise content in ways that are appropriate to the subject C-Culture. As has been discussed previously, it is this subject C-Culture that determines how the C-Cognition is put to use in the way that C-Content will be conceptualised and how the C-Communication is used to (co-)construct knowledge" (Meyer et al., 2015:51).

PTLk arloko alfabetatzea kokatzen du ikaskuntza sakonagoaren erdigunean. Arloko alfabetatzea garatzeko eredua (14. irudia) bi continuum-ez osatzen da (Meyer et al., 2015): kontzeptualizazioaren continuuma (*conceptualising continuum*), eta komunikazioaren continuuma (*communicating continuum*). Eredu horren bidez erakutsi nahi da ikasleak gero eta konplexuagoak diren ezagutzak eta esanahiak eraikitzen dituela, hizkuntza erabiltzen eta garatzen duen bitartean (Coyle, 2015).

---

[2] PTL eredua (Meyer eta Coyle, 2017) bi continuumez osatzen da: conceptualising eta communicating continuum. 2018an PTL eredua garatu egin zen, eta PTDL sortu zen, lau ardatzez osatzen dena.

Irudia/Figure 15. Pluriliteracies Teaching Eredua (Meyer eta Coyle, 2017:205)

Irudian arloko alfabetatzea osatzen duten elementuak agertzen dira. Ikaste-prozesu sakonagoak ikasleek beren ulermena hizkuntzaren bitartez adierazten dutenean lortzen dira, kontzeptualizazioaren continuuma eta komunikazioaren continuumak lotuz (Meyer et al., 2015).

Kontzeptualizazioaren continuumari dagokionez, ezagutza bakarrik ez da nahikoa ikasgai edo diziplina batean aurrera egiteko. Edukiak ikasteak dakar kontzeptuak, datuak (*facts*) eta prozedurak ezagutzea eta ulertzea, ostean horiek erronka berrien aurrean praktikan jarri ahal izateko (Coyle, 2015). Pluriliteracies markoak tresnak eskaintzen dizkie irakasleei ikasleei ezagutza modu progresiboan garatzen lagundu diezaieten, eta modu berean, ikasleei ere estrategiak irakatsi behar zaizkie jakintza-arlo bakoitzean ohikoak diren zeregin gero eta konplexuagoak ebazteko gaitasuna garatu dezaten (Meyer et al., 2015).

PTDL markoan garrantzi handia hartzen du progresioaren kontzeptuak. Pellegrinok eta Hiltonek (2012:219) honela definitzen dute progresioa: "descriptions of successively more sophisticated ways of thinking about a topic that can follow one another as children learn about and investigate a topic over a broad span of time". Jakintza-arloko ulermenaren progresioa mugatua izango da, ikasleak arloko alfabetatzea garatzen ez badu. Hau da, edukiak, kontzeptuak eta datuak (*facts*) gero eta konplexuagoak izango dira eta ondorioz, horiek komunikatzeko behar den hizkuntza ere gero eta konplexuagoa izango da (Novak, 2002; Meyer et al., 2015).

Pluriliteracies terminoak, ikasleek hizkuntza batean baino gehiagotan alfabetatzeko gaitasuna adieraztzeaz gain, semiotika plurimodalak (*semiotic plurimodals*) menperatzea ere eskatzen du (Meyer et al., 2018; Coyle eta Meyer,2021). Izan ere, jakintza-arloen alfabetatzean hizkuntza idatzia gailentzen den formatua bada ere (Polias, 2006; Mohan et al., 2010), mundu digitalak izan duen inpaktua eta garapena kontuan izanik, ezagutza adierazteko eta zabaltzeko formatuak anitzak eta hibridoak dira, hau da, idatzizko testuez gain, audio, bideo edo grafiko bidez ere adierazten da ezagutza (Cazden et al., 1996), eta ondorioz, XXI. mendeak herritar alfabetizatu aniztunak eskatzen ditu, bai hizkuntzei dagokienez (*pluriliterate*), eta baita formatuei (*multiliterate*) dagokienez ere.

Hori horrela, PTL ereduari jarraituz, ikasleek arloetako ezagutza komunikatzeko gaitasuna garatu behar dute egoerari edo testuinguruari erantzuteko dagokion formatuan (ahoz, idatziz, grafiko edo irudi, taula, marrazki bidez), dagokion genero eta estiloa (formala edo informala) erabiliz eta komunikazio helburua kontuan hartuz (Meyer et al., 2021). Izan ere, Mohan eta Beckett-ek (2003) diote generoak ekoiztu ahal izateko, edukia eta hizkuntza beharrezkoak direla. Ikaslea, genero eta formatu desberdinak erabiltzeaz gain, gai izan behar da formatu eta genero desberdineko testu gero eta konplexuagoetatik informazioa interpretatzeko (Meyer et al., 2015). Horregatik, jakintza-arloetan alfabetatzeko, informazioa jakintza-arloari dagokion formatu guztietan eskaini behar da, eta ikasleak formatu horietatik informazioa interpretatzen eta formatu horietan ezagutza adierazten trebatu behar dira, formatu desberdinen artean joan-etorriak eginez (Nikula et al., 2013).

Eredu honek azpimarratzen du ikasleek bi continuumen arteko loturak egin behar dituztela. Lotura horiek arku forman irudikatzen dira irudian, eta ikasgai baten barruan ezagutzak eraikitzeko eremuetan parte hartzean gertatzen dira: egin, antolatu, azaldu eta eztabaidatu (*doing, organizing, explaining* eta *arguing)* (Meyer eta Coyle, 2017). Ekintza horiek Veel-ek (1997) proposatu zituen zientziako arloan ezagutza nola eraikitzen den aztertuz. Meyer et al.,-ek (2015) diote dio lau eremu horiek direla edozein jakintza-arlotan ezagutza eraikitzeko bidea. Ildo beretik, Poliasek (2006) eta Veel-ek (1997) diote lau eremu horien bitartez erakusten dela ezagutzaren eraikuntzaren progresioa.

"*Egin*" eremuaren helburua da teorikoki ikasitakoa zehaztea eta aplikatzea. "*Antolatu*" eremuan, irakasgaiaren edukiak idatzi eta sailkatu behar dira, eta egindakoaren ikuspegi orokorra izateko balio du. Ondoren, ikasleak bildutako informazioa ebaluatu behar du, ulertu ahal izateko. "*Azaldu*" ezagutza edo gertaerak definitzean eta azaltzean oinarritzen da, eta esanahien artean loturak egiteko balio du. Azkenik, ikaskuntzaren

ekintzarik konplexuena "argudiatzea" da. Hemen, ikasleek gai izan behar dute galderak argitzeko, kontzeptuak abstraitzeko eta beren argumentazioa behar bezala aurkezteko (Berg, 2020).

Beraz, PTL modeloak irudikatzen du continuum komunikatiboa (*communicating continuumean*) aurrera egin ahala ikasitakoa komunikatzeko behar den hizkuntza gero eta konplexuagoa izatea eskatzen zaiela. Hau da, irakasgaiaren berariazko ikaskuntzaren lau alderdi horietan parte hartzean (egin, antolatu, azaldu, argudiatu), ikasleek ezagutzaren continuumean aurrera egiten dute, irakasgaiaren alfabetatze espezifikoaren garapenean aurrera egiten duten bitartean, hasiberritik aditura (Meyer eta Coyle, 2017; Meyer et al., 2015; Coyle eta Meyer, 2021). Hau da, ezagutza gero eta modu konplexuagoan eta egokiagoan adierazten ikasi behar dute (Coyle, 2020). Hasiberri batekin alderatuta, ikasle aurreratuago batek gai jakin bati buruzko datu gehiago jakin beharko lituzke, irakasgaiaren eduki espezifikoaren ulermen kontzeptual sakonagoa izan beharko luke eta irakasgaiaren prozedurak eta estrategia espezifikoak hobeto menderatu beharko lituzke (Meyer eta Coyle, 2017).

Pellegrinok eta Hiltonek ere (2012) diote hasiberriek datuak (*facts*) unitate isolatu gisa gordetzeko joera dutela, ahalegin kontzientea egin behar dutela prozedurak aplikatzeko, eta problemak ebazteko estrategia orokorrak erabiltzen dituztela. Adituek, berriz, interkonektatutako sare batean gordetzen dituzte edukiak, oinarrizko prozedurak automatizatuz, eta ondorioz, ez dute ahaleginik egin behar prozedurak aplikatzeko; gainera, arazoak ebazteko estrategia espezifikoak erabiltzeko joera dute.

Ezagutza mota eta eremu (*domain*) desberdinek esateko modu desberdinak eskatzen dituzte. SFLk aipatzen dituen genero eta erregistroez gain, The Graz Group-eko autoreek azaltzen dute beste unitate txikiago batek (mikro-generoek) ondo funtziona lezakeela genero konplexuagoak eraikitzeko eta, bi continuumen arteko loturak eginez aurrera egiteko (Meyer et al., 2015; Meyer eta Coyle, 2017). "Mikro-genero" horiei "funtzio kognitibo diskurtsiboak" (FKD) esaten zaie, eta ikaskuntzaren dimentsio kognitiboak zein komunikatiboak integratzen dituzten funtzioak dira (Dalton-Puffer, 2013). Modu horretan, FKDek funtsezko zeregina betetzen dute ikaskuntza sakonagoaren prozesuan, FKDek diskurtso akademikoa egituratzen baitute (Dalton-Puffer, 2013).

Gainera, generoak beti ez dira egokiak edukia eta hizkuntza edozein testunigurutan integratzeko, batez ere arreta ahozko elkarrekintzan jartzen den saioetan (Bauer-Marschallinger, 2022). Kasu horietan erabilgarriagoak izan daitezke FKDak, unitate

txikiagoak baitira, eta generoek baino aletze xeheagoa azaltzen dute (Dalton-Puffer, 2013). FKDak konbinatuz testu luzeagoak eta espezifikoagoak sortu daitezke, eta horrek aukera ematen dio irakasleari ikasleen beharretara eta testuingurura malgutasun handiagoz egokitzeko (Meyer eta Coyle, 2017; Nashaat-Sobhy, 2018). Hurrengo irudian jasotzen da eremu bakoitzari dagozkion generoa eta FKDak.

Irudia/Figure 16. Funtzio kognitibo diskurtsiboak, operadoreak eta dagozkion generoak (Graz Group, 2015)

Label	Communicative Intention	Operators	Knowledge & Activity Domain	Corresponding Genres
Report	I tell you about something external to our immediate context on which I have a legitimate knowledge claim	Report, inform, recount, narrate, present, summarize, relate	Doing	- Experiments & Protocols - Lab Reports - Investigations - (Auto-) Biographical, Historical Recount - Historical Report
Describe	I tell you details of what can be seen (also metaphorically)	Describe, label, identify, name, specify	Organizing	- Descriptions - Comparisons - Compositions - Classifications - Historical Account
Classify	I tell you how we can put up the world according to certain ideas	Classify, compare, contrast, match, structure, categorize, subsume		
Explain	I give you reasons for and tell you cause/s of X	Explain, reason, express cause/effect, draw conclusions, deduce	Explaining	- Temporal explanations - Factorial/consequential explanations - Theoretical explanations
Define	I tell you about the extension of this object of specialist knowledge	Define, identify, characterize		
Explore	I tell you something that is potential/hypothetical	Explore, hypothesize, speculate, predict, guess, estimate, simulate, take other perspectives	Arguing	- Arguments (analytical, hortatory) - Discussions
Evaluate	I tell you what my position is vis a vis X.	Evaluate, judge, argue, justify, take a stance, critique, recommend, comment, reflect, appreciate		

Beraz, laburbilduz, Pluriltieracies Teaching for Deeper Learning ereduari dagokionez, jakintza-arloetan modu progresiboan alfabetatzeko, ikasleak eremu bakoitzari dagozkion testu-genero, eta funtzio kognitibo diskurtsibo jakin batzuk menperatu behar ditu (Dalton-Puffer, 2013; Meyer et al, 2015; Coyle eta Meyer, 2021).

Atal honetan aipatutako hainbat ideiek arreta sakonagoa behar dute, esaterako FKDak, eta FKD eta generoen arteko harremanak.

3.3.5. Funtzio kognitibo diskurtsiboak (FKD)

Hizkuntza ikaskuntzaren lehen mailako ebidentzia da (Mohan et al., 2010) eta ikaskuntza prozesua arrakastatsua izan dadin, ikasleek beren ezagutza eta ulermena modu egokian artikulatzeko gaitasuna garatu behar dute (van Kampen et al., 2020). Prozesu kognitiboak, pentsamendua bezala, zuzenean behatu ezin direnez (Morton, 2020), prozesu kognitiboak hizkuntzaren bidez azaleratzen dira, FKDen bidez hain zuzen (Dalton-Puffer, 2016). Funtzio kognitibo diskurtsiboen (FKD) konstruktoa Dalton-Pufferrek (2013) garatu zuen bi ikuspegitan oinarrituta: hizkuntzalaritza aplikatuan (*applied linguistics*) eta arloko hezkuntzan (*subject-specific education*). Autoreak honela definitu zituen FKDak:

> A zone of convergence between content and language pedagogies [...] as the cognitive processes involving subject-specific facts, concepts and categories are verbalized in recurring and patterned ways during the event of co-creating knowledge in the classroom. (Dalton-Puffer 2013: 216).

Bi ikuspegi horien bidez, curriculumeko jakintza-arlo guztietan jasotzen diren hizkuntza-eskakizunetan jartzen da arreta, jakintza-arloen eta hizkuntzaren pedagogiaren artean loturak eginez. Izan ere, orain arte arloetako irakasle askok uste izan dute ez dagokiela haiei hizkuntzaren lanketa (Evnitskaya, 2019; Morton, 2020). Mortonek (2020) dio, jakintza-arlo guztietako helburu gehienak ekintza kognitibo espezifikoak deskribatzen dituzten aditzen bidez adierazten direla, hala nola definitzea, ebaluatzea, azaltzea, deskribatzea… Eta gehitzen du, FKDak diziplinetako ikaste-helburu kognitiboen errepresentazio linguitsikoak izateaz gain (Dalton-Puffer, 2013), FKDek ikasleen alfabetzatze-maila ebaluatzeko ere balio dutela (Morton, 2020).

FKDak, beraz, edukiak, ezagutzak eta pentsamendu abstraktua edo kognizioa integratzen dituzten hitzezko errutinak dira (Dalton-Puffer, 2016). Ideia hau bat dator Zydatiss-en (2010) funtzio diskurtsiboen azalpenarekin:

Irudia/Figure 17. Eduki, pentsamendu eta hizkuntzaren arteko interdependientzia (Zydatiß, 2010:142)

Mortonek (2020) Zydatiss-en iruditik *denken* maila (kognizioa) *literacy*-rengatik ordezkatu zuen, eta FKDak jakintza-arloetako edukiaren, jakintza-arloei dagozkien alfabetatzeen, eta ezagutza eta pentsamenduak adierazteko erabiltzen den hizkuntzaren arteko zubi gisa irudikatu zituen (Morton, 2020). Azalpen honekin saihesten da CLILen azaleratzen den edukiaren eta hizkuntzaren arteko bereizketa.

Irudia/Figure 18. Ezagutza, alfabetatzea eta hizkuntzaren arteko erlazioa (Morton, 2020:9)

Funtzio kognitibo diskurtsiboen kontzeptua ez da berria. Urteetan zehar, hainbat autorek funtzio kognitiboak eta diskurtsiboak identifikatu dituzte. Ondorioz, hainbat marko sortu dira, eta horrek eragin du antzeko kontzeptuak izendatzeko etiketa desberdinak erabiltzea. Ikaskuntzaren dimentsio kognitiboa aztertzeko egin diren lanen artean, Bloomen taxonomia izan da hedatuena (Bloom, 1956), eta munduko leku askotan jarduerak diseinatzeko eta ikasketa-planak garatzeko balio izan du (Dalton-Puffer,

2013). Bloomek sei funtzio proposatzen ditu, konplexutasun kognitiboaren arabera hierarkiko ordenatuta, eta bi multzotan sailkatuta: behe mailako pentsamendu trebetasunak (*Lower Order Thinking Skills)* (gogoratu, ulertu, aplikatu) eta goi-mailako pentsamendu trebetasunak (*Higher Order Thinking Skills*) (aztertu, ebaluatu, sortu). 2001. Urtean Anderson eta Krathwohl-ek Bloomen taxonomiaren berrikuspena egin zuten. Berrikuspen horretan ekintza kognitiboen hierarkia lausotu eta bi dimentsioz osatutako matrizea proposatu zuten autoreek: ezagutzaren dimentsioa (*knowledge dimension)* eta prozesu kognitiboak (*cognitive process)*. Anderson eta Krathwohl-ek guztira 19 prozesu kognitibo identifikatu zituzten, horietako bakoitza Bloomen taxonomiako sei mailetako bati lotua. Ildo beretik, Biggsek eta Tangek (2011) ikaskuntzaren dimentsio kognitiboa adierazten duten aditzen hierarkia egituratu bat aurkeztu zuten unibertsitate mailako ikaste-emaitzak formulatzeko.

Bestetik, Europako eta AEBetako beste hainbat adituk ere derrigorrezko hezkuntzak dakartzan hizkuntza-eskakizunak aztertu dituzte. AEBn, Bailey-k eta Butler-ek (2003), Cumminsen BICS eta CALP bereizketan oinarrituta, jakintza-arlo desberdinetan agertzen diren hizkuntza-eskakizunak identifikatu zituzten, hala nola, azalpenak, deskribapenak eta konparaketak.

Europan, Europako Kontseiluak burututako "Language in Other Subjects" (Beacco et al., 2010) izeneko proiektuan hainbat jakintza-arloren hizkuntza-eskakizunak aztertu ziren, besteak beste, zientzia, matematika, geografia edo historia. Proiektu horren barruan, Beaccok (2010) 25 eragiketa kognitibo baino gehiago aipatu zituen (aztertu, inferitu, ilustratu, sailkatu, deskribatu, konparatu, azaldu, besteak beste), eta eragiketa kognitibo horietako bakoitzaren hizkuntza eskakizunak zehaztu zituen. Ildo beretik, testuinguru germaniarrean Vollmerrek (2010), beste aditu batzuekin batera, funtzio diskurtsibo akademikoen zerrendatik abiatuta, aditz zerrenda bat egin zuen, prozesu kognitiboen eta horien errepresentazio diskurtsibo gisa ulertu behar dena. Autore askok eta askok funtzioen zerrenda ugari argitaratu dituzte, eta orokorrean, esan daiteke, gehienak bat datozela hizkuntza akademikoaren funtzioetan arreta jartzea modu egokia dela edukiak ikasteko behar den hizkuntza-eskakizuna zehazteko (Bauer-Marschallinger, 2022).

Dalton-Pufferrek literaturan identifikatu diren *academic language functions* horiek aztertu eta zerrenda bakarra egin zuen. Funtzio batzuk errepikatu egiten dira autoreen zerrenda desberdinetan, beste batzuk, aldiz, autore batek edo bik bakarrik aipatzen dute. Guztira 54 aditzez osatutako zerrenda egin zuen, Dalton-Puffer (2013) lanean jasota dagoena. 54 funtzio horiek helburu komunikatiboaren arabera antolatu zituen, 7 kategoria sortuz: *report, describe, define, classify, explain, explore* eta *evaluate*. Ostean, CLASSIFY

kategoria CATEGORISE bihurtu zen (Evnitskaya eta Dalton-Puffer, 2020). Lan honetan CATEGORISE erabiliko da.

Hurrengo irudian ikus daiteke FKDak antolatzeko 7 FKD motak, kategoria bakoitzaren asmo komunikatiboa, eta kategoria osatzen duten aditzak. Sailkapen honek ez du FKD moten arteko hierarkiariarik adierazten funtzioen konplexutasunari dagokionez, konplexutasun-maila eragiketaren testuinguruaren araberakoa delako, eta hierarkia hori zehazten duen oinarri zientifikorik ez dagoelako (Dalton-Puffer et al., 2018).

Irudia/Figure 19. Funtzio kognitibo diskurtsiboak (Dalton-Puffer, 2018)

underlying basic communicative intention	CDF TYPE	performative verbs
I tell you how we can cut up the world according to certain ideas	CLASSIFY	*classify, compare, contrast, match, structure, categorize, subsume*
I tell you about the extension of this object of specialist knowledge	DEFINE	*define, identify, characterize*
I tell you details of what I can see (also metaphorically)	DESCRIBE	*describe, label, identify, name, specify*
I tell you what my position is vis a vis X	EVALUATE	*evaluate, judge, argue, justify, take a stance, critique, comment, reflect*
I tell you about the causes or motives of X	EXPLAIN	*explain, reason, express cause/effect, draw conclusions, deduce*
I tell you something that is potential (i.e. non-factual)	EXPLORE	*explore, hypothesize, speculate, predict, guess, estimate, simulate*
I tell you something external to our immediate context on which I have a legitimate knowledge claim	REPORT	*report, inform, recount, narrate, present, summarize, relate*

FKD konstruktoaren sailkapena konplexua da. Kategoria horietako bakoitzaren izena etiketa bat baino ez da, eta beregain hartzen ditu beste hainbat aditz ere, aditz operatiboak (*operative verbs*) deiturikoak. Hau da, DEFINE kategoriak ez du *definitu* bakarrik esan nahi, kategoria horretan dauden aditz guztiak baizik. Bestalde, taulan ikusten den moduan, kategoria batzuk beste batzuk baino aditz gehiagoz osatzen dira. EVALUATE kategoria zortzi aditzek osatzen dute, eta DEFINE kategoria hiruk. Kontuan hartu behar da halaber kategoria batzuen arteko mugak lausoak direla, eta ondorioz, zenbait kasutan, gerta daiteke aditz bat kategoria batean baino gehiagotan kokatzea (Dalton-Puffer, 2013). Modu berean, FKD batzuk beste batzuekin gainjarri daitezke, esaterako, sailkapenak definizioen parte dira (Dalton-Puffer 2013).

Bestalde, FKDak bi mailatakoak izan daitezke: atal maila (*episode level*) eta oinarrizko maila (*basic level*) (Dalton-Puffer et al, 2018). Lehenengoak asmo komunikatibo bati dagozkion diskurtso-tarte zabalagoak dira; eta bigarrenak, FKD laburragoak, atal

mailako funtzioaren helburua indartuz eta osatuz. Hau da, atal maila (edo makro-generoak) oinarrizko mailako (mikro-generoak) FKDek osatzen dute (Dalton-Puffer et al., 2018). Mailakatze horrekin lotuta, Kröss-ek (2012) aipatzen du FKDak genero gisa funtzionatzen dutela batzuetan, eta baita sekuentzia (*move*) gisa beste batzuetan. Hau da, FKD batzuk, azalpenak adibidez, generoak (azalpen testu bat) edo FKDak (esaldi bat) izan daitezke, luzeraren arabera. FKD eta generoen arteko harremana konplexua da, baina laburbilduz, Pluriliteracies Teaching modeloan funtzio kognitibo diskurtsiboek mikro-genero izaera hartzen dute, eta, diskurtsoaren beste funtzioekin batera, makro-generoak osatzen dituzte (Coetzee-Lanchmann, 2007).

Azken urteetan hainbat ikerketa egin dira FKD mota zehatzen inguruan (Lechner, 2016; Evnitskaya, 2019; Nashaat-Sobhy eta Llinares, 2020; Whittaker eta McCabe, 2020). FKD batzuek beste batzuek baino arreta handiagoa jaso dute, adibidez, DEFINE eta EXPLAIN (Dalton-Puffer, 2016), eta egindako ikerketa guztiek FKDen deskribapen zehatzagoa egiten lagundu dute:

KATEGORIZATU (CATEGORISE): Sailkapenak eta kategorizazioak egitea arloko alfabetatzearen parte garrantzitsu bat da (Dalton-Puffer, 2016). Anderson eta Krathwohl-ek (2001) diote Ikasgai guztietan kategoriak erabiltzen dira elementu berriak kokatzeko eta horiek interpretatzeko, eta termino espezifikoen eta gertaeren arteko loturak sailkapenen bidez egiten direla. Sailkapenak egiteko sailkatuko denaren ezaugarri esanguratsuenen identifikazioa egin behar da. Sailkapenak askotan "X da Y", "X Yren atal da", or "X Yri dagokio" formakoak izaten dira (Evnitskaya, 2019), eta Trimble-ek (1985), aldiz, hiru sailkapen mota bereizten ditu: osoa, partziala eta osatu gabea.

DEFINITU (DEFINE): Definizioak oso garrantzitsuak dira idazketa akademikoan (Dalton-Puffer, 2016). Definizioen egitura formula baten bidez laburbildu daiteke: definitu nahi den hitza (*definiendum*), dagokion mota (*definiens*), eta, ondoren, ezaugarri espezifikoak. Definizioaren barruan mota zehazten denez, CATEGORISE FKDa DEFINEren parte bihurtzen da. Definizioak konplexuagoak izan daitezke beste informazio eta zehaztapen mota batzuk gehituz (Trimble, 1985). Definizioak osatzeko formula ez da oso konplexua, "an X is an Y" eta ostean ezaugarriak jartzen dira, adjektiboak edo erlatibozko esaldiak izan daitezkeenak. Ahozko elkarrekintzan erabiltzen diren definizioak, idatzizkoan erabiltzen direnak baino sinpleagoak dira (Dalton-Puffer, 2016). Ahozko elkarrekintzan askotan kategoria ez da aipatzen, eta beste batzuetan definizio osoen ordez sinonimoak edo antonimoak ematen dira.

DESKRIBATU (DESCRIBE): Objektu, entitate, pertsona, egoera, gertaera edo prozesu baten kanpo- eta barne-ezaugarriei buruzko informazioa ematean datza (Dalton-Puffer, 2016). Deskribapenek hainbat forma hartzen dituzte testuinguru eta jakintza-arlo desberdinetan (Dalton-Puffer, 2016). Trimblek (1985) hiru deskribapen mota bereizten ditu: fisikoa (ezaugarri materialak eta kanpokoak); deskribapen funtzionala (gailu edo erakunde baten asmoa eta haren zatiak nola kohesionatzen diren). Deskribapen mota hau EXPLAINekin gainjartzen da maiz.

EBALUATU (EVALUATE): Jarrera bat hartzea, erabakiak justifikatzea eta norberaren iritziak argudiatzea esan nahi du (Dalton-Puffer, 2016). Ebaluatzea goi-mailako pentsamendu-trebetasuntzat hartzen da (Anderson eta Krathwohl, 2001). Hau da, funtzioak konplexutasunaren arabera hierarkizatzen dituzten autoreek funtzio hau konplexutasun handiko funtziotzat hartzen dute (Bloom, 1956; Anderson eta Krathwohl, 2001). FKD hau ez da asko ikertu, eta ikerketetan erakusten da funtzio hau gutxi erabiltzen dela elkarrekintzan (Kröss, 2014). Halere, curriculumetan pisua handia hartzen duen funtzioa da eta horregatik, Beacco et al.-ek (2010) elkarrekintzan protagonismo gehiago izan beharko lukeela dio.

AZALDU (EXPLAIN): Hiru azalpen mota bereizten badira ere, FKD konstruktuaren barruan, AZALDU FKDa bi modu nagusitan erabiltzen da (Dalton-Puffer, 2016): batetik, asmo edo motiboen berri emateko (X mozkortuta zegoelako Y gertatu zen); eta bestetik, gertaera baten arrazoia edo jatorria argitzeko. Funtzio honen komunikazio-asmoa honela definitzen da: "I give you reasons for and tell you about the cause/s of X" (Dalton-Puffer, 2013: 234). Definizio hau bat dator EXPLAINek Bloomen taxonomian egiten den funtzio honen definizioarekin (Anderson eta Krathwohl, 2001; Bloom et al., 1956). Bestalde, AZALDU aditza beste diskurtso kognitiboen hiperonimo gisa erabiltzen dela ikusi da (Dalton-Puffer, 2016).

ESPLORATU (EXPLORE): Esplorazioak funtsezko zeregina betezen du diziplinetako edukien eraikuntzan, funtzio hau ere, goi-mailako pentsamendu-gaitasuntzat hartzen baita. Andersonek eta Krathwohlek (2001), adibidez, hipotesiak egitea eta alternaribak sortzea konplexutasun maila altuenean kokatzen dute. Hizkuntza ikuspegitik, ESPLORATZEAK egitura lexikogramatiko konplexuak eskatzen ditu, hala nola aditz modalak, adberbioak eta baldintzazko esaldiak (Dalton-Puffer, 2016). Esploratzeak esan nahi du suposizio edo iragarpen bat egitea, baldintza jakin batzuk betetzen badira zerbait nolakoa izango den edo nolakoa izango litzatekeen jakiteko. Hipotesiak eta iragarpenak egitea dira FKD mota honetan gailentzen diren aditzak (Dalton-Puffer, 2016).

KONTATU (REPORT): FKD honek zer gertatu zen, noiz, nork egin zuen eta zein egoeratan kontatzea du helburu. KONTATZEA zeregin pedagogikoetan egiten den oinarrizko funtzioa da, adibidez ikasle batek taldean egindako lana aurkezten duenean.

2013an Dalton-Pufferrek FKD konstruktoa garatu zuenetik, hainbat ikerlariren arretagunea izan da (Dalton-Puffer et al., 2018; Doiz eta Lasagabaster, 2021; Breeze eta Dafouz, 2017; Bauer-Marschallinger, 2019, 2022; Dalton-Puffer eta Bauer-Marschallinger, 2019; Evnitskaya, 2019; Evnitskaya eta Dalton-Puffer, 2020; Lorenzo, 2017; Morton, 2022), eta ikerketa guzti horiek konstruktoa garatzen lagundu dute. Dalton-Puffer et al., (2018) lanean azken urteetan Austrian egin diren bost ikerketa jasotzen dira: Kröss (2014); Hofmann eta Hopf (2015), Brückl (2016), Bauer-Marschallinger (2016) eta Lechner (2016).

Bigarren atalean azaldu den bezala, gelan, prozesu kognitiboak elkarrekintzaren bidez koeraikitzen dira (Dalton-Puffer, 2013). Prozesu kognitiboak modu egokian adierazteko gaitasuna ez da automatikoki garatzen, baizik eta esplizituki irakatsi behar da, bai ikasleen lehen hizkuntzan eta baita bigarrenean ere (Meyer, 2010; Coyle et al., 2018). Bauer-Marschallinger-ek (2022) eta Tedick eta Lyster-ek (2019) CDFak idatziz nola aldamiatu daitezkeen ikertu dute, baina orain arte ez da ikerketarik aurkitu gelako elkarrekintzan ikasleek erabiltzen dituzten FKDen aldamiajea nola egin behar den aztertzen duenik. FKDak aldamiatzeko modu bat izan daiteke Coylek eta Meyerrek (2021) aipatzen dituzten *upscaling* eta *downscaling* kontzeptuak. FKDen konplexutasuna ikasleen beharretara egokitzean datza, FKDa sinpletuz edo konplexutasuna igoz. Ikasleei ezagutzak hizkuntzaren bidez komunikatzen irakasteak, hobeto azaltzen ez ezik, edukia hobeto ulertzen lagunduko die (Coyle eta Meyer, 2021).

3.3.6. Ikaskuntzaren ikuspegi holistikoa

> "deeper learning is not only a matter of constructing and communicating or demonstrating knowledge"
>
> (Coyle eta Meyer, 2021)

PTDL markoaren arabera, arloko alfabetatzea garatzeko behar diren gaitasun kognitibo eta linguistikoak ez ezik, ikaskuntza sakonagoa lortzeko ikaste-testuinguruak ikuspegi holistikoago batetik sortu behar dira (Coyle eta Meyer, 2021; Meyer et al, 2018). Hau da, lortu nahi diren ikaste-emaitzak eta alfabetatzea ikasleen beharrekin, indarguneekin eta interesekin lotu behar dira, ikasleak seguru eta lasai sentitu daitezen gelan arriskatzeko, akatsak egiteko, eta beren ikaste-prozesua gidatzeko (Parsi, 2015).

Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren ikuspegi holistikoago eta ekologikoagoa (van Lier, 2010) eskaintzeko, ezinbestez hartu behar dira kontuan parte-hartzaileen ezaugarriak eta horiek ikaste-irakaste prozesuan duten rola (Meyer et al., 2018). Horregatik, autore hauek aurretik azaldu den PTL eredua osatu zuten, eta bi ardatz berri gehitu zizkioten: garapen pertsonalerako mentoring-a (*mentoring learning for personal growth*) eta konpromisoa eta lorpena sortzea eta sustatzea (*generating and sustaining commitment and achievement*). Modu horretan 4 ardatzez osatutako PTDL eredua ikaste-irakaste integratu batera iritsi dira (Meyer et al., 2018):

Irudia/Figure 20. Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (Meyer et al., 2018)

Ikuspegi honek erakusten du urrundu egin behar dugula norabide bakarreko irakaskuntza eredutik, eta horren ordez, irakasle zein ikasleek ezagutzaren eraikuntzan eta ikaste-helburuen eta prozesuen negoziazioan elkarrekin parte hartu behar dutela (Coyle eta Meyer, 2021). Hortaz, ereduak ikasle zein irakasleen gaitasun ez kognitiboak jasotzen ditu; batetik, ikaslearen atxikimendua eta horrek errendimenduan duen eragina, autoeraginkortasun akademikoa eta norberaren sinesmen eta balioak batetik; eta mentoring dimentsioa bestetik (Meyer et al., 2018).

Lehenengo bi ardatzak goian azaldu eta sakondu direnez, hurrengo lerroetan beste bietan jarriko dugu arreta: garapen pertsonalerako mentoring-a eta konpromisoa eta lorpena sortzea eta sustatzea.

3.3.6.1. Konpromisoa eta lorpena sortzea eta sustatzea

Ikaskuntza sakonagoa lortzeko garapen kognitiboa bakarrik lantzea ez da nahikoa, ikasleak ikaskuntza sakonagorako pentsamoldea (*deeper learning mindset*) garatu behar du. Horrek lagunduko die modu jarraitu eta iraunkorrean lan egiten, erronketan gogotsu parte hartzen, ikaskideekin elkarlanean aritzen, eta beren ikaskuntza erregulatzen (Coyle eta Meyer, 2021). PTDL markoak jasotzen duen bezala, ikaslearen pentsamoldeak *(learner mindset)* eta faktore afektiboek funtsezko lau arlok osatzen dute: afektua (ikaslearen ongizatea, jarrera, motibazioa eta autoefikazia); atxikimendua (*engagement*) (emozionala, kognitiboa, soziala, jarrerazkoa); menderatzea (*mastery*); eta hausnarketa. Lau aspektu horien garapena erronka handia da irakasle zein ikasleentzat (Meyer et al., 2018; Coyle eta Meyer, 2021). Hala ere, atal honetan, ikasleengan jartzen da arreta.

Esan bezala, faktore afektiboen barruan sartzen dira: ongizatea, motibazioa, autoefikazioa eta jarrera. Pellegrino eta Hiltonen (2012) esanetan, faktore afektiboak edo ez-kognitiboak gero eta esanguratsuagoak dira XXI. mendeko ikaskuntzan; eragin zuzena baitute ikaskuntzaren kalitatean (Meyer et al., 2018). Hala ere, horien eraginak ez du erabateko inpaktua izango, alderdi afektiboa ezagutzaren progresioarekin lotu ezean, adibidez, ikaste-irakaste eredu integratu baterako baldintza egokiak eskainiz (Meyer et al., 2017).

Baldintza horien artean, ikasleek sentimendu positiboak izatea ezinbestekoa da ikaskuntza sakonagoa lortzeko; estresak eta zinismoak, berriz, azaleko ikaskuntzara garamatzate (Biggs, 1989). Ildo beretik, Morcom-ek (2015) dio harreman afektiboak eraginkortasunez lan egin ahal izateko aurrebaldintza direla, eta irakaslearen zeregina dela harreman horiek indartzeko espazio afektibo partekatuak sortzea. Horretarako, garrantzitsua da irakasleak gelako giroa berotzea Biggsek (1989), ikasleak eroso sentitu daitezen, eta zereginetan interesa izan dezaten (Biggs, 1989). Izan ere, ikasleak zenbat eta seguruago sentitu eta atxikimendu handiagoa izan, orduan eta motibatuago egongo dira eskakizun akademikoei erantzuteko (Brooks et al., 2012).

Bestetik, norberaren prozesuaren inguruan hausnartzea ikasteko modu bat izateaz gain, ikaste-helburu bat ere baita, eta horretarako, ikasleek haien ikaste-prozesuaren inguruan hausnartzeko tarteak behar dituzte (Meyer et al., 2015). Ideia hau

autoefikaziarekin lotzen da. Ikerketa askok erakusten dute ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela beren gaitasun intelektualak mugatuta ez daudela uste badute. Hau da, ikasleek arazoak konpontzeko eta zereginak osatzeko gaitasuna dutela uste dutenean, gogo eta pertzeberanzia handiagoz egiten diete aurre zailtasunei (Bandura, 1997), autoefikaziak ikasleen motibazioan modu positiboan eragiten baitu (Pajares, 2006). Motibazioan eragina duen beste arrazoi nagusietako bat da azken produktua gelakideen aurrean, gurasoen aurrean edo lagunei aurkeztu behar izatea. Beraz, ikasleak animatu behar dira beren proiektuak aurkeztera, eta proiektuen inguruan beste pertsona batzuekin hitz egitera (Aldabbus, 2018).

Atxikimenduari dagokionez, lau motatakoa izan daiteke: kognitiboa, emozionala, soziala eta jarrerazkoa. Atxikimendu sozialak ikaskideen arteko, eta ikasle eta irakasleen arteko harremanei dagokie; jarrerazkoak ikasleek gelako ekintzetan parte hartzeari; emozionalak ikasleek eskolarekiko, irakasleekiko eta ikaskideekiko dituzten sentimendu afektiboei egiten diete erreferentzia; eta azkenik, atxikimendu kognitiboak ikasleek gelako jardueretan konpetentziak garatzeko eta ideia konplexuak ulertzeko kontzienteki erabiltzen dituzten estrategia sofistikatuei eta autoerregulazio gaitasunari (Tang et al., 2022).

Atxikimendua ikaskuntza sakonagoaren oinarria da (Coyle eta Meyer, 2021), eta zeregin edo jarduera baten aurrean ikasleak erakusten duen parte-hartze aktiboaren maila adierazten du (Pietarinen et al., 2014). Wang et al.-ek (2016) nabarmentzen dute dimentsio sozialak, emozionalak, kognitiboak eta jarrerazkoak elkar eragiten direla, eta ikaskuntzarekiko ohiturak eta jarrerak garatzera eramaten dutela. Adibidez, ikasleen atxikimenduari buruzko ikerketek adierazten dute atxikimendu emozionalak atxikimendu kognitiboan eragiten duela. Jardueren diseinuak eragin handia izan dezake ikasleen atxikimenduan (Coyle eta Meyer, 2021), Chi et al.,-ek 2012 erakusten dute irakasleek edukiarekiko atxikimendua handitu dezaketela ulermen sakonagoa sustatzeko ikasleen rol pasiboaren ordez atxikimendu interaktiboa edo konstruktiboa sustatzen duten atazak diseinatuz.

Ezagutzak eta trebetasunak menderatzea (*mastery*) da irakaskuntza eta ikaskuntzaren helburu nagusia (Meyer et al., 2018). Anderson eta Krathwohlen arabera (2001), *mastery*ak pertsona batek arazo bat konpondu behar duenean eragiketa mentalak aktibatzeko duen gaitasuna deskribatzen du. *Mastery*-ak lorpena eta arrakasta dakar, eta hau garatzeko, funtsezkoa da ikasleak jarduera bat egiteko jarraitutako prozesua ulertzera bultzatzen dituen zereginak eskaintzea (Coyle eta Meyer, 2021).

Azkenik, norberaren hausnarketa egitea ikaste-helburu eta ikaste-objektua da aldi berean (Meyer, et al., 2018). Ikaskuntza arrakastatsua izan dadin, ikasleak jakin behar du bere buruarentzat egokiak diren helburuak ezartzen, ikaskuntza planifikatzen eta zailtasunei aurre egin ahal izateko estrategiak hautatzen (Heemsoth eta Heinze 2016). Hausnarketa sustatzea aberasgarria izan daiteke esanguratsuak diren hainbat aspektu indartzeko, hala nola, interesa, ikasten jarraitzeko gogoa eta norberaren trebetasunak eta gaitasunak hobetzeko motibazioa, erronka berriak aurre egiteko norberarengan konfiantza izatea, eta estrategia eta trebetasun metakognitiboak erabiltzea (Lüftenegger et al. 2017). Horretarako, ikasleek aukerak eskaini behar zaizkie garatu dituzten estrategien erabilirerari buruz kritikoki hausnartzeko (Meyer et al., 2015).

Aipatutako faktore guztiak elkarrekiko mendekoak dira. Ongizatearen, motibazioaren, arrakastaren (*achievement)* eta irakaslearen autoeraginkortasunaren arteko harreman konplexuak alderdi guztiak kontuan hartzea eta orekatzea eskatzen du. Alderdi bat deskuidatuz gero, litekeena da sistema osoari modu negatiboan eragitea; adibidez, ikasgelan laguntza emozionalik ez badago, irakaslearen eta ikaslearen ongizatea ahuldu egingo da, eta horrek errendimendu akademikoan modu negatiboan eragin dezake. Aitzitik, alderdi bat indartzen bada horrek beste alderdi batzuetan eragin positiboa izango du (Meyer et al., 2018).

3.3.6.2. Garapen pertsonalerako eta ikaskuntzarako mentoring-a

PTDLk eskatzen du ikaskuntza feedback egokiaren, ebaluazioaren eta hazkunde pertsonalaren bidez aldamiatzea (Meyer et al., 2018). Horretarako, irakasleek testuinguru egokiak diseinatu behar dituzte, eta aukerak eskaini ikasleek gaitasunak garatzeko, eta bai kontzeptualizazioaren eta komunikazioaren continuumetan aurrera egiteko (Meyer et al, 2015).

Mentoringak, azaleko ikaskuntzatik ikaskuntza sakonagora pasatzeko, ikasleen eta irakasleen arteko elkarlana eskatzen du (Meyer et al., 2018). Ikasle eta irakasleen artean ikaskuntzak eta erronkak diseinatzeak aukera ematen ie ikasleei beren aurrerapena etengabe ebaluatzeko eta hausnartzeko (Fullan eta Langworthy, 2014). Gainera, ikasleek euren buruarengan konfiantza irabazten dute edukian eta hizkuntzan aurrera egiten dutela esaten duen feedbacka jasotzen dutenean.

Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning ereduan ikaslearen garapena lortu nahi da ikaskuntza sakonagoa aldamiatuz. Aldamiajea egiterakoan ikaskuntzaren eremu guztiak hartu behar dira kontuan: afektiboa, kognitiboa, motor-sentsoriala eta soziala (Dettmer, 2005), eta maila eta momentu desberdinetan egiten da: zereginak eta jardueran

diseinatzerakoan (*pre-teaching*); irakasten den bitartean (*process feedback and support*), eta irakaskuntzaren ostean (*product feedback, assessing for deeper learning*).

Aldamiajearen prozesuan ikaslearen esku jartzen dira ezagutza eta jakintza eraikitzeko lagungarriak diren materialak eta baliabideak, praktikaren bitartez ikasleek ezagutza bereganatu eta konpetentziak eta gaitasunak garatzera iritsi daitezen (Meyer, 2015). Ikasleei prozesu horiek automatizatzen laguntzeko feedback egokia emateko testuinguruak sortu behar dira (Anderson et al., 1995), eta hizkuntzaren automatizazioa bultzatzen duten jarduerak txertatu, betiere transferentziaren prozesua zainduz eta kontuan hartuz (Segalowitz, 2003).

PTDL markoan feedback-a ikaskuntzaren helburuen, zereginen eta emaitzen arteko funtsezko lotura da (Coyle eta Meyer, 2021). Hattie-k eta Timpereley-k (2007:81) honela definitzen dute feedbacka: "information provided by an agent regarding aspects of one's performance or understanding". Hattie-k eta Timpereley-k (2007) proposatutako ereduan lau feedback maila bereizten dira: task, process, self-regulation, self level (Coyle eta Meyer, 2021). Erregulazioaren eta prozesuaren gaineko feedbacka esanguratsuenak dira zereginak sakon prozesatzeari eta menderatzeari dagokionez. Baina "feedback aimed to move students from task to processing to self-regulation is considered to be the most effective" (Coyle eta Meyer, 2021: 111).

Bestetik, errubrikak feedbacka emateko tresna nagusietako bat da. Errubrikak ikasle eta irakasleen artean eraikitzea proposatzen da, definitutako helburuak, prozesuak eta zereginen emaitzak garden egiten dituelako, ikasleak ezagutza berria definitzen eta zehazten duten prozesuetan inplikatzen dituelako eta zereginak arrakastaz egitera eramaten dituelako (Coyle eta Meyer, 2021).

Azkenik, ebaluazio hezitzailearen barruan (ikus 2.3.2. atala) irakaslearen ebaluazioa, berdinkideen arteko koebaluazioa eta autoebaluazioa uztartu behar dira. Horiek egiteko ikaskideen parte-hartze aktiboa behar da (Meyer et al., 2018).

3.3.7. Ikas-materialaren ezaugarriak

Material didaktikoak hezkuntza-testuinguruan irakaskuntza eta ikaskuntza errazten duten bitartekoak eta baliabideak dira, ikasleak ezagutzak eraikitzeko prozesuan ikaste-prozesuak gidatzeko eta orientatzeko diseinatzen direnak (Schwartzman, 2013). Ikerketek iradokitzen dute materialek ikasleen ikaskuntzaren eta errendimenduaren kalitatean modu positiboan eragin dezaketela, ikasleen ikaskuntza areagotuz (Glewwe

et al., 2011). Gainera, Torresen eta Garcíaren arabera (2019), material didaktikoek irakasleentzako tresna lagungarri gisa ere balio dute.

PTDL markoaren helburua ikasleek jakintza-arlo desberdinetan ikaskuntza sakonagoa lortzea izanik, material didaktikoak ikaskuntza sakonagoa sustatu beharko du. Hau da, arloko alfabetzatzeak eta horien ikaste-prozesu sakonagoak sustatzeko, materialak lagundu behar du arlo bakoitzari dagokion kulturan edukiak eraikitzen, eta eduki horiek hizkuntzaren bitartez interpretatzen (Schartz, 2017). Izan ere, materiala hizkuntzaren lanketari dagokionez egokia izateak ez du esan nahi edukiari dagokionez ere egokia izatea, eta alderantziz; horregatik, Mortonek (2013) material didaktikoa hizkuntza eta edukiaren arteko integrazioa kontuan hartuta diseinatzearen garrantzia nabarmentzen du.

Pluriliteracies markoa garatu zuen taldeak irakasleentzako erabilgarriak izan daitezkeen baliabideen biltegi bat sortu zuen, eta bertan kimika, geografia eta historiarako diseinatu diren materialak bildu dira (ECML, 2020). Connolly-k (2019) kimikako arloan kausa-efektu erlazioak aldamiatzeko materialak sortu zituen, Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning markoa (Meyer eta Coyle, 2017) eta kimikako oinarrizko kontzeptuak kontuan hartuz (Leisen, 2013). Bestetik, Bauer-Marschallingerrek (2022) batxilergoko CLIL testuinguruetan historia irakasteko materialak garatu zituen, FKDen kontzeptua oinarri gisa hartuta.

Connollyk (2019) egindako azterketan ikusi zuen azterketarako diseinatutako materiala erabili zuen talde esperimentalak kontrol-taldeak baino emaitza hobeak lortu zituela bai edukiaren eta baita arloko alfabetzatzeari dagokionez. Modu honetan ondorioztatu zuen zenbait ezaugarri dituzten materialek ikaskuntza errazten dutela, adibidez, *misconceptionak* gainditzen laguntzen dutenak, edo arloko hizkuntzaren autoerregulazioa sustatzen dutenak. Alderdi horiek eta PTDL markoko ideia nagusiak kontuan hartuta, Conollyk (2019) PTDL markoan kokatzen diren material didaktikoek izan behar dituzten bost ezaugarri nagusiak jasotzen ditu:

1. Edukia, hizkuntza eta metakognizioaren progresioa *(Progression in terms of content, language and metacognition): PTDL* markoaren atalean azaldu den bezala (3.1.1), progresioaren ideia ikaskuntza sakonagoa lortzeko gakoetako bat da. PTL eredua osatzen duten kontzeptualizazio eta komunikazioa continuumetan aurrera egiteko ikasleek ezagutzak gero eta modu konplexuagoan eta egokiagoan adierazten ikasi behar dute (Coyle, 2020), hasiberritik aditura (*novice-expert*). Bi continuumen artean loturak egiteko eta arloko arloko alfabetzatzea garatzeko, lau *ekintza tipoen* zehar

FKDak eta generoak erabiltzea proposatzen dira. Hau da, materialak gero eta konplexuagoak eskaini behar ditu (Meyer et al., 2015) eta arloari dagozkion FKD eta generoen bidez ezagutzak komunikatzeko eskatu.

2. Hizkuntza teknikoaren eta edukia lotzen arloari dagozkion datuen bitartez *(Linking technical language and content learning to concrete facts concrete subject matter):* Oro har, zientziaren diskurtsoa teknikoa dela ondorioztatu da, eta gizarte-zientziena, berriz, abstraktuagoa (Beacco et al., 2015). Ikaskuntza sakonagoa lortzeko, ezinbestekoa izango da ikasgai guztietan hizkuntza akademiko egokia erabiltzea (Meyer et al., 2015), eta horrek jakintza-arlo bakoitzak berariaz duen hizkuntza menperatzea suposatzen du. 3.2.2 atalean aipatu den bezala, hizkuntza arruntaren erabilerak hizkuntza akademikoa garatzen laguntzen du, horregatik, materialak eguneroko hizkuntzaren eta hizkuntza akademikoaren arteko joan-etorriak sustatu behar ditu, baita edukia adierazten den formatu desberdinen artean ere (Nikula et al., 2013). Izan ere, Pluriliteracies ereduak azpimarratzen du ikaslea gai izan behar dela arloetako ezagutzaren berri emateko erabiltzen diren formatu desberdinetatik informazioa eskuratzeko, eta ikasleak formatu horietan ezagutza adierazten trebatu behar ditugula (Meyer et al., 2015).

3. Gatazka kognitiboak sortu eta ezagutza okerrak landu (*Creating cognitive conflicts and addressing pre- or misconceptions):* Gatazka kognitiboek potentzial handia dute ikaskuntzan, aurretik sortutako eskemak berregituratzen baitira, eta gatazka horiek gertatu ezean ezagutza berriak nekez integratuko dira aurretik sortutako eskemetan, asimilazio eta kontzeptu okerrak (*misconceptions*) sortuz (Bonnet, 2004). Kontzeptu okerrek eragin negatiboa daukate ikaskuntzan (Chang et al., 2007), eta ikasteko zailtasunak areagotu egin daitezke (Beerenwinkel et al., 2007). Taldean lan egiten duten ikasleek gatazka kognitiboak gainditzeko aukerak dituzte: kontraesan bat argitzen saiatzean, hasierako ikuspuntuetatik ezagutza-maila altuago bateko ikuspuntu batera iritsi daitezke (Laborde, 1994). Beraz, ikasleen progresioa nahi badugu, materialak aukera eman behar du kontzeptu okerrak identifikatzeko, eta horiek berariaz lantzeko (Biggs, 1989).

4. Aldamiatze multidimensionala (*Multidimensional scaffolding):* Pluriliteracies Teaching for Learning modeloan ikaslearen garapena lortu nahi da ikaskuntza sakonagoa aldamiatuz. Horretarako, ikaslearen esku jarri behar dira ezagutza eta jakintza eraikitzeko lagungarriak diren materialak eta baliabideak, modu autonomoan ezagutza bereganatu eta konpetentziak eta gaitasunak garatzera iritsi daitezen (Meyer, 2015). Prozesu horiek automatizatzeko, hizkuntzaren automatizazioa bultzatzen duten

jarduerak ere txertatu behar dira (Segalowitz, 2003). Aldamiajearen prozesuan feedback-ek eta hausnarketek pisu handia hartzen dute. Ebaluazioari dagokionez, materialak ebaluazio hezitzailea proposatu behar du (ikus 2.3.2 atala). Ebaluazio hezitzailean ebaluazio mota desberdinak koordinatzen dira, autoebaluazioa, koebaluazioa eta irakaslearen ebaluazioa esaterako. Hiru ebaluazio mota hauek uztartzeak ezagutzaren eraikuntzan eta ulermenean lagunduko du (Meyer et al., 2018).

5. Ikasleen ezaugarri afektiboak eta atxikimendua sustatu. (*Encourage affective student characteristics and engagement):* atxikimenduaren inguruko teoria atal honetan jaso da. Atxikimendu emozionala eta kognitiboari dagokienez, Pellegrinok eta Hiltonek (2012) diote ikasleen interes, testuinguru eta munduko arazo eta gertaera errealek motibatzen dituzela ikasleak. Beraz, materialak proposatzen dituen jarduerek ere lotura izan behar dute ikasleen errealitatearekin. Gainera, irakaslearekin batera ikaste-helburuak zehazteak, ikasleen autoerregulazio gaitasunean laguntzen du, eta ondo eginez gero, eragina izan dezake ikasleen autoefikazian. Azkenik, materialak erantzunak kontrastatzeko aukera eskaini beharko luke; izan ere, azken emaitza gelakideen aurrean aurkeztu aurretik erantzunak egiazta baditzakete, ikasleen ongizatea hobea izango da emaitza aurkeztu behar duenean (Connolly, 2019).

3.4.   SUMMARY

Two of the roles that language plays in the learning process have been pointed in this section. On the one hand, Vygotsky's sociocultural theory (1978) defines language as a mediating and thinking tool, emphasising the importance of interaction and scaffolding in learners' development and learning. On the other hand, school is organised into areas of knowledge that are taught in school through language (Schleppegrell, 2004; Vollmer, 2007).

As the knowledge required of learners becomes more advanced and specialised, language becomes more abstract and metaphorical (Fang, 2012), and literacy and texts become increasingly specialised as they progress through the grades (Shanahan and Shanahan, 2008; Schlepegrell, 2004). Thus, according to these authors, disciplinary literacy develops throughout secondary education, since disciplinary demands become more determinant in secondary education (Tang, 2016).

In this vein, Systemic Functional Linguistics (SFL) has described discourses in various subject areas and identified differences (Fang et al., 2008; Halliday and Martin, 2003; Veel and Coffin, 1996; Rothery, 1994). In order for students to become literate in school

subjects, they must become producers of the various genres with which the knowledge of the field of knowledge is constructed (van Kampen, 2020).

In general, neither language teachers nor subject teachers pay attention to the role of language in the learning process (Coyle, 2015). Understanding and implementing the concept of integration in models that integrate language and content has been done in different ways (Nikula et al. 2016), with the resulting deficits of learners in academic language (Meyer and Coyle, 2017), both in first and second languages (Vollmer, 2008).

It is sometimes assumed that because the language of instruction is the learners' first language, they will automatically achieve the objectives set for the language of instruction and develop the academic literacies of the subjects taught through this language (Pavón and Pérez, 2018). According to Lorenzo and Trujillo (2017), one of the causes of learning deficits is difficulties in students' first language proficiency (L1). As a result, regardless of the language of instruction, "the vehicle of communication is a conduit for learning," whether it is an L1 or an L2 (Lorenzo and Trujillo, 2017).

In order to ensure that academic language does not hinder the learning process, and to help achieve deeper learning, the Graz group, funded by the Council of Europe's European Centre for Modern Languages, developed the Pluriliteracies Teaching for Deeper Learning (PTDL) model (Meyer and Coyle, 2017).

Meyer et al. (2018) proposed a research agenda for deeper learning based on Biggs' 3P model (Biggs 1999). The 3P model encapsulates the elements that influence any learning and teaching process (Freeth and Reeves, 2004). Meyer et al. (2018) assert that teachers' and students' prior experiences, attitudes, and perceptions (Presage) influence, among other things, the decisions that the teacher makes throughout the teaching process, the design of the material, and the mindset that students put into active participationin the defined tasks (Processes), all of which have an impact on the quality of learning.

Deeper learning requires learners to develop the ability to transfer subject area competences and content to different contexts (Coyle and Meyer, 2021), i.e. knowing when, how, and why to apply the knowledge developed to answer problems and questions that arise. The ability to perform this knowledge transfer will be dependent on the ability to construct knowledge in the subject areas. Thus, PTDL prioritises subject-specific literacy as the foundation for deeper learning (Meyer, 2015).

The PTL model, which is made up of two continuums (Meyer, 2015): the conceptualising continuum and the communicating continuum, aims to demonstrate how learners construct increasingly complex knowledge and meaning as they use and develop language from novice to expert level (Coyle, 2015). Learners should develop the ability to communicate their domain knowledge using the corresponding mode (oral, written, graphic or picture, table, drawing), genre, and style (formal or informal) to respond to the situation or context while taking the communicative goal into account (Coyle and Meyer, 2021).

In addition to the genres and registers mentioned in SFL, The Graz Group authors explain that another, smaller unit (micro-genres) could be useful in constructing more complex genres and in linking two continuums (Meyer et al., 2015; Meyer and Coyle, 2017). These "micro-genres" are known as "cognitive discursive functions" (CDFs), and they integrate both cognitive and communicative aspects of learning (Dalton-Puffer, 2013). As CDFs structure academic discourse, they play an important role in the deeper learning process (Dalton-Puffer, 2013).

To provide a more holistic and ecological view of teaching and learning (van Lier, 2010), a more integrated teaching and learning PTDL model composed of four axes was developed (Meyer et al., 2018), a new model that adds two more axes to the PTL model: "*mentoring learning for personal growth*" and "*generating and sustaining commitment and achievement*".

Because the goal of the PTDL framework is that students achieve deeper learning in various subject areas and through various languages, teaching materials should also encourage deeper learning. In other words, the material must contribute to the construction of content in the culture corresponding to each subject area, as well as its interpretation and linguistic processing, in order to promote subject-specific literacies and deeper learning processes (Schartz, 2017). Conolly (2019) lists the five main characteristics that learning materials within the PTDL framework should have, which are: Progression in terms of content, language and metacognition; Linking technical language and content learning to concrete facts concrete subject matter; Creating cognitive conflicts and addressing pre- or misconceptions; Multidimensional scaffolding; Encourage affective student characteristics and engagement

Chapter 4:
RATIONALE AND METHODOLOGY

4. RATIONALE AND METHODOLOGY

4.1.   RATIONALE FOR THE PRESENT STUDY

As presented in the first chapter of the theoretical framework, the changes that have occurred in society over recent decades have resulted in education having to adapt. Among other things, the focus has been placed on the aim of learners developing various competences. To this end, active methodologies are proposed, in which students are the protagonists of their learning process. In addition, interdisciplinarity, which helps to give meaning to the contents learnt and relate them to everyday life, is encouraged so that knowledge can be taught in an integrated way (Morin, 2010) and in order to put into practice what has been learnt in the subjects (Mc Phail, 2017).

In the second chapter of the theoretical framework it is argued that in addition to active (and interdisciplinary) learning, subject area literacy is key to deeper learning. It is pointed out, however, that subject area teachers do not pay attention to subject area content and language integration, resulting in a lack of attention to the role of language in subject areas. The PTDL framework proposes a model to ensure integration in the subject areas. For this purpose cognitive discourse functions are proposed.

In the BAC, where students have to develop proficiency in three languages, and many students learn in a language which is not their L1, interdisciplinary projects have not been studied from this perspective. For this thesis, the PTDL framework has been chosen because it places subject-specific literacy at the centre of deeper learning, along with other aspects. Within the PTDL framework, different disciplines (mathematics, history, science, etc.) have so far been studied. To our knowledge, there is little research on how subject-specific literacies should be worked on in interdisciplinary projects using the PTDL framework.

In this thesis a qualitative case study which involves a multidisciplinary project in upper-secondary school will be carried out. According to Shanahan and Shanahan (2008), as students move up through the school, literacies in subject areas become increasingly complex and specialised. Moreover, the challenge is increased when the language of schooling is a minority language and the L2 of many pupils. This study aims at understanding how the integration of language and subject area can be developed through multidisciplinary projects.

As seen, the identification of curricular and pedagogical planning, participant perspectives, and classroom practices are major factors to consider when integrating

content and language (Nikula et al., 2016). It is these three aspects that are presented in the present study. The views of students and teachers will be considered, whilst the material designed by the teachers will be examined and, finally, the way in which the CDFs are used in the student-teacher interaction will be analysed.

4.2.   OBJECTIVES AND RESEARCH QUESTIONS

This doctoral thesis aims to examine how subject-specific literacies are addressed in a multidisciplinary project with special focus, firstly, on teachers' and students' views regarding the features of the project, secondly, on the presence of subject-specific literacy in the teaching material and, thirdly, through the analysis of how CDFs are scaffolded in teacher-student interaction.

In order to do so, the following research questions are proposed.

RQ1. How do teachers and students involved in a multidisciplinary project describe the entry context of the project?

> RQ 1.1 How do teachers and students involved in the project describe students' characteristics?

> RQ 1.2 How do teachers and students involved in the project describe teachers' characteristics?

> RQ 1.3 How do teachers and students involved in the project describe the context of instruction?

Teacher and student perspectives on the project not only aid in understanding the complexities of the project, but also in interpreting the characteristics of the teaching material and classroom practices. As explained in the theoretical framework, Meyer et al. (2018) contend that prior experiences, attitudes, and perceptions (Presage) of teachers and students influence not only the decisions made by the teacher during the teaching process, but also the design of the teaching material and the level of active student participation (Processes), and hence, have an impact on the quality of learning.

Thus, in order to better understand the presage of the project, it was considered essential to know the point of view of both students and teachers. Therefore, interviews were conducted with students and teachers participating in the project with regards to the characteristics that make up the presage of the project. The 3P model's presage phase involves the three elements that influence any learning and teaching process, which

include student characteristics, teacher characteristics, and context of instruction (Freeth and Reeves, 2004).

RQ2. How is subject-specific literacy worked on in the teaching material?

RQ 2.1 To what extent does the teaching material designed for the project meet the criteria proposed by the PTDL framework?

RQ 2.2 How does the teaching material meet the criteria related to subject-specific literacies?

There is a scarcity of materials for teachers that integrate content and language (Morton, 2013). According to Meyer et al. (2015:45) this might be due to the fact that "a deeper understanding of how the integration of content and language can actually be conceptualised has only recently begun to emerge".

Textbooks contain numerous explanations, descriptions and definitions which reflect and exemplify their corresponding academic linguistic functions. It is reasonable to expect, therefore, that a close examination of textbook language will reveal the linguistic forms through which students are expected to perform the key functions related to different subjects (Kidd, 1996). Dalton-Puffer (2013) states that the CFD construct (see section 3.3.5) could be useful for the analysis of the language demands in teaching materials.

RQ 3. How are Cognitive Discourse Functions scaffolded in teacher-student interaction?

RQ 3.1 How much evidence of CDFs is there in teacher-student interaction?

RQ 3.2 How is teachers' meta-talk in the teacher's discourse concerning the CDFs?

RQ 3.3 What strategies do teachers use to scaffold CDFs in the classroom?

In the third research question, focus will be placed on CDFs within subject-specific literacies. as they are key for the development of subject-specific literacies, and little is known about the scaffolding of CDFs.

